

# **ANTIGITANISMOA, BIZIRIK DIRAUEEN ARRAZAKERIA:** diskriminazio-kasu batetik abiatutako hausnarketa

Kriminologiako Gradua  
2019/2020 ikasturtea

Egilea: **Irati Ortube Zulueta**  
Zuzendaria: **Idoia Igartua Larraudogoitia**  
Zuzendarikidea: **Juan Aldaz Arregui**



**Laburpena:**

Pertsonon arteko botere-harremanek modu nabarian eragiten diote Ijito Herriari. Indarrean dauden legeek ez dute lortu ijitoak zapalkuntza horretatik babestea, eta horren eredu dugu aztergai dugun kasua, kanpaleku batera sartzea ukatu zieten ijitoen familiarena, hain zuzen ere. Lan honetan kasu horren nondik norakoak izango ditugu ardatz gisa, etnia ijitoak etengabe nozitzen dituen jarrera arrazistak ikertu eta horien kontra egiteko proposamenak mahaigaineratzeko.

**Gako-hitzak:** Ijito Herria, etnia, botere-harremanak, arrazakeria, antigitanismoa, diskriminazioa, interseksionalitatea.

**Abstract:**

Power relations amongst citizens have an evident effect on gypsy people. The regulation in force does not provide them enough protection, and we can verify that by looking at the case that we have in our hands: a family of gypsies that was denied the entry to a campsite. We will be focusing on that case in order to analyse the racism suffered by those of gypsy ethnicity and the possible solutions to avoid these forms of oppression.

**Key words:** Gypsy Community, ethnicity, power relations, Anti-Gypsyism, discrimination, intersectionality.

**Resumen:**

Las relaciones de poder afectan profundamente al Pueblo Gitano. Las leyes que se encuentra en vigor no han conseguido proteger a este pueblo de la opresión que viven, y el caso que se analizará es un claro ejemplo de ello: el caso de un camping que denegó el acceso a una familia gitana. En este trabajo se analizarán, por tanto, tanto el caso mencionado como los episodios de racismo que tiene que vivir el Pueblo Gitano día tras día para tratar de identificar y proponer posibles soluciones que reviertan la actual situación.

**Palabras clave:** Pueblo Gitano, etnia, relaciones de poder, racismo, antigitanismo, discriminación, interseccionalidad.

## **SIGLAK**

**FSG:** Fundación Secretariado Gitano (Ijitoen Idazkaritza Fundazioa)

**GKE:** Gobernu Kanpoko Erakundea

**NBE:** Nazio Batuen Erakundea

**FRA:** Oinarrizko Eskubidei buruzko Europar Batasuneko Agentzia

**CIS:** Centro de Investigaciones Sociológicas (Azterketa Soziologikoen zentroa)

**EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa

**OCLDI:** Ibiltarien Delinkuentziaren Borrokarako Bulego Zentralak kudeatzen dituen balizko txostenak

**RAE:** Real Academia Española

I. KLINIKA JURIDIKOA: ZERGATIK? .....	6
II. KASUA HAUTATZEKO ARRAZOIAK.....	7
III. KASUAREN AURKEZPENA.....	11
A. Kasuaren nondik norakoak .....	11
B. Aztertu beharreko gertaerak.....	11
C. Egindako jarduketak.....	12
1. Administrazio-bidean .....	12
2. Bide penalean .....	14
IV. MARKO TEORIKOA .....	15
A. Azterketa soziologikoa .....	15
1. Etnozentrismoa: identitate soziala eta bestea .....	15
2. Identitatea eta etnia .....	17
3. Zer da arrazakeria? .....	18
4. Bi arrazakeria ala arrazakeriaren bi logika? .....	19
5. Arrazakeria eta esklusioa .....	22
6. Baztertuta daudenek egiten duten arrazakeria.....	23
B. Arrazakeriaren azalpen psikosoziala .....	24
1. Aurreiritzi eta estereotipoak .....	24
2. Aurreiritzi eta estereotipoen aspektu psikosoziala.....	26
C. Antigitanismoa .....	27
D. Antigitanismoa historian zehar .....	29
E. Diskriminazio intertekzionala .....	32
V. TESTUINGURUA .....	35
A. Sarrera.....	35
B. Antigitanismoa gaur egun eremu politikoan.....	36
C. Antigitanismoa gaur egun eremu sozialean.....	39
1. Egoera sozioekonomikoan .....	43

2. Lan-arloan .....	44
3. Osasunean .....	47
4. Etxebizitzan.....	49
5. Hezkuntzan.....	51
6. Komunikabideetan .....	53
7. Diskriminazio interseksionala.....	55
<b>VI. PUBLIKOARENTZAT IREKITA DAUDEN EREMUETAN: KASUAREKIN LOT DAITEKEN DISKRIMINAZIOA .....</b>	<b>57</b>
A. SOS Arrazakeriak egindako Testing-a .....	57
1. Zer da eta zertarako erabiltzen da testing-a?.....	57
2. Testing-aren metodologia.....	58
3. Testing-aren emaitzak .....	60
B. FSGk txostenean publikatutako kasuak .....	61
<b>VII. MARKO JURIDIKOA .....</b>	<b>64</b>
A. Europako eremua: Europako agenda soziala eta arau-garapena.....	64
B. Espainiako Marko Juridikoa .....	65
1. Espainiako marko juridikoa estrategia martxan jarri aurretik.....	65
2. Ijitoen Herrirako Inklusio Sozialerako Estrategia Nazionala.....	69
a) Estrategiaren azterketa.....	70
<b>VIII. KASUA DEFENDATZEKO MARKO JURIDIKOA.....</b>	<b>72</b>
A. Europako arautegia .....	72
B. Espainiako arautegia .....	74
1. Bide administratiboan .....	74
2. Bide penalean .....	78
<b>IX. MARKO ENPIRIKOA.....</b>	<b>82</b>
<b>X. ONDORIOAK.....</b>	<b>91</b>
<b>XI. GOMENDIOAK.....</b>	<b>95</b>

XII. BIBLIOGRAFIA .....	98
XIII. LEGERIA .....	102
A. Europako Legeria.....	102
B. Espainiako Legeria .....	102
C. Autonomia-erkidegoetako Legeria.....	103
XIV. JURISPRUDENTZIA.....	103
XV. ERANSKINA .....	105
A. Laburpen exekutiboa.....	105

# I. KLINIKA JURIDIKOA: ZERGATIK?

Klinika Juridikoan sartzea erabaki izanaren arrazoia oso sinplea dela esango nuke, Kriminologia ikasketak pertsonalki hainbeste gustatu izana bezain sinplea (nik uste). Bizi dugun sisteman, botere-harremanek zaugarri egiten duten pertsonen injustiziei erantzuna emateko nahia da ezinbestean gradu amaierako lana eta praktikak klinika juridikoarekin egitera bideratu ninduen.

Lau urte hauetan, botere-harreman horiek guztiak aztertu, kritikatu eta ikasteko sortu dugun erreminta kaxa honek ezinbestean balio behar du zaugarri egin dituzten pertsonen erantzuna eman eta injustizia horien kontra jarduteko. Kriminologoaren figura, nik neuk behintzat horren kontra borrokatzen ikusten dut.

Juan Aldazek Desbideratzearen Soziologian, pertsonen bizitzeko bi aukera izan dezaketela errepikatzen zigun behin eta berriz, zoriontsu izatea, edo jakitea. Guk geuk, ikasketak hauek aukeratu genituenean errealitatea ezagutu, landu eta injustizia horiek ezagutzeko aukera hartu genuen, horri guztiari gero irtenbidea emateko edo behintzat ahalegin horiek egiteko.

Nik erabaki hori argi nuen hasieratik. Injustizia sozialekiko neutroak izanez gero, gu geu bihurtzen baikara hein handi batean zapaltzaile. Eta ez dut inor zapaldu nahi. Lurrera erori eta altxatzeko eskubidea dutenei (pertsona guztiei) eskua luzatu nahi diet. Horretarako, ezinbestean landu behar da kritikotasuna, eta hori da, Klinika Juridikoak eskaintzen diguna. Dugun erreminta kaxa irekitzeko aukera eman digu Klinikak, eta nik neuk banituen jada gogoak orain arte liburuetan ikasitakoa, praktikara bideratzeko.

Esperientzia polita izan da, lan handiagoa suposatzen duen esperientzia izan bada ere, eta zer esanik ez COVID-19aren ondorioz izan ditudan zailtasunak gehitzen badizkiogu. Haatik, agian ez da hori zailen egin zaidana. Kontuan hartu behar dugu aztertu beharreko kasua oraindik instrukzio fasean dagoela, eta hortaz ezin izan dudala sententzia batetik abiatu, oraindik ez baitakigu ahozko epairik izango denetz. Hori horrela, kasuaren dokumentazio egokia lortzeko zailtasunak nabariak izan dira, eta nire lana kasu batetik abiatu behar dela kontuan hartuz, martxora arte ez dut hau lortzerik izan. Aipatzekoa da adibidez, biktima instrukzioko epaitegian agertu behar zenean, bertara joatea erabaki nuela, dokumentu horiek eskuratu eta nire burua aurkezteko. Tamalez, azkenean

abokatuak egun berean beste kasu bat defendatu behar izan zuenez, atzeratu egin zuten hau, eta ez ninduten ezer esan. Bilbon izan nintzen hauen zain, Erabereaneko lankidearekin kontaktuan jarri arte, eta egoera helarazi zidan barkamena eskatuz. Egia da ere, horren ostean Arartekoarekin izan zuten barne bilera batera gonbidatu nindutela, eta orduan izan nuela biktima ezagutzeko aukera. Kasua ere martxoan bertan lortu nuen, eta orduan hasi nintzen hau guztia aztertzen. Baina honetatik guztitik atera dudan ondorioa konfort-zonatik ateratzeak zabaltzen dituen aukerak ikaragarriak izan daitezkeela da. Horretan diharduten erakundeekin kontaktuan jartzeko bideak, ezagutzen ez nituen egoerak aztertzeako bideak, urtean zehar egindako seminarioek, praktikak... horiek guztiak sartu ditut erreminta kaxara honen bidez.

Hortaz, mila esker hau posible egiteko lanean zabilzatenoi, eta bizi izan dudan esperientzia datorren urtean datozen horiei zabaltzeko ahaleginak egingo duzuenoi. Espero dut esperientzia hau nik baloratu dudan beste baloratzea datozen hurrengoek ere.

## II. KASUA HAUTATZEKO ARRAZOIAK

Kasuak aurkeztu zitzaizkigunean, asko harritu ninduen aukeratutako kasuak. Ijitoen komunitatekoa izateagatik soilik publikoarentzako irekita dagoen kanpinean sartzen ez uzteak, eta frogatzeko bide handirik ez dagoela jakiteak, erronka handia suposatzen zuela iruditu zitzaidan, eta horrek sortu zidan interesa.

Egia da, lanarekin oso motibatua nengoela, ez bainuen ijitoen errealitatea lehenago aztertu izan, baina interesa lana egiten nindoala handitzen zihoala esan behar dut. Ijitoen komunitatea gutxietsien dagoen komunitate minoritarioa da, eta nik neuk hori auresuposatu beharko nukeen arren, ez dut orain arte horretan pentsatu. Aztertzen eta egoera ikasten nindoala, antigitanismoa lehenago aztertu beharko nukeela ondorioztatu dut. Historian zehar jendarteak, instituzioek, gobernuak... gauzatu duten jarrera antigitanistek, oraindik horretan dihardute. Era berean, historia gehiengoak idatzi duela kontua harturik, komunitate horren kontrako aurreiritzi eta estereotipoek bere horretan jarraitzen dute. "Historia bakarrak estereotipoak sortzen ditu eta estereotipoekin arazoa ez da faltsuak direla, osatugabeak direla baizik. Istorio isolatu bat bihurtzen dute, bakarra" (Chimamanda Ngozi Adichie, 2013) <sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Chimamanda Ngozi Adichie idazle eleberrigile eta antzerkigile feminista nigeriarra.



Horren ondorioz, aztertu dudana kasua ez da kasu isolatu soil bat. Ijito Herriak egunez egun bizi behar duen errealitatea dugu hau. Eta txarrena, ez da errealitate hori bizi behar izatea (oso kaltegarria den arren komunitatearentzat) baizik eta ekintza arrazista eta antigitanista horiek bizi behar dutenek salatzen badute, gehienetan egitateak zigorgabe gelditzen direla baino, jarduera gauzatu dutenek arrazakeria hori zurriz baitute. Egitate arrazista bat burutu eta egitate hori arrazista ez dela defenditzeko aitzakia anitz bilatzen dituzte, eta aitzakia horiek nahikoak dira egitatea zigorgabe gelditzeko. Nola da hori posible?

Lana horretan oinarritu dut, arrazismo estruktural eta sistematikoak ijitoen errealitatean eta egunerokotasunean duen errealitatea zein den ezagutu eta ezagutarazteko. Egitate hauek desertarazteko bideak irekitzeko atea zabaltzeko ahalegin horiek guztiak noizbait fruitua atera dezaten eta noizbait, fruitu desberdin guztiakin mazedonia ikaragarri bat sortu eta guztiok horretaz disfrutatzen. Noizbait gutxiengo taldeak definitu behar ditudanean, bi aldiz gehiago lan egin behar duten taldeak direla esan behar ez izateko, pribilegiatuak lortzen duten erdia irabazteko soilik.

Hori bai, emakume naizen legez, eta adibidez emakume moduan borroka feminista emakumeona dela kontsideratzen dudanez, esan dezaket, borroka hau, ez dela nirea, ijitoen komunitatearena baizik, baita emakume ijitoena (begiratzen dugun perspektibaren arabera). Hortaz, nik neuk, gehiengo komunitatearen parte naizen emakume honek, behin eta berriz luzatuko diet eskua beraien borrokan laguntzeko, baina berauena da, eta berauena izan beharko luke.

Ezin gaitzeke ahaztu baina, badaudela emakume eta gizonaren aldeko borroka horretan sinistu eta hori posible egiten duten gizonak, gehiengoaren komunitateko partaideak ere badauden legez, minoria berdintasun horretan sinistu eta hori posible egiteko laguntza eskaintzen dihardutenak. Nire lanaren irakurketa, bigarren hori dela esango nuke. Beraz, errealitatea ezagutarazi eta hau aldatzeko lana egiteko aukera izan duen pertsona moduan aurkeztu behar dut nire burua, errealitate hau, akaso beranduegi ezagutu eta hori aldatu behar dela sinisten duen pertsona legez, eta horri guztiari, irtenbideak proposatzeko diharduen pertsona moduan.

Lana hasi aurretik, aurreikusiak nituen helburuak zeintzuk diren ikusi ostean, horri erantzuteko egin nituen hipotesiak :

- Zein da jendarteak ijitoen inguruan duen pertzepzioa?
- Nola eragiten du horrek hauen eguneroko bizitzan?
- Zein da ijito emakumeen errealitatea?
- Zein dira arrazakeria gauzatzeagatik sartzen ez uzteko egitateek izaten dituzten emaitzak?

Galdera horiei guztiei erantzuteko, lehenik eta behin arrazakeria, antigitanismoaren (ijitoen kontrako arrazakeriaren forma esplizituak) sorrera eta eraginak azaltzea ezinbestekoa iruditzen zitzaidan. Hori horrela, marko teorikoa arrazakeriaren azterketa soziologiko eta psikosozialean oinarritu dut, gero antigitanismoa azaltzeko eta horren inguruko historia azaltzeko, antigitanismoak mendeak baitirau.

Bestalde, emakume ijitoek nozitzen duten diskriminazio interseksionala ere marko teorikoan azaltzea ezinbesteko iruditzen zitzaidan. Gutxiengo parte diren emakumeei botere-harremanen ondorioz, bi faktore gurutzatzen baitzaizkio gutxienez, eta botere-harreman horiek azaltzeko, eragin horiek ere azaltzea derrigorrezkoa iruditzen zait.

Testuinguruan errealitate hori azaltzeko datu kuantitatiboek gain, datu kualitatiboak ere ematen ahalegindu naiz, FSGk urtero egiten duen txosteneko adibideak jarritz, errealitate hau ahalik eta modurik argienez ikustarazteko.

Marko juridikoari dagokionez, antigitanismo jarrera horiek nola eta noiz zigortzen diren azaltzeaz gain, Europar Batasunak Estatuetan estrategia ezartzeko 2011ko Ijito Herriaren inklusiorako estrategia Nazionalen Europar Batasuneko Markoaren inguruko Komunikazioa 2020. urtera artekoa ere azalduko dut, eta horrek Espainian zein eragin izan dituen baita.

Azkenik, ikerketa honi, beharrezko zaion azterketa kualitatiborik nagusia aztertu behar nuen kasuaren biktimarekin izandako elkarrizketa egiteak egin du posible. Tamalez, egoera dela eta ezin izan dugu hau zuzen zuzenean egin, eta telefono dei baten bidez izan behar zen, hortaz, sor genezakeen erlazio interpersonalak bere mugak izan ditu. Haatik, muga horiek ez dira pentsatzen nituenak bezain handiak izan, elkarrizketa irekia izanik, elkarrizketatua oso solte ibili dela esan behar dut eta. Hortaz, elkarrizketatuak nahi zuen guztia kontatzeko malgutasuna izateaz aparte, esan dezaket ez duela haria galdu eta ez

dudala elkarrizketagile legez hau bideratu behar izan, eta gogotsu aritu dela kasuari eta bizi behar duen errealitate guztiei buruz hitz egiten.

Grabagailua martxan jarri baino lehen, noski, kasuaren inguruan aztertu beharrezkoaz aritu natzaio, eta elkarrizketa grabatzeko arazorik izango lukeen ere adierazi diot, egun berean eta baita gelditzeko geundenan. Arazorik egon ez zenik, grabatzailea biztu eta ahoz eskatu diot baimena, elkarrizketari ekiteko.

Aipatzekoak dira hau guztia aztertzeko izan ditudan muga eta zaitasunak; izan ere, bizi izan dugun egoerak hau guztia zailtzea eragin du (COVID-19ari buruz ari natzaizue), batez ere bibliografia bilatu beharreko garaian. Hala eta guztiz ere, errealitatea ezagutu eta ezagutarazteko argazkiak, aztertu nahi nituen hipotesiak erantzutea bideratu dutela uste dut. Hori da nahi nuena, lana hasi aurretik egoera hau aztertua ez nuenez, ez bainekien ijitoek jasan behar zuten egoerak hain gogorrek zirenik.

Hori ezagutzean berriz, ezagutarazteko bidea oso garrantzitsua zela iruditu zitzaidan, egoera horiek guztiak ezagutu eta horiei bide emateko batez ere horien inguruko kontzientzia baita aldatu behar dena.

### III. KASUAREN AURKEZPENA

#### A. Kasuaren nondik norakoak

Familiarekin, lagunekin, bikotekidearekin... oporretan joateko edozein aukera bilatzen du jendarteak, egunero bizi behar dituen une estresagarrietatik ihes egiteko, asteburu bat bada ere... Baina askotan ez da hain erraza izan, bakoitzak lanaldian libra ditzakeen egunak oso desberdinak izan baitaitezke... Baina guztiok ados jarri eta egun gutxi batzuetan lasaitzeko eta berriz ere deskonektatzeko unea bilatzen den momentuan... zer joan daiteke gaizki? Aztertuko dudak kasua egoera beretik abiatu zen.

#### B. Aztertu beharreko gertaerak

Hiru familia ziren kanpaldi batera joan eta zuten denbora tartea elkarrekin deskonektatzeko erabili nahi zutenak. Beraz, Errioxako Fuenmayor Kanpinera joatea erabaki zuten. Kideetako batek, T.J.k hain zuzen, deitu zuen kanpinera, familia horientzako hiru partzela erreserbatzeko. Deitu eta kanpalekuan lan egiten zuen pertsonak erreserbarik egiten ez zutela azaldu zion; izan ere, arazoak izan zituzten aurrerago erreserbekin. Hurrengo egunean joatekotan zirenez, lekua izango zutela adierazi zion honi.

Hala eta guztiz ere, T.J. ez zen lasai gelditu, ez baitzekien kanpinera iritsi eta lekurik gabe geldituko zirenetz. Beraz, aurrerago kanpaleku hori bisitatu zuten beste pertsona batzuei galdetzea otu zitzaion. Kontua da, esan ziotenaren arabera, ijitoak ziren pertsonekin arazoak izan zituztela kanpin berean, eta hiru familia horiek etnia ijitokoak izanda, berriz kanpinarekin kontaktuan jartzea erabaki zuen, baina ez Erabereaneko lankide batekin kontaktuan jarri baino lehenago<sup>2</sup>.

Erabereaneko kide honek, berak deituko zuela adierazi, T.J.ri ez larritzeko esan eta berriz jarri zen kanpalekuarekin kontaktuan. Honek, T.J. izango balitz bezala, aurkeztu zuen bere burua eta ijitoak zirela nabarmendu zion kanpinereko lankideari. Hau esatean, zerrenda bati buruz hitz egin zioten, sartzea debekatuta duten pertsonen zerrenda bati buruz hain zuzen, aurrekoetan kalteak sortu zituztelako edo ordaindu ez zuten pertsonak zirelako.

---

<sup>2</sup> Eraberean Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea da inmigrazioaren, Ijito Herriaren eta LGTBI kolektiboen arloan tratu-desberdintasuna bultzatzeko eta diskriminazio eza sustatzeko helburuarekin lan egiten duena.

Beraz, T.J.tzat pasatzen ari zenak zerrenda horretan egon ezin zitezkeela adierazi zion, horiek inoiz kanpin horretara joan ez zirelako eta inoiz arazorik sortu ez zutelako. Horratik, nahi izanez gero, joatekoak ziren pertsona guztien datuak pasa ahal zituela esan zion langileari. Esan ziotenaren arabera, ez zen beharrezkoa, esanak esanda, sartzeko arazorik izango ez zutela adierazi eta bihar bertan ikusiko zirela esanik agurtu ziren.

Ordu erdi geroago, baina, kanpaldiko arduradunak deia itzuli zuen (gogora dezagun, Erabereaneko langile baten telefonotik egin zela deia). Oso urduri eta garrasika, kanpalekura joan ezin zitezkeela esan, eta, hizketaldi luze baten ostean, ijito etniako familiarik onartzen ez zutela argudiatu zuen. Argudio hori diskriminatzailea izanik, kanpinaren arduradunaren kontra salaketa bat jarriko zutela esan bezain pronto, telefonoa eseki zuen erantzuleak. Deia erantzuleak hasi zuenez, eta beraz, deia jasoaz zenez, ezin izan zuten irarri.

## C. Egindako jarduketak

### 1. Administrazio-bidean

Salaketa jartzeko bi bide hartu nahi izan zituen T.J.k: bide penala eta bide administratiboa, hain zuen. Horretarako, Ertzain-etxean salaketa jartzea erabaki zuen, eta Kontsumobidek duen erreklamazio-orria ere bete zuen, 2019ko abuztuaren 7an.

Erreklamazio orri honetan, esandakoa azaltzeaz gain, salaketa bat jarriko zutela ere adierazi zen. Barkamen formal bat zen T.J.k eskatzen zuena. Bilbon bete zen Kontsumobideko erreklamazio-orria, kanpalekua Errioxan dagoen arren, eta beraz, Errioxako legedia aplikatu behar den arren, Kontsumobide bera egin behar zen kargu kexa Errioxara bideratu zedin.

2019ko abenduaren 17an Kontsumobiden jarri zen erreklamazioa erantzun zuen Turismoko bulegoak zera esanik:

- 2019ko irailaren 16an Turismo zerbitzuan jaso zen T.J.k Fuenmayor kanpalekuaren kontra eginiko erreklamazioa (Fuenmayorren, Errioxan).
- 2019ko azaroaren 13an aipatutako kanpalekuari bidali zitzaion erreklamazioaren Indarrean dagoen araudiaren arabera, hau da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1

artikulua eta Errioxako Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko ekainaren 1eko 4/2005 Legearen 61.2 artikulua araberaz prozesua hasi edo ekintzak artxibatzekotan.

- 2019ko abenduaren 2an Zuzendaritza Nagusi honetara iritsi zen alegazio idatzia eta hau jasotzen zen beste kontu batzuen artean:

Egia da badagoela zerrenda bat kanpinaren sarrera ezeztatzeko pertsonak batzen dituen, hauek sartzen uzteak lehenago sortu dizkigun arazo anitz direla eta, noizbait Guardia Zibila ere etorri behar izan baita pertsona hauen erruz. Zerrenda hau inolako diskriminaziorik gabe sortu dugu, edozein pertsona sar daiteke honetan.

Gehienetan gertatu diren arazoak, kanpinean taldeak sartzen uzteagatik sortu dira (beti kasu horietan gertatu direla ez esatearren). Horregatik sartu dugu Kanpalekuan taldeak sartzea ez uztearen politika, honek ekarri diezaguen galera ekonomikoa zein den jakinda ere. Baina egia esan, gure bezeroen estantzia lasaia izan dadin egiten dugu hau, gure inguruneaz disfrutatzea eta lasaitasuna baitira gure kokapenak oparitzen dizkigunak. Politika hau jarri badugu, batez ere, behin eta berriz hona datozen bezeroak etortzen jarraitzeko egiten dugu, beraiek baitira gehien ordaintzen dutenak kanpinean taldeak sartzen utzi eta ondo jokatzeko ez dutenean.

- Zuzendaritza Orokor honek, arau hauste administratiborik dagoen baino ezin dezake baloratu, Turismoaren araudiak jasotzen dituen arau hausteak hain zuzen, eta administrazio-zigorra legedi honek aurreikusten dituen arau hausteak gauzatzen direnean soilik jar daitezke. Ez dugu inongo kompetentziarik establezimenduak sortutako mina erreparatzera behartzeko.
- Erreklamaturako ekintzak ez dira arau-hauste administratibo gisa hartzen, (Ley 2/2001, de 31 de mayo, de Turismo de La Rioja), (Ley 2/2018, de 30 de enero, de medidas Fiscales y Administrativas) eraldatuta, 2018. urtera begira. Kanpinak bere barne erregelamendua aplikatu zuenez eta bertan taldeak sartzen ez ustea aurreikusten denez, ez dugu baloratu behar beste auzirik, ez baita administrazio honetako kompetentzia.
- Aurreko guztia kontuan hartuz, Errioxako Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko ekainaren 1eko 4/2005 Legearen 61.1 artikulua eta Administrazio Publikoen

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89.1.a) artikulua araberan, jarduketa judizialaren artxibatzea erabaki da.

## 2. Bide penalean

Administrazio-bidea artxibatu ondoren, bide penalera jotzea erabaki zuen T.J.k, dagokion salaketaren bidez. Espedientea hasi ondoren, Errioxako Instrukzio Epaitegiren bati egokitu zitzaion izapidetzea. Martxoaren 3an, exhorto bidezko zitazio judiziala egin ondoren, Bilboko Instrukzioko Epaitegira joan zen T.J., salaketa berrestera eta akzioen eskaintza jasotzera.

## IV. MARKO TEORIKOA

### A. Azterketa soziologikoa

Egitate hau, arrazakeriazko jarrera izanik, lehenik eta behin arrazakeriaren azterketa soziologikoarekin abiatuko naiz. Horratik, arrazakeriaren forma espezifiko bat da aztertu behar duguna, Ijitoen Herriaren kontra erabiltzen den antigitanismoa hain zuzen. Hortaz, lehenik eta behin arrazakeria aztertuko dut gero antigitanismoa horren eraginak aztertzekotan. Horretarako, lehenik eta behin etnozentrismoa azaltzea ezinbestekoa iruditzen zait “gu” eta “beste” kategorizazioek eragiten baitute arrazakeria sortzea.

#### 1. Etnozentrismoa: identitate soziala eta bestea

Etnozentrismoa taldeen arteko erlazioek dakartzan jarreraren jatorria zein den ulertarazten duen kontzeptu teoriko legez ulertu behar dugu. Edozein pertsonen artean sor daitekeen fenomeno soziala dugu. Honek, talde baten parte sentitu edo ez sentitzeak dakartzan bereizketan du funtsa, gurea sentitzen dugun talde hori onena sentiarazten dugun, eta berriz, beste hori diskriminatzeko joera sortzen duen bitartean. Etnozentrismoa, beraz, talde jakin batek duen jarrera da, beste taldeekin alderatzen dena, eta den taldeko partaide izateagatik postu onena duela sentitzen duen partaidez sortutakoa. Hortaz, talde honek dituen arrakastak, positiboak direla sinisten dute, eta arrakasta horiek dira beste taldeekin alderatzen dituztenak, berauek maila altuago batean egotea merezi dutela justifikatzeko.

Etnozentrismoak bi alderdi izan ditzake, positiboa eta negatiboa. Fokatzeko positibo horri helduz, esan genezake taldearen printzipioei etnozentrismoak koherentzia soziala eta zintzotasuna txertatzen dizkiola. Haatik, muturreko etnozentrismoak nazionalismo bortitza eta arrazakeria ahalbidetu ditzake. Ikusiko dugunez, arrazakeriak marjinazio, eskusio eta taldetik desberdintzen diren pertsonak diskriminatzera bidera gaitzake. Geroxeago aztertuko ditugun arrazakeriak funts biologiko edo kulturalak izan ditzakeen arren, ezin gaitzake ahaztu estereotipo arrazistaren edo diskriminazioaren oinarria jatorri etnikoa dela, talde autoktonoak gutxiengo talde etniko baten kontra gauzatutako diskriminazio graduaren arabera, handiagoa edo txikiagoa izango dena.

Hortaz, etnozentrismoa eta arrazakeria guztiz bat egiten duten fenomenoak ditugu, mundua eta bestea bere etnia edo kulturetatik aztertzeko jarrera baitugu hau. Hori dela



eta, elkartasun identitatea indartzeko oinarrizko prozesu bat da, beste taldeekiko bereizketa eta desberdintasuna sortzen dituen prozesua den heinean (Alaminos, López, & Santacreu, 2010).

Arrazakeria zer den ulertzeko, etnozentrismotik eratortzen den identitatea definitzeari ekin diote urte luzeetan. Horrela, talde jakin batek amankomunean duen eta beste pertsonen artean desberdintzen diren ezaugarriek, identitate soziala sortu eta horren arabera taldeen arteko desberdintasunek suposatzen dituzten botere-harremanek bideratzen duten diskriminazio ekintzei erantzuteko. Beraz, jendartean “gu” eta “besteak” pertzepzioek izan duten eragin guztiak ulertzeko, ezinbestekoa dugu lehenik eta behin pertzepzio horiek hauengan duten definizioa eraikitzea. “Gu” berdintsu baten pertzepzio kolektiboa (taldea bertako partaideetatik ikusita) “beste” horien kontraketatik sortua (kanpoko taldea) da. Konpartitzen ditugun ezaugarri, begitarte, seinaleak eta bizitako historiek zeinu eta enblema legez jarduten dute eta horrela errekonozitzen ditugu gure taldekoak eta besteak (Gall, 2004).

Pertzepzio hori hautemangarria izan daiteke ala ez. Horiek argamasa ikusezin batez eraikitzen dira, eta koherentzia ematen die herriari eta herritarrek herri horretakoak izan eta sinisteko behar den testuinguruari: herriko partaide diren sentimendua eragiten du, eta besteekiko duten desberdintasunak sortzen ditu horrek, beste horiek desberdinak direla antzemateko.

Identitatea eta bestea txanpon bereko bi aurpegi desberdin dira beraz. Esan daiteke pertsona batek, bere burua auto-definitu eta auto-nabaritzeko, aurkaria definitu eta hauteman behar duela. Berauen arteko desberdintasunek definitzen dute pertsona edo talde baten identitatea bera. Hortaz, talde sozialen arteko gatazkak aztertu behar direnean (gatazka inter-kultural edo inter-etniko bezala ezagutzen ditugunak hain zuzen) analizatu behar duguna talde jakin bateko identitatearen eraikuntza bera da, aurkaririk gabe existitzen ez dena: bestearen identitatearen eraikuntza.

Historikoki eraikuntza sozial moduan sortu zen identitatea eta bestaren arteko perspektiba honek arrazakeriaren definizioa hurbil gaitzake hau sortu zenetik gaur egun arte izan duen eragina ulertzekotan; intolerantzia eta esklusioa ulertzeko hain zuzen. Baina arrazakeriaren definizioarekin hasi baino lehen, beste horren irudikapenak duen historia azaltzea ezinbestekoa iruditzen zait.

Pertsona soziala izaten hasi eta komunitatean bizitzen hasi zenetik du honek zentzua (hortaz, pertsonaren existentziatik beratik). Komunitate batek beste batekin topo egiterakoan, hiru aukera sortzen zitzaizkien bi komunitate horiei. Bestearen instituzio hori komunitate propioarena baino hobea kontsideratzea; bigarren komunitate hori berdina kontsideratu eta hori saihestea; edo behe mailako komunitatea kontsideratzea komunitate hura.

Lehenengo egoera ia ezinezkoa dela esan genezake, eratuta dagoen komunitate batek ez baitu bere kultura desagertzerik nahi (eta are gutxiago beste hori hobea dela onartuz egiten bada). Bigarren aukerak berriz, bere baitan ere alderatzeak dakartza baina kasu honetan berdina edo indiferentzia edo desberdin eta aldera ezina bezala ulertzen da bigarren komunitate hori. Alderatze honek, baina, komunitatearentzako arriskuak dakartza indiferentziak, edo desberdintasunik ez dagoela kontsideratzeak, komunitate horren identitatearen galera suposatzen duela ulertzen baitute bertako partaideek, berorien artean ohitura berak izateko arazoak galtzea suposatzen baitute. Beraz, historikoki hainbestetan errepikatu den eta errepikatzen jarraitzen duen aukera izanen da posibleena talde desberdin batekin topo egiten dutenean.

Horren arazoia zera da: komunitateek beste komunitatea behe mailako legez ulertzen ez badute, taldeek onartezintzat duten ohiturak onartu eta errespetatu beharko lituzkete. Orduan, instituzio bakoitzaren egia, errealagoa bihurtzen da komunitatearentzat beste batekin alderatzen denean. Hori horrela historian zehar bestea behe maila batean jartzea aiher natural legez ulertu izan da (Terrén, 2002).

## 2. Identitatea eta etnia

Identitate etnikoaren gaia oso eztabaidatua (eta eztabaidatsua) dela dakidan arren, honi aipamena egitea ere beharrezkoa egiten zait, Ijito Herria baita aztertu behar dena. Fredrik Barthekek hori desberdintasun kulturaletatik sortzen duten egitura sozialen perspektibatik azaldu zuen. Horren aburuz, etniaren barruti odontologikoa (eta beraz taldeen artekoa) ezin daiteke muga finkoetan soilik azaldu, taldeko bateko kide garen sentimendua berez nahiko arazotsua izan baitaiteke, eguneroko bizitzan sortu eta birsortzen den elkar eragite bat izanik. Jokoan dagoen etnizitatearen eredia hiru supostutan laburbil daiteke (Terrén, 2002):

- Etnizitatea desberdintasun kulturalaren erreproduzizailea dela (eta aipatutako berdintasun eta desberdintasunekin bat egiten duela).
- Kulturak horren esanahi kolektiboen negoziazioan eragiten duenez, etnizitatea interakzio sozialen bidez eratzen da eta identitatearen formakuntzan eragiten du.
- Etnizitatea ez da hau sortzen duen kultura baino finkoagoa, kultura aldagarria den moduan, etnizitatea ere aldatu egiten baita.

Hau, orain arte azaldutako kultura eta identitatearekin batu genezake, izan ere, kultura eta identitatea, bi taldeen elkarreragina eta hauen arteko desberdintasunak garatzean sortzen dira. Beraz, aipatutako negoziazio horretan, identitate soziala sortzen da, eta jokoan dagoen etnizitate horretan eragiten du. Hortaz, ez da talde bateko ezaugarria, pertsona sozialak izanik, taldeen eta barruko taldearen artean sortzen den ezaugarria baizik, taldeak aldatzen diren heinean, honek ere aldatzen jarraituko duena.

### Zer da arrazakeria?

Lehenik eta behin aipatzekoa da arrazakeria ez dela koiunturala. Ez da historiako momentu isolatuetan gertatu izan den jarrera. Arrazakeria estrukturala da eta beti existitu izan da. Gure historia, kultura arrazistaren historia dugu, eta gure kultura arrazista hori modu desberdinetan azaleratu da, garai desberdinen, eta mendeetan kulturak izan dituen aldaketen arabera (Bello Reguera, 2008). Hortaz, garrantzitsua da arrazakeria hemen ere erabiltzen dela ulertaraztea eta ez beste herrietan soilik. Adibidez, Amerikako Estatu Batuetan polizia batzuek George Floyd hiltzeagatik, Espainiako edozein tokitan *Black Lives Matter* mugimendua babestu du jendarteak, hemen egitate arrazistarik gertatuko ez balira bezala.

Egia da, sortutako mugimendu hau babestea oso garrantzitsua izan daitekeela, jendarteak, gutxiengo etnia bateko parte den pertsona bati, gutxiengo parte horretakoa izateagatik egotearen kontra azaltzeak, diskriminatua ez izateko eskubidea dutela planteatu baitute, eta guztiek dutela bizitzeko eskubidea. Baina ez dut uste asko konturatzen direnik, arrazakeria tipo hauek edozein lekutan gerta daitezkeenik, guztiok sistema arrazista batean elkar bizi dugunik, eta hau ez dela Amerikako Estatu Batuetan soilik gertatzen.

Hau da, hasiera hasieratik ulertu behar duguna, ijitoek edo gutxiengo taldeko parte diren pertsonak, bizi duin bat izateko.

Ikuspegi estrukturalari helduz, arrazakeria hiru klasekoa izan dela esan genezake. Lehenengoa, arrazakeria metafisikoa zela esan daiteke (Aristotelesen politikak inplizituki azal dezakeena). Arrazakeria honek pertsonen (eta pertsonak ez direnen) arteko desberdintasuna eta naturaltasun metafisikoen baliabideek sortzen zutela defendatzen du. Horrela pertsonak, pertsona libreak eta jabeak edo ez pertsona eta esklaboen arteko desberdintasunak, kanpotarrak eta taldeko kideak, emakumeak eta gizonak... bezalako identitateek botere-harremanak ezartzen zituzten. Bigarrena, arrazakeria biologikoa dugu, modernismo kolonialistak sortua. Naturaltasuna erabiltzen zuten desberdintasunaren kausa naturaltasun zientifikoen argudioak erabiliz. Azkenik, hirugarren arrazakeria modalitatea arrazakeria kulturala dugu, post-kolonialismoarekin batera esperientzia multikulturalek sortu dutena. Bizi dugun jendarte neokolonialistak, desberdintasun sozialak naturaltasun terminoetan justifikatu beharrean, egun kulturen arteko desberdintasunekin azaltzen du (Wieviorka, 1994).

### 3. Bi arrazakeria ala arrazakeriaren bi logika?

Orain, azaldutako azken bi arrazakeria horiek azalduko ditut, biologikoa eta kulturala. Horiek zergatik sortu, eta izan dituzten eraginak bat egiten duten edo desberdintasunak bat egite hori errefusatzen duten ikertzeko.

Amerikako aurkikuntzaren ondorioz, baliabideak esplotatu eta horietatik etekin handiena ateratzeko prestatua zeuden horiek (europarrak), lurra ematen zizkien baliabideak ez esplotatzera bideratuta zeuden biztanleekin egin zuten topo (Amerikan bizi zirenekin). Honek, ekonomikoki atzeratua zeudela pentsatzeaz aparte, kulturalki ere bazeudela sinistea eragin zuen. Gainera, berauen arteko desberdintasun-fenotipoek eta azalaren koloreak, pertsonen artean arraza desberdinak zeudela pentsatzera ere bideratu zuten, eta bertan bizi ziren amerikarrak arraza xumeagokoak zirela sinistera. Horrek, espantsionismoa posible egiteko beharrezkoa zitzaien indarkeria erabiltzea eragin zuen.

Mende amaierako azken urteetatik gaur egun arteko aurkikuntzen arabera, biologo genetista eta antropologo fisikoek ikuspuntu biologikotik arraza desberdinak existitzen ez dela ondorioztatu dute. Beraz, ezin daiteke jendartearen zuri eta beltzen arteko taldekatzea termino genetikoetan azaldu. Bestalde, psikologoek hitzetan ere, ezin daiteke esan pertsonen ahalmen eta muga mentalen artean desberdintasun nabarmenik dagoenik pertsona beltz, zuri, asiarrak...-en artean. Hori dela eta, maila kognitiboan ere ezin daiteke

desberdintasunik egin pertsonen artean arraza desberdinik dagoela zehazterakoan, ez baitago desberdintasun nabarmenik. 1981. urtean, Martin Barkerren *New racism* lanak arrazakeria garaikiderako aldaketak azaltzea bideratu zuen. Arrazakeria berriaz (arrazakeria kulturalaz) hitz egiten hasi ziren momentu hartan jendarteak erabiltzen zuen jarrera eta diskurtso arrazistek zuten indarraz jabetzeko (Herzog, 2009).

Horrez geroztik beraz, arrazakeria zainduagoa da eta kulturen funtsetara besteratzten da (eta ez hainbeste arrazaren funtsera); hortaz, nazio, erlijio eta etnizitate desberdina duten pertsonak dira erasotzen dituztenak. Perspektiba horren ondorioz, naturala kontsideratzen zen hori (eta jada existitzen ez dela konprobatu den hori), hau da, arraza, kulturak berak estaltzen du, eta arraza legez jokatzeko duen arren, honek ez du aipamenik behar. Hortaz, arrazakeriak izan duen influentziak indarra izaten jarraitzen du, baina arrazari erreferentzia espliziturik egin gabe.

Arrazakeria berriaz, neoarrazakeriaz edo bereizgarritasunak eragin duen arrazakeriaz hitz egitean, lehen existitzen zen arrazakeriaren kontzeptua oso desberdina izanik, fenomeno hori arrazakeriaren beste fenomeno legez ulertzea eragin dezake.

Arrazakeria klasikoak, “bestea” naturalizatzeko joera izan du, eta momentu horretan pentsatzen zen desberdintasun biologikoek arraza desberdinak hierarkiatzako bidea ematen zuen. Arrazakeria horrek, beste horrek jendartearen bere lekua duela defendatzen zuen, baina hori bai, bizi behar zuten baldintzak murrizketa prozesu bat eskatuz beste horiek pertsonen artean bizitzeko. Hortaz, produkzioarako behar zen mailarik baxuenean mantendu behar ziren, eta horiek esplotatu behar zituzten. Joera horrek zientzian babesa bilatzen zuen, momentu horretan desberdintasun horiek nabarmentzekotan, eta esplotazioarako bideratutako praktikak horretan soilik oinarritzen ziren.

Bestalde, orainsu aipatutako arrazakeria berria ere badugu, beste kultura batzuk errefusatzeko desparekotasuna dagoela nabarmentzen duena, norbere kultura onena eta funtsekoena dela nabarmenduz, eta hori dela eta beste kultura guztiak errefusatzeko bidea hartu duena. Horrek jendarterako (gehiengorako) edo horiek sortu duten naziorako arriskugarritasuna suposatzen duela pentsatzen da; hori dela eta, behintzat baztertu behar dela uste dute. Horretan nabarmentzen da egungo arrazakeria, kulturen arteko diferentzian, eta gehiengoak duen kultura horren identitatea babesteko beharretan. Bereizketaren arrazakeria honek besteekin kontaktuan egoteko beldurra gutxitzen du,

baina beste beldur handi bat sortzen du. Taldeen artean izan zitezkeen nahasteen beldurra (Javaloy, 1994).

Desberdintasunenean oinarritu den arrazakeria eta bereizketan oinarritzen denak arrazakeria bere funtsean azal dezake, baina? Perspektiba soziologikoetan oinarrituz gero, esan genezake arrazakeria azaltzeko ezin gaitezkeela logika soil batekin moldatu. Desberdintasunak bere baitan ezin dezake arrazakeria egonkorra sortu, ezta bereizketak. Adibide bat jartzekotan, esan genezake arrazakeria aztertzeko pertsona jakin batzuk gutxietsi, horiek esplotatu eta berauen baitan dominazioa eratzeko behar duten logika sinplista batek ezin dezakeela soilik jardun arrazakeria, eta honek izan dituen eraginak, bere funtsean azaltzeko. Esklusioa ere sortu behar du logika honek (bereizketa logika ere aplikatu behar da, beraz arrazakeria existitu dadin) arrazismoa aplikatzen duten pertsonen taldea diskriminatu behar baitu edo getoetan bizitzera behartu behar baitute mugimendu sozialak ekidin ditzaten eta eztabaida sozialetatik at gera daitezen. Esplotatuta edo baztertuta dauden pertsonen egoera berean jarrai dezaten eta *status quo-a* mantendu dadin (Wieviorka, 1994).

Modu berean, bereizketa kulturelek ezin dute arrazakeria azaldu. Izan ere, herritarrek babestu eta mantentzeko beharrezana duten kultura hori beste kulturetatik aldentzea eragin dezake, eta horrek xenofobia edo aldentzea bera eragin dezake kultura desberdinen artean, baina ez arrazakeria. Azken hori garatzeko, kulturen arteko bereizketa hori zalantzan jarri behar da, eta talde barruan behintzat identitatea galdu daitekeen arriskuaren beldurra sortu behar da. Sentimendu hori identitate hura galtzeko kultura berean beste kultura bat bizi duten pertsonen erruz gal daitekeela identifikatu behar dute gainera. Ezinbestean existitu behar da desberdintasunaren logika beraz, ez kultura desberdinen distantzia azaltzen duen bereizketaren logikak azaltzen duenari erantzuteko, baizik eta eremu territorialean elkarrekin bizi diren bi kultura horien arteko presentziek gehiengoak defenditzen duen kultura hori homogenea izan behar dela defendatzen duen logikari erantzuteko baizik.

Ulergarriagoa izan daitekeen modu batean azalduz beraz, arrazakeria bi desberdintasunaren logikak eta bereizketaren logikak elkarreaginaren dutenean eta, hortaz, bat egiten dutenean sortzen da. Desberdintasuna gutxietsita dagoen talde bati egozten zaionean sortzen da, horrela pertsona zaurgarri eginez, eta beti, gutxietsi daitekeen talde bihurtuz (Terrén, 2002).

#### 4. Arrazakeria eta esklusioa

Esklusio hitza eta honek sortzen dituen fenomeno sozialak 90. hamarkadan azkar hedatu ziren. Egoera sozial eta politikoan, lehen azaldutako esplotazio hitza (adibidez) esklusio kontzeptuarekin ordezkatu zen, esplotazio hitzak zekartzan arazoei irtenbiderik eman gabe. Esklusioa bat batean arazo sozialik larriena bihurtu zen eta fenomeno sozial negatibo guztiak batzen zituzten (egun gertatzen den moduan): pobrezia, drogadikzioa, immigrazioa, etnizitatea... esklusio horiek botere-harremanak sortu eta mantentzeko eta antolakuntza sozialak horrela jarrai dezan lortzeko daude bideratuak. Klase erlazioen osagarrien prozesu legez uler daitezken egitura dominatzaileek, erreprodukzio sistematiko hegemonikoak horrela jarrai dezan ahalbidetzen dute esklusio horien bitartez (Herzog, 2009).

Arrazakeriak eragiten duen bazterketa hiru erregistro handitik eratortzen dela esan genezake. Lehenengoz, soziala izan daiteke, arrazakeriaren biktima diren horiek erlazio sozialetatik aldentzeko prozesua sortuz. Bigarrenez, politikoa ere izan daiteke besteak baztertzeko eta bakoitzaren baliabideak eta taldekoenak defendatzeko legitimazioa sortzeko. Batez ere baliabide ekonomikoei buruz ari naiz, baina taldekideek, hau da, komunitatekoek etxe bat izateko eskubidea, lana... eta abar ere izan daiteke (Wieviorka, 1994). Hirugarrenez, kulturala da baita, duten etnia erlijio edo duten memoriagatik definitu daitekeena, gutxiengoen taldeek jendartean eragin dezaketan multikulturaltasuna errefusatu, edo berauen identitatea zehatzean giltzaperatu. Horrela, dominatzen duen kulturaren parte hartzeko oztopoak jartzen zaie (Bello Reguera, 2008).

Politikoa soziala edo kulturala izanda ere, esklusioaren arrazakeriak horren biktima izan daitezkeen pertsonen gutxiagotasuna eragiten dute, guztiek. Kulturala denean, arrazakeriak bereizketara jotzen du, eta diskriminatuen kultura asimilatu ezin daitezkeen ustetan izaten du bere funtsa. Haatik, aurrerago aipatu bezala, halabeharrez, bateratu egiten dira desberdintasunaren eta bereizketaren logikak. Beraz, inoiz ezingo da diskriminatu daitezkeen taldea orain azaldutako hiru eremuetan guztiz diskriminaturik egon guztiz bazterturik egongo balira, arrazakeriak ez bailuke funtzionatuko. Baztertzeko aipatutako erregistroak lotuak egon daitezke, baina elkartasun hori ezingo da inoiz erabatekoa izan (ezegonkortasuna egon daiteke beti honetan).

Horretaz aparte, diskriminazio horren biktima diren pertsonak hiru erregistroen kontra batera egitea oso zail izanen dute beti. Adibidez, eskusio politikoaren kontra jarduten bada, norbanakoaren partikularitasuna beste maila batean gelditu behar izanen da, guztiengatik borrokan egin nahi izanez gero, norbanako interesak besteen interesen azpitik egin behar izaten duten heinean.

Bestalde, praktikan arrazakeriak dituen eskusio dimentsioek inoiz ez dute bat egiten era orekatuan. Hori dela eta, hiru erregistro nagusiek horietako baten dominazioan jarduten dute gehienetan (Wieviorka, 1994).

## 5. Baztertuta daudenek egiten duten arrazakeria

Ikusi dugunez, arrazakeriak biktimen bizi kolektiboak baztertzeko joera izaten du, behintzat inklusio apur bat beharrezkoa izanik, desberdintasunaren formak hau horrela izatea babesten duen heinean. Horratik, eskusioa ez da beti diskriminaturik dauden pertsonengan soilik ikusten, gehiengoaren kulturaren parte diren pertsonen parte batek ere eskusioa nozitzen baitu jendartearen. Jendartearen gehiengo kolektibo horren artean ere badute eta botere-harremanek eragina. Jendarte hetero-patriarkatu eta klasistan bizi baikara eta sistema kapitalistan klaseen arteko desberdintasunetan ere oinarritzen baitira botere haramanak.

Arrazakeria bazter horretan dauden pertsonak ere eragiten dute, berauen arazo ekonomikoek edo identitatea galtzeko beldurrak gorroto diskurtsoak eragiten baitituzte arrazakeriaren biktima izan daitezkeen eta izaten diren horiengan. Bi prozesu desberdin gerta daitezkeela esaten da kasu horietan ere.

Lehenengoa, eskusioaren arrazoi handiena soziala denean, eskusioan dauden eta arrazakeria jasan ezin dezaketen pertsonak injustizia sentimendu bat sortzen dute, eta Estatuari errua botatzen diote baina baita gutxiengo taldeari ere, horiei desleialtasuna egotziz. Hitz egiten ari garen arrazakeria hori gauza dezaketenak adibidez “txiro zuriak” izan daitezke, krisi ekonomikoaren biktimak diren horiek eta immigratu duten pertsonen kontra jartzen diren horiek hain zuzen. Aktore arrazista horrek erorkera sozialaren prozesua bizi du eta immigratu duen taldeari Estatuak edo talde politikoek ematen dien laguntzarekin aurrera egin dezaketen eta egiten duten ideia izan dezakete. Hortaz, egoera horren aurrean, arrazismoaren biktima izan daitezkeen horiei, erortzear daudenei baino



laguntza handiagoak ematen dizkien ideiak hornitu ditzakete jarduera arrazistak horiek burutzeko.

Bestalde, baztertuta dauden eta arrazakeriaren biktima izan ez daitezkeen pertsonen eskklusioa gehienbat kulturala denean, identitatearen atzera-egite legez uler dezakete immigratu duten pertsonen presentzia eta horrek beldurra sor diezaieke aktore arrazista horiei. Hori dela eta, nazionalismo, arrazakeria eta xenofobiaren asoziazio-ideia indar daiteke. Modernismoa, globalizazioa, ekonomia eta kultura desberdinen arteko elkarrekintzen erruz mehatxupean dagoen nazioaren defentsa legez jarduten dutela uste duten horiek, eta identitatea galtzeko arriskuan dagoela pertsonatzen dutenak, aldaketen erruz marjinauak senti daitezke. Beraz, galtzear dagoen kultura hori defendatzen dute, eta horien ustetan galtzeko arriskua sortzen duten horiei (kultura desberdina duten horiei) erasotzen die; afrikarra, musulmana, ijitoa... Arrazakeria prozesu honek eremu sozialean du egonkortasunik handiena. Baina ezin dezakegu alde batera utzi eremu politikoa, ez egun, egoera hori kapitalizatu eta horren aurrean ideologikoki erantzuten dien indar politikoek duten boterea oso handia dela kontuan hartuta (Wieviorka, 1994).

## B. Arrazakeriaren azalpen psikosoziala

Bereizitasun eta desberdintasunaren teoriak, arrazismoa zer den ulertzeko bidea zabaldu digun arren, ezin diezaioket lan honi jarraipenik egin estereotipo eta aurreiritziek arrazakeriaren sortze eta mantentze horretan izan duten eraginean aipamenik egin gabe. Hortaz, arrazakeria (sozialki diskriminatu eta baztertzeko fenomeno legez ulertzen den hura) ikuspuntu psikosozialetik azaltzea ere ezinbestekoa iruditzen zait. Izan ere, ezin daiteke orain arte aipatzen ari izan naizenekin soilik azaldu, ez behintzat estereotipo eta aurreiritziek arrazakeriaren sorreran eta horren mantentzean izan duten indarra azaldu gabe.

### 1. Aurreiritzi eta estereotipoak

Diskriminazioa bera, eta hortaz, arrazakeria zentzu komunean definitzeko zailtasunak anitz izan daitezkeen arren, psikologia sozialetik, diskriminazioa aurreiritzi eta estereotipoetatik sortzen dela esan daiteke. Jokabide negatiboa da, orain arte ikusi bezala, beti irudi negatiboa izan dezaketenen kontrakoa. Lehenago azaldu dudana bezala, diskriminazioa eta arrazakeriak hainbat foku sor ditzake, eta horiek, aipatu bezala,

eguneroko bizitzako esperientzietan existitzen jarraitzen dutela ikusi den arren, historikoki kultura eta taldeen artean sortu diren desberdintasunek ere izugarriko indarra dute horren funtsean. Hortaz, desberdintasun sozialen kategorizazioa orain arte hainbatetan aipatutako orden natural legez ulertzen da, eta pertsonak oreka soziala horretatik mantentzen dute (Prevert, Navarro Carrascal, & Bogalska-Martin, 2012).

Estereotipoak faktore negatiboen bidez azal daitezke. Autoestimuan eragin bortitzak izan dezaketen akats pertsonalek, zuzenean, beste pertsonari estigmatizatzea eragiten dute. Ikuspuntu horren bidez, pertsona batek berekiko duen irudi negatiboa garbi dezake beste pertsona batengan estereotipoak sortzen dituen heinean (Fein & Spencer, 1997).

Haatik, gratifikazio rola erlatiboak, estereotipo horietan funtzio sozialak azaltzea bideratu du (ez soilik maila pertsonalean). Horren bidez, talde dominatzaileak eta nagusitasun ekonomikoa justifikatzen dira, maila horietan abantailak dituztenek, ez dituztenen kontra aurreiritzi eta estereotipoak sortzen baitituzte. Horren arabera, ditugun aurreiritziak ez dira autoestimu baxu baten ondorio soilik (eragina izan dezakeen arren). Hortaz, ezinbestekoa da aurreiritzi eta estereotipoek eratzen duten diskriminazio jarreraren sortzen den erlazio dinamikoa ulertzea (LeBlanc, Beaton, & Walker, 2015).

Estereotipoak bi aspektu dituen elaborazio kognitiboa dela esan daiteke, aurreiritzi sinplifikatuen ondorioz sortzen diren informazio edukiak dira. Bestalde, jendartean konpartitzen diren ideiak dira, beste horren ezaugarri pertsonalak eta nortasun bereizgarriak azaltzeaz gain, pertsona talde baten jarreraren ingurukoak izaten direnak. Psikologia sozialaren garapenean, termino hori eskematizazio fenomenoak azaltzeko erabili zen. Horren eraginez talde jakin batekiko ditugun ideia orokorrak hautatu eta sinplifikatzen dira, gero horien jokabidea interpretatu eta epaitzeko. Hortaz, esan genezake aurreiritzi eta estereotipoek harreman zuzena dutela beti.

Aurreiritziak estereotipoen oinarri gisa jarduten dute eta, horiek sortzean, gure modukoak ez diren talde edo pertsona jakin batzuekiko epaiketek sentimendu negatiboak sortzen digute horien kontra, jarrera negatiboetan azaleratzen direnak; diskriminazioan hain zuzen. Horiek, arrazakeriaren prozesu legez jarduten dute, pertsona edo talde jakin batzuen kontrako balio-galera justifikatu ahal izateko (Suriá, 2010).

Horretaz guztia aparte, aipatzeko da, ezaugarri horiez gain, familiako erlazioen eraginez sor daitekeen pertsonalitate autoritarioak ere baduela etnozentrismoarekin zuzeneko

lotura. Pertsonalitate hori duten banako guztiez ezaugarri jakin batzuk partekatzen dituzte, arrazakeriak eragiten duen gorrotoaz aparte, hala nola: konformismo maila altua, hierarkiak mantentzeko ideiarekin errespetua, hierarkia horretan berauen azpi mailan daudenen agresibitatea, estereotipo eta aurreiritziak automatikoki onartzeko joera, berauen burua auto-analizatzeko ezgaitasuna, eta baita jokaera oldarkorrek, batez ere beldurra, ahultasuna, sexualitatea eta mehatxu edo ahuldura propioak azaleraztekoan (Alaminos et al., 2010; París Pombo, 1999).

## 2. Aurreiritzi eta estereotipoen aspektu psikosoziala

Hiru faktorek determinatzen dituzte aurreiritzi eta estereotipoak: faktore psikosozialek, afektiboek eta kognitiboek (Prevert et al., 2012).

- Faktore psikosozialek bereizketa sozialei egiten die erreferentzia, desberdintasun sozialetan adierazten diren horiei hain zuzen. Bereizketa sozialek aurreiritziak sortzen ditu “eskala sozialeko pertsonak (askotan etorkinak, ijitoak... diren horiek)” berauen jokabideen ezaugarriengatik ebaluatzen baitituzte eta beheko posizio hori justifikatzen dute. Adostasuna estereotipo horiek sortzearekin gehien lotzen den faktore garrantzitsuen legez kontsideratu da. Egindako ikerketen arabera, arau sozialekin adostasun handiena duten pertsonak aurreiritzi eta estereotipo gehiago izanen dute.
- Faktore afektiboek dagokienez, berriz, frustrazioak diskriminazioa sortzen duela ikusi da.
- Faktore kognitiboekin amaituz, okerreko inferentzia estereotipoak sortu eta izateko faktore moduan interpretatu da. Esan genezake, korrelazioaren ilusio faltsua izan daitekeela horren ispilu, adibidez, genero eta laketasunaren artean asko egin izan dena. Bestalde, aipa daitekeen beste faktore bat fokalizazioa izan daiteke. Talde batek ez desiragarritzat kontsideratzen dugun jokabide bat egiten duela pentsatu eta honi arreta jartzen badiogu hori aurkitzea askoz errazago egingo zaigu talde horretan. Hori dela eta, aurreiritzi eta estereotipoak sortuko ditugu horren kontra.

## C. Antigitanismoa

Arrazismoa zer den, nondik sortzen den eta zergatik jarraitzen duen azaldu ostean, ijitoen kontra gauzatutako arrazakeria, hau da antigitanismoa zer den azaltzera natorkizue. Ezin gaitzke ahaztu, orainsu arte aipatutako etnozentrismoak, estereotipoek eta aurreiritziek sortzen dituzten bereizketa eta desberdintasunek gutxiengo etnien izan dezaken eragina oso larria izan daitekeela, eta ijitoen kasuan horrela izan da. Geroxeago aipatuko dudana bezala behin eta berriz jasan duten arrazakeria mota espezifiko bat landuko dut lan osoan zehar, antigitanismoa hain zuzen.

Marcias Arandak 2017. urtean aurkeztu zuen tesiak ondo jaso zuen moduan (Macías Aranda, 2017), antigitanismoa Ijitoen Herriaren arrazakeriaren forma espezifiko bat da, historikoki zein geografikoki inoiz desagertu ez dena. Gainera, sistematikoa da, jendarteko estamentu guztiek onartua baita. Askotan jarrera oldarkorrek ere bat egiten dute antigitanismoarekin etnia ijitoko gutxiengoaren aurkako jarrera oldarkorrek, hala nola (*European Commission against Racism and Intolerance & Concil of Europe*, 2011). Nicolae Valeriu bezalako ijito adituek antigitanismoa arrazismoaren forma espezifiko legez ulertzen dute, arrazen nagusitasuna jorratzen duen ideologia, deshumanizatzeko modu bat; instituzioetako arrazismoa, diskriminazio historikoak indartzen duena (Valeriu, 2006).

Antigitanismoa arrazakeria biologikoko perspektibatik azal genezake, baita kulturaletik ere. Arrazakeria biologikoa oraindik Ijitoen Herriaren kontra erabiltzen dela esan daiteke, batez ere jendarteak Ijito Herria deshumanizatzeko joerak bere horretan jarraitzen baitu. Ijitoen inguruan jendarteak duen errepresentazio desberdinek (positiboak zein negatiboak izan) eta sozialki eraiki diren ezaugarri eta baloreak animalia munduarekin erlazioa izanen dute. Honek, ijitoen balioak beste pertsonen azpitik kokatzeko joera azaleratzen du, eta horrela justifikatzen da berauekiko desberdintasuna eta jasaten duten tratua. Horren adibide dugu 90. hamarkadan Errumanian komunikabideek eta herritarrek horiekiko zuten iritzien artean ijitoa behegaroko maila batean zegoen giza espezia zela kontsideratu izana. Horretaz aparte, beste arrazakeria mota batzuen ondorio ere bada, ez aspektu biologikoan zentratzen dena, baizik eta kulturaletan. Horrela, eskusioa bera ere justifikatzen da.

Esan bezala, arrazakeria (eta hortaz antigitanismoa) ez dago soilik besteetan. Hainbat ijito dira antigitanismoaren ondorioz Espainian bizia galdu dutenak. Danielen kasua dugu horren adibide, poliziek genero-indarkeriaren balizko egitate batzuegatik atxilotu eta atxiloketa horretatik bizirik atera ez zen pertsonarena. Poliziek bere buruaz beste egin zuela esaten dute, familiak berriz berauek hil zutela.

*AraInfo* Aragoiko artikulua horren inguruko artikulua publikatu zuen, eta honetan ijitoak ez zirenek kasu honi garrantzia handiegirik emango ez zuela aipatzen zuten. *Antigitanismoaz hori bizi dugunok soilik arduratzen gara* hitzek, ondo desberdintzen dute George Floyden kontra gauzatu zen gertaera arrazistak izan duen mugimendurik egingo ez dela salatzerakoan:

Esta última semana hemos tenido noticias de un nuevo caso de posible violencia policial: Daniel Jiménez, muerto en circunstancias aún no aclaradas mientras estaba bajo custodia policial en la comisaría de Algeciras. Sí, justo esta semana en la que por todo el mundo se ha oído un clamor contra el racismo y la brutalidad policial por el presunto homicidio de George Floyd. En este caso no habrá manifestaciones masivas ni saldrá ningún político ni ningún artista a apoyar a la familia. Así ocurre siempre. Las violencias antigitanas solo nos importan a nosotros, a quienes las sufrimos.

Esperamos que, al menos, haya una investigación que aclare lo sucedido y depure las responsabilidades. Mientras tanto solo nos queda gritar “nosotros sí os creemos. #ElAntigitanismoMata<sup>3</sup>”.

Errealitate hori, ondo erakusten dute orain arte ijitoen inguruan aztertu ditudan datu guztiek. Espainian gaizkien ikusia dagoen gutxiengo etnia dugu ijitoena, eta oraindik, hori legitimatzeko joerak bere horretan jarraitzen duela ikusenez eguneroko bizian “integraturik ez badaude, beraiek aldentzen ez direlako da”. Tamalez, kalera atera eta horri buruz hitz egiten baldin badugu oraindik argudio horiek entzungo ditugula kontura gaitzke. Baina guk, antigitanismoa aztertzeke eta honi buruz informatzeko aukera izan dugunok, jakin badakigu hori ez dela inondik inora horrela.

Orainsu arte azaldutako arrazakeria horrek sortu dituen botere-harremanek (arrazoia arrazan zen bereizketa kulturean izan) hortaz, eragin negatibo etnozentriko horiek

---

<sup>3</sup> Agüero Fernández, S. (2020, junio 11) *Daniel Jiménez: Otra muerte gitana sin aclarar*. Recuperado 11 de junio de 2020, de *AraInfo* Diario Libre d’Aragón website: <https://arainfo.org/danieljimenez-otra-muerte-gitana-sin-aclarar/>

(negatiboak oso pertsonak antigitanismoaren ondorioz erailak izaten jarraitzen baitute, edo azalduko ditudan beste hainbat egoeratik bizirauten), ijitoek berauen baitan jasan izan dute Europara etorri zirenetik gaur arte; hori da antigitanismoak batzen duena. Horiek guztiak geroxeago azalduko ditudan arren, ezin dezaket aipatu gabe utzi jendarteak horiekiko dituzten aurreiritzi zein estereotipoak, behin eta berriz elika dezaken instituzioa, hots, *Real Academia Española* (RAE). 2014tik aurrera ijitoen talde askok hiztegi honek egiten duen diskriminazioaren kontra egin zuten. 2015ean, adibidez, Ijitoen Idazkaritza fundazioak kanpaina bat egin zuen eta honako hau izan zen lema: definizio diskriminatzaile batek, diskriminazioa eragiten du. Hori internet bidez zabaldu zuen #YoNoSoyTrapacero #YoNoSoyTrapacera lemarekin, baita bi minutuko bideo bat ume ijitoei hiztegian “ijito” hitza bilatzean sortutako erreakzioen grabaketarekin.

Hiztegi honetako 22. edizioak ijito hitzaren laugarren adierak zera esaten zuen: “Maula egiten duena edo iruzurrez jarduten duena”. Jasotako diskriminazioaren inguruko salaketen ondorioz, hiztegiak esaldi hori ezabatzea eragin zuen, baina ez bosgarren adiera bat jaso gabe. Adiera honek bideratu zuen kanpaina: 5. *trapacero*. Hitzaren esanahia bilatuz gero, kontura gaitezke aurreko adiera horren hitzak ezabatu bazituzten ere, beste hitz honekin esanahi bera mantendu zutela (Domínguez, 2015)<sup>4</sup>.

Hori azalduta, galdera bat dator kit burura: Zergatik definitzen du RAEk ijito hitza esanahi honekin? Adiera hori erreala dela sinistu eta jendartean zabaldu nahi al dute? Ala jendarteak hori sinesten duelako eman diote esanahiari adiera negatiboa?

Tamalez, hori ez da gehien larritzen nauena, aldatzeko eskaerek fruiturik ez izana baizik. Gaztelania erregulatzen duen instituzio horren eta etniaren artean dagoen botereen erlazio asimetrikoak eragiten duen ijitoen eskubideen defentsaren urraketa behin eta berriz gauzatzea da benetan kezkatzen nauena, botere-harreman horiek baitira antigitanismoa desagertzea eragotzi eta arrazakeria espezifiko hori mantentzea posible egiten dutenak.

## D. Antigitanismoa historian zehar

Marcías Arandak 2017an “Contribuciones del Pueblo Gitano para luchar contra la Pobreza y el Antigitanismo a través de su participación en Actuaciones Educativas de

---

<sup>4</sup> Hona hemen *trapacero* hitzaren esanahia Real Academia Españolaren arabera: *Que con astucias, falsedades y mentiras procura engañar a alguien en un asunto.*

Éxito” lanean esan bezala, Espainian, XV. mendetik 1978ko Espainiako Konstituziora arte, ijitoen kontrako legediak iraunkor jarraitu du. 1499ko martxoaren 3an, Gaztelako Isabel II.-ak eta Aragoiko Fernando I.enak, momentu hartako Madrilgo herribilduan, lehenengo pragmatika antigitanoa sinatu zuten. Lege horren arabera, erromaniak ezagutzen ziren lanetan egin beharko zuten lan, eta beraz, beraien bizi nomada alde batera utzi eta etxeko langile bihurtu behar ziren. Betetzen ez bazuten, 100 zigorradako zehapena ezartzen zitzaien eta gero lurra utzi behar izaten zuten. Bigarren aldiz araua hausten bazen, belarriak ebaki, 60 egunetan kartzela zigorra ezarri eta gero erbestea ezartzen zitzaien. Azkenik, hirugarren aldiz pragmatika honetako legea betetzen ez bazuten, heriotza zigorra ezartzen zitzaien (Ortega, 2009).

Horren esanetan, pragmatika honen ostean, beste legedi guztiek ijitoen kontrako pertsekuzio, erbesteratze eta sarraskitzea aurreikusten zuten, aipatutako lehen pragmatika izan baitzen kontuan hartu zutena beste legedi guztiak sortzeko; horiek, gero eta gogorragoak bihurtu ziren.

Aipatzekoa da 1749ko uztailearen 30eko Sarekada handia, lehenengo aldiz etnia ijitoa sarraskitzeko ahaleginak egin baitziren European egun hartan. Erromaniaren Sarraskitze honetan ijito guztiak askatasunez gabetu nahi izan ziren, gero Herri Erromaniarra deuseztatzekotan. Nicolás Jiménezek azaldu zuen bezala, ia 12.000 pertsona harrapatu eta kartzelaratu zituzten. 15 urtetik gorako gizonak itsasontziak eraikitza bidali zituzten nahitaezko lanak egitera behartuz. Emakumeak, berriz, 15 urtetik beherako mutilekin, espetxe-fabriketan egin behar zuten lan eta, horren bidez, bizirauteko baliabideak ordaindu beharko zituzten hiltzen ziren arte (Jiménez, 2017). Plan hori Ijito Herriko familiarik ez sortzeko garatu zen, (beharrezkoa baitzen egitura hori etnia honetako balore eta ohiturak mantendu zitezen). Haatik, plana ez zen guztiz ondo atera, baina erromaniarrek ez dute lehen sarraskitze hori inoiz ahaztu.

1499. urtetik 1788. urtera arte hogeita zortzi pragmatika erreal zenbatu dira (289 urtetan) Gaztelako Gorteetan soilik. Pragmatika horietan zigorra, mutilazioa, esklabotza, heriotza-zigorra eta erbesteratzea aurreikusten ziren (Pérez, 2009).

XX. mendean ezin daiteke esan egoera asko hobetu zenik European. Erromaniarren kontra garatutako legediak, Espainiako estatuan eta Europa osoan zehar, kriminalitatearen prebentziorako sortu ziren korronteen jarraipenei erantzuten baitziren. Lombrosok

*L'uhomo delincente* (1876) lanean, kriminalitatea herentziako gaixotasuna kontsideratzen zuen eta gen kriminala belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen. Hori horrela, momentuan onartzen zen filosofiak bere gain hartzen zuen arriskugarritasuna eta Ijitoen Herriaren arteko binomioa. Hortaz, talde konkretu baten parte ziren pertsonen etorkizuneko jarrera aurreikusi eta ekidin nahian, Alemanian, 1933tik 1945. urtera arte ijito etniako edo beste gutxiengo jakin batzuen kontrako antzutzte eta geroxeago sarraskitzea egin zuten.

Beraz, esan genezake Ijitoen kontra egindako bigarren sarraskitze adibidea Samudaripen dugula, Bigarren Mundu Gerrako ijitoen sarraskitzea hain zuzen. XVI, XVII eta XVIII mendeetan Europan hain garatua zegoen erromaniarren kontrako hitzaldiak XIX. mendeko determinismo biologiko eta politika eugenesikoekin bat egin zuten. Arrazismoaren manifestazio “berri honek” eta antigitanismoak berak, gaur egungo arrazismotzat ulertzen dugunari erantzuten dio. Horren oinarria etnozentrismoan dugu eta balizko “arraza” jakin batzuen gailentasun biologikoan oinarritzen da, beste arraza batzuen aldean (Flecha, 1999). Ijitoen Herria menpeko “arraza” zen/da eta honek osasun publikoan eragin kaltegarriak ekartzen zituen/ditu Europan XVI. mendetik aurrera. Beraz, XIX. mendean garatutako plan nazia ez zuen partidu politikoak soilik sortu, jendarteak Europan oinarrian zuen iritziak asko lagundu baitzuen ideologia horren garapenean.

Erregimen Nazian kontzentrazio-esparruetan, 1939. urtetik 1942. urte arte erromaniarren kontra egin ziren pertsekuzio eta kartzelatzeak 1945. urterako 15.000 pertsona hiltzea eragin zuen Alemanian. Esaten denaren arabera, 220.000 eta 500.000 pertsona hil zituzten Europan, baina badaude (egon bai) beste datu batzuk miloi bat eta erdi pertsona hil zituztela ere esaten dutenak Samudaripen (Jiménez 2017).

Ildo berean, XX. mendeko politika kriminalak, Europako monarkiek ijitoen errolda garatu zuten Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Frantzia, Luxenburgo, Herbehereak, Errusia eta Suitzak, “ijitoen enbarazuari aurre egitekotan” geroko triskantzei bide emateko (Fraser, 1992). Espainiak, alderdi jakin batzuetan, filosofia berari eutsi zion (helburuak berak ez baziren ere). “1933ko Alferren eta Gaizkileen legea Arlotekeriaren legea” ezarri zuten (erregimen faxistak legea aldatu zuen homosexualen errepresioa sartzeko 1954ko uztailaren 15ean). Geroxeago, “1970. urteko Arriskugarritasunaren eta Gizarte errehabilitazio sozialaren Legea” ezarri zen, eta 1995. urtera arte lege honetako artikulua batzuk indarrean mantendu ziren. Berez, lege horiek



guardia zibilei ordenantza zehatzak aurreikusten zizkieten Ijitoen Herriko parte ziren pertsonen kontra jardun zezaten, kriminal potentzial legez ikusten baitzuten etnia ijitoko edozein pertsona (Torres, 2019).

## E. Diskriminazio interteksionala

Horretaz guztiaz aparte, ezin diezaioket atal honi amaierarik eman diskriminazio interteksionalari edo diskriminazio anizkunari aipu minimo bat egin gabe. Diskriminazio interteksionala geroz eta gehiago erabiltzen da aktibismo erromaniean eta baita mundu akademikoan ere. *Riesgo de exclusión de la población gitana en España e intervención social* laneko 4. atalak, esaten duenaren arabera, (Campos Gómez, Mas Zamora, & Giménez, 2019) “interseksionalitate” hitzak (diskriminazio interteksionalak zer esan nahi duen aztertzeotan) pertsona batek dituen dimentsio anitzek sortzen duten interseksioak mugatzeko balio du (klase soziala, generoa, eta etnia izan daitekeenak, hala nola). Ikuspuntu honek ijitoak diren eta emakumeak diren ijitoek nozitzen duten diskriminazioa ulertzeko balio du, ez modu akumulatiboan, baizik eta anizkoitzean.

Autore horien esanetan, gaur egun diskriminazio interteksionala eta diskriminazio anizkoitza sinonimo gisa erabiltzen direnez, horiek diferentziak dituztela ulertzen dute autoreek eta beraz izan ditzaketen desberdintasunak aztertzeoak direla esan nezake. Intertseksionalitate hitza Hancock-ek sortu zuen. Hori, genero, klase sozial eta jatorri etnikoak elkarren artean pertsona batengan izan zezaketen erlazioa ikustarazten ahalegindu zen pertsona horrek bere identitatea sortzeko orduan. Hancocken hitzetan, gaur egun emakumeak jasan behar duen diskriminazioa testuinguru batetik bestera asko aldatzen da pertsona batek bere identitatea sortzen duenean kategoria edo dimentsio jakinekin erlazioatzen denean (Hancock, 2016).

Horrela, eremu anglosaxoian adibidez (mugimendu sozialek eta Estatu Batuetako ikerketek eragin handia duen testuinguruan, beraz) esatekoa da diskriminazio horrek badituela hiru dimentsio desberdin “interseksionalak” direnak; emakumea den, ijitoa den eta pobrezian bizi den pertsona batek bere interseksioan mugatzen dituen kategorietan oinarritzen da. Hooksen arabera, beraz, “zapalkuntza aniztuetan” oinarritzen da eta ez “diskriminazio aniztunean” (Hooks, 2017).

Europaraino, azalduko kontrako zentzuan oinarritzen den mugimendu sozial eta akademikoetan oinarritu zen. Hau da, emakume jakin batzuek diskriminazio desberdinei aurre egin behar dioten teorian eta, beraz, emakume izatetik aparte, beste kategoria diskriminatzaile batzuk jasan behar dituztela. Horrek diskriminazioen pilaketa zekarren bere baitan. Horrela sortu zen, hortaz, diskriminazio aniztuna terminoa. Beraz, etnia ijitoko emakume batean fokua jarriz gero, teoria horren arabera, pertsona honek diskriminazio hirukoitza jasan dezakeela esan genezake (generoagatik, etniagatik eta "txiroak" izateagatik). Autore horien ikuspuntutik, kontu honek arazoak ekar ditzake; izan ere, ez da nabarrian gelditzen dimentsioek elkar eraginik izan dezaketarik (Campos Gómez, *et al.*, 2019).

Hori dela eta hasi ziren feminista afroamerikar estatubatuarrek laurogeiko hamarkadan honi erantzuna eman diezaiokeen intersektionalitatearen gaiari eusten. Feminismo beltz honek kritika egiten dio orain aipatutako diskriminazio pilaketari, arraza eta generoa elkarren baztertzailerak diren esperientziaren eta azterketaren kategoria gisa tratatzeko joera honek ez baitio errealitateari erantzuten. Creseharen hitzetan, teoria feministak eta arrazismoaren kontrako teoriak alde batera uzten dituzte emakume beltzak (adibidez). Bi politika horietatik aldenduak geratzen dira emakumeak diren eta etnia desberdinekoak diren emakumeak, bi politika horiek ez zutelako arraza eta generoaren interakzioaren garrantzia lantzen. Esklusio horrek izan zezakeen arazoari ezin ziezaioketen erantzunik eman sortuak zeuden eta aldatzeko ez ziren egiturek, diskriminazioa intersektionalak arrazakeria eta sexismoaren baturak baino egoera larriagoa suposatzen baitzuen. Beraz, emakume horiek, beraien ahotsa entzun zedin hasi zuten borroka (Crenshaw, 1989).

Orain arte aztertutakoak argi utzi du etnia ijitoko emakumeak eta etnia ijitokoa ez denak egoera desberdinak jasan behar dituztela, eta modu berean, etnia ijitoko emakumearen egoera ez dela etnia bereko gizonaren egoeraren modukoa. Beraz, etnia ijitokoak diren emakumeekin egin beharreko analisiak intersektzioala behar du izan, metaketa baino haratago doana. Zapalketa anitz aipatzen dituen eremuen konfigurazioan pertsona batek edo pertsonen talde batek identitatea sortzeko kontuan hartzen ditugun kategorien arteko dimentsioek duten interrelazioa edo intersektzioa aztertzeko (FSG, 2017).

Adibideak jartzekotan gizonezkoa, etnia ijitokoa eta pobrezian bizi den pertsona bati diskriminazio bikoitza jasan dezakete. Era berean, gauza bera gerta dakioke emakumea den eta pobrezia egoeran bizi denari. Haatik, emakumea den eta ijitokoa den pertsona batek

diskriminazio interseksionala jasaten du gehienetan, ez emakumea eta ijitoa izateagatik, emakume ijitoa izateagatik baizik. Egoera hori oso ondo erakusten du Katalunian ijitoen herriaren inguruan egindako ikerketak, emakume horien bizi-esperantza 55 urtekoa baitzen horren arabera, etnia ijitokoak ez diren emakumeena 83 urtekoa zen bitartean (Department de Benestar i Familia. Generalitat de Catalunya, 2005).

## V. TESTUINGURUA

### A. Sarrera

12 miloi pertsona dira Europan etnia ijitokoak izanik jasaten duten egoera diskriminatzaileei aurre egin eta bizirauten jarraitzen dutenak; 5 mende daramatzate Europan gutxiengoaren parte izaten; 5 mende jendarteak ezarrita dituzten botere-harremanen ondorioz diskriminaturik bizitzen. Are gehiago, Fernan de Varennes-en esanetan, hau da,, Europar Batasuneko Errelatore Bereziaren adierazpenetan, gutxiengo honetako pertsonak Espainiako marjinatuenak eta zaugarrienak izaten jarraitzen dute, “antigitanismoa” oso hedaturik eta erroturik baitago jarrera sozial kultural eta erakunde-praktiketan (Fernand de Varennes, 2019).

Arrazakeriari buruz ari gara. *Comunidad Gitana: La persistencia de una discriminación histórica* izeneko Zientzia sozialen aldizkariaren aburuz, (Arza & Carrón, 2015) jarrera sozialen inguruko ikerketak diskriminazioari buruzko ikerketetan funtsezko papera jokatzeko dute. Horrek, korrante zabalago bat sortzen du zientzia sozialetan, hau da, hamarkadetan gertakari sozialetan jarrera jakin baten hasierak eta horren garapenak fenomeno sozialetan duen paperaz arduratu diren zientzietan. Hainbat autorek jokabideekin lotuta dauden jarrerak aztertu dituzte, jarrerak jokabideetan eragin zuzena dutela esanez (ez baina harreman determinista batetik aztertuz, baizik eta alde zuzeneko joeratik). Autore horiek esan zutenaren arabera, badaude elementu batzuk jokabide jakin batzuk areagotu (edo sortu) zein gutxitu (edo deuseztatu) ditzaketenak: arau legeak, inguruabarrarekiko jendartean dituen itzaropenak, balio sozialak, egoera sozioekonomikoak...

Arrazakeriari dagokionez, esan genezake hori jasateko faktoreetako bat jendarteak talde jakin batekiko dituen aurreiritzi negatiboak direla. Beraz, askoz errazagoa da gaizki ikusia den talde bateko parte denak diskriminazioa jasatea (Díaz-Aguado, 2004) gehienbat aurreiritzi horiek agente diskriminatzaile horri jarrera diskriminatzailea justifikatzen laguntzen baitio.

Hain da larria jasan behar duten diskriminazio instituzionala (arrazakeria), non Alemaniak 2012ko urriaren 12ra arte ez duen onartu izan ijitoak ere Holokausto naziko biktimak izan zirenik Bigarren Mundu Gerran (Torres, 2019).

## B. Antigitanismoa gaur egun eremu politikoan

Gaur egun Garrido eta Serrano-Mañlok kriminologiaren elementu komunak biltzen dituzte Lombrosoren kriminologia positiboa kritikatzuz (korrante honek ikusi dugunez delituarekin lotzen diren azalpen biologiko psikologiko moral eta sozialei egozten zien delitua gauzatzeko errua). Egiten duten kriminologia kritikoaren aburuz, delitua gauzatzen duten pertsonak pertsona arruntak dira, hau da, beste herritarrekin alderatuz gero, gehienek ez dute desberdintasunik deliturik egiten ez duten herritarrekin. Estatuak baina, ezinbesteko eskubideak errespetatzen ez dituen heinean biktimak sortzen ditu. Biktima horiek, beraien egoera dela eta, pertsona arriskutsuak bihur daitezke jasan behar izan duten eta jasaten duten egoerek frustrazioa sortzen baitiete. Beraz, Estatu anitzek praktikan jarri duten (eta praktikan jartzen jarraitzen duten) politika kriminala beharrik handiena dutenen eta botere-harremanetan oinarrituz, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen inguruko aurreiritzietan oinarritzen dela indartzen du perspektiba berri honek (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006).

1978ko Espainiako konstituzioaren ondorioz, balizko zuzenbidezko estatu demokratiko eta soziala bihurtu zen Espainiako Estatuak (Europako estatu gehienaren moduan). Horren ondorioz, Ijito Herriko pertsonen herritartasun osoa lortu eta lehenago indarrean zeuden lege antigitanoak indar gabetzea eragin zuen Espainiako Konstituzio honek. Haatik, ezin genezake esan gaur egun antigitanismoa existitzen ez denik (eta aztertu beharreko kasu horren adibide bikaina izan daitekeen arren), beste adibide anitz landu nahiko nituzke, badaude eta, egon bai.

Aipatzekoa da, hasieran esan dudana bezala, antigitanismoa sozietate zibilean agertzen dela bai, baina baita eremu politikoan ere, antigitanismo instituzional legez. European hainbat eta hainbat adibide jarri genitzake. Frantzia eta Italia, oraindik egozte-politikak erabiltzen dituzte ijitoen aurka eta publikoki defendatzen dituzte gainera politika horiek. M<sup>a</sup> José Fernández Torresek (Fernandez Torres, 2019) aipatu bezala, Frantziako gobernuak 2010ean 300 erromaniar kanporatu zituzten herritarren babesarekin. Saint-Aignan herrian, 22 urteko gazte erromaniar bat hil zuten poliziek <sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup> Jiménez Barca, A. (19/07/2010) Grenoble y Saint-Aignan vuelven poco a poco a la calma. El país: [https://elpais.com/internacional/2010/07/19/actualidad/1279490402\\_850215.html](https://elpais.com/internacional/2010/07/19/actualidad/1279490402_850215.html)

Horrek familia eta polizien arteko gatazka sortu zuen, eta egoera horren aurrean Errepublikako Presidenteak Ijito Herriko ehunka pertsona erbesteratzea erabaki zuen. Horretaz aparte, Frantziako ijito nomadak ere erbesteratzea bideratu zuen, berriz ere Ijito Herriak delinkuentziarekin duen lotura justifikatuz, konkretuki droga trafikoaren inguruko delituak gauzatzen dituztela esanik <sup>6</sup>.

Europar Batasuneko erakundeetan, eta baita Frantziako herrialdean ere, gertaera honek hainbat eta hainbat gogoeta piztu zituen eta horrek datu oso larriak argitaratu zituen gutxiengo horren egoera juridikoari buruz. Europar Batasuneko Justizia eta Ezinbesteko Eskubideen komisarioak, hau da, Vivian Regi-ek<sup>7</sup> ikerketa bat hasi zuen horren inguruan baina azkenean ez zen inongo zigorrrik ezarri Frantziako estatuaren aurka. Frantziako erregimen legalaren analisiak erromanien kontrako estatuko xenofobia erakutsi zuen eta honako ekintza eta disposizioetan gauzatzen zen: ijito edo nomaden aurkako Isilpeko fitxategien existentzian <sup>8</sup>.

Horietan Frantziako poliziak Lombrosok ezarri zuen teoriari jarraiki delitu jakin batzuk ijitoekin batzen dituzte. Fitxategi horiek Gutxiengo Etniko ez sedentarioak dute izena, eta Ibiltarien Delinkuentziaren Borrokarako Bulego Zentralak kudeatzen ditu (OCLDI<sup>9</sup>). Ez da horren berririk izan 2010eko urriak arte, ezta ijito nomadek modu eskusiboan izan behar duten nortasun-agiriari buruzkorik (ijito nomaden mugimendua kontrolatzeko sortua).

Badira lege gehiago Frantziako Estatuko jarrera antigitanistak erakusten dituztenak. Ez luzatzekotan, oraintsu aipatutako OCLDI-k aipu bereizi bat behar duela deritzot, horiek etsai nagusitzat baitituzte ijitoak eta talde organizatutzat edo delitugiletzat dituzte. Horietan sekzio bakoitzak kalean musika egiten duten ijitoen argazkiak dituzte jasoak. Frantziako Gobernuak fitxategi horiek existitzen ez direla esan duen arren, ikerlariak sinesgaitzat jotzen dituzte Gobernuak eman dituen arrazoiak.

---

<sup>6</sup> Teruel, A. (29/07/2010) Francia desmantelará 300 poblados gitanos en réplica a los disturbios. El País: [https://elpais.com/diario/2010/07/29/sociedad/1280354404\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2010/07/29/sociedad/1280354404_850215.html)

<sup>7</sup> Ricardo Martínez de Rituerto, R.(20/09/2010). El País: [https://elpais.com/diario/2010/09/22/internacional/1285106406\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2010/09/22/internacional/1285106406_850215.html)

<sup>8</sup> Vid. Johannès, F. (7/10/2010) Le fichier des Roms du ministère de l'intérieur. Le Monde: <http://libertes.blog.lemonde.fr/2010/10/07/le-fichier-des-romsdu-ministere-de-linterieur/>

<sup>9</sup> Página oficial de Ministerio del Interior, Gendarmería nacional, OCLDI: Texto consultado en <https://www.gendarmerie.interieur.gouv.fr/Divers/OCLDI-en-savoir-plus>

Ijitoen kontrako legeek herri horren kontrako diskriminazio sozial eta ekonomikoa indartzea eragiten du herrialdean. Horren adibide dugu Frantzia 2019an herritarrek herri horren kontra buruturiko eraso bortitza. Parisetik hurbil bizi ziren etnia ijitoko pertsonen kontrako zurrumurru faltsuek inguruko hainbat herritar berauen kontra joan, bateak hartu eta berorien etxeak erretzeari ekin zioten. *SOS Racism*-ek gertaera hori “benetako pertsonen ehiza” bezala deskribatu zuen eta 20 pertsona atxilotu dituzte egintza horiek direla eta.

Bestalde, Italiak, 2010. urtean Europar Batasunekoak ziren “beste” pertsona horiek (Ijito Herrikoak gehienbat) eta Estatuko onuretatik bizi ziren pertsonak, kanporatu nahi izan zituen arren, Europako batzordeak, lehenago egin zuen bezala, ezeztatu egin zion aukera hori. Bestalde, aipatzekoa da Erromak bi urte zeramatzala ijito etniako pertsonen integrazioa sustatzeko Planaren inguruko propaganda egiten, baina errealitatean inoiz ez zen praktikan jarri. Are gehiago, erromaniarrak legezko kanpalekuetan ostatua emateko aurreikusita zegoen plan municipalak hainbat eta hainbat hilabetetan gelditu egotearen ondorioz lau ume hil ziren, bizi ziren txabolak sua hartu baitzuen.

Bi estatu horiek duten politika arrazista da (Fernandez Torres, 2019), eta Ijito Herriak aldeztetik delitua gauzatzeko jarrera hartu duela ulertzen dute. Beraz, pertsona batek duen kriminalitatea lau parametrok erantzuten dutela aurreikusten dute: 1) jatorri etnikoa; 2) etorkina edo pertsona nomada; 3) maila ekonomiko baxua; 4) jatorrizko herrialdea. Kriminalitateari erantzuten dien indikatzaile horiek “Herri Ijitoen gen Kriminalean” birgaldatzen dira, Frantzia azaldutakoaren arabera ondo ikusten den bezala.


Horretaz aparte, dudarik gabe eremu politikoan gertatu diren ekintza antigitanorik berrienak Europako parlamentuan gertatu dira (Macías Aranda, 2017). Adibidez, 2013ko urriaren 9an Strasburgon, Europako Parlamentuko egoitzan egin zen eztabaidan gertatu zen. Europako Ijitoen Herriko egoera eztabaidatzen zeuden, eta komisarioetako batzuek ekarpen oso diskriminatzaileak egin zituzten etnia honetako pertsonen kontra. Kasurik deigarriena Phiilip Claeys eurodiputatuak egindako onarpena izan zen. Honen aburuz, Europar Batasunak etnia honetako pertsonak “biktima erdiragarrizat” hartu izan ditu urte luzeetan zehar, eta “politikoki onargarria izan ez daitekeen arren, ijitoek dituzten arazo asko beraien jarreragatik sortu dira, beraiek dute erantzukizun zuzena” (European Parliament, 2013). Hizketaldi honetan legebiltzarreko hainbat eta hainbat pertsonak egin zituzten aurreiritzi eta estereotipoetatik eratorritako ekarpenak, herri hori lapurreta,

delinkuentzia organizatu, adingabekoen kontrako abusu eta pertsonen trafikoa bezalako delituekin batuz.

Jendartean ere zabaldua dauden, eta hein handi batean, orain arte berauen kontra egin diren politika eta legeek, Ijito Herriaren egoera sozioekonomikoan ondorio oso larriak dakartza ezinbestean. 2018an Ezinbesteko Eskubideei buruzko Europar Batasuneko Agentziak (FRA) egindako txostenak dioenaren arabera, Europar Batasunean ijitoen aurka egiten den diskriminazioak oztopo ikaragarria sortzen du beraien bizi baldintzak hobetze aldera. Bizi baldintza horiek garatu gabe eta garatzeke bidean dauden herrialdeekin baino ezin daitezke alderatu.

### C. Antigitanismoa gaur egun eremu sozialean

1. Taula. Azken urtean Ijito Herria diskriminatua izan den eremuak. (87.or.)



Grafikoan ikus daitekeenez, Ijito Herriak, eremu sozial guztietan nozitu behar du diskriminazioa. Grafikoan, emakumek eta gizonak jasan behar duten diskriminazioa ikustarazi nahi nuen, generoen arteko diferentziak azal dezakeen diskriminazio interseksionala ikustarazteko, geroxeago horretan modu fokuratu batean zentratuko naizen arren. Lan-arloan, gizonak diskriminazio gehiago nozitzen dutela ikus genezake, baina hori, ijito gehiengoen errealitatearekin lotu behar dugu, gizonetzkoak baitira lan-



arloan aritzen direnak gehienbat. Bestalde, beste kasu guztietan, emakumeak diskriminazio gehiago nozitzen dutela ikus genezake, eta hori lehen azaldutako diskriminazio intersektionalaren bidez azal nezake.

70. hamarkadatik aurrera, egindako ikerketek esaten dutenaren arabera, ijitoen komunitatea da jendarteak gehien errefusatzeko duena. Horren adibide bat dugu 2007an CISek egindako diskriminazioaren eta horren pertzepzioaren inguruko inkestako galdera bat. Honetan, talde desberdinen inguruan duten begikotasun maila zein den erantzun behar zen. Aztertzen zeuden talde guztien artean, “ezer ez” edo “gutxi” gehien erantzun zuten taldea etnia ijitoena izan zen, % 51,7-a hain zuzen. (CIS, 2007). Gauza bera gertatu zen 2013an CIS ek diskriminazioaren pertzepzioaren inguruan egin zuen galdeketarekin (CIS, 2013). Parte hartu zuten pertsonen %49,3ak baino ez zuten erantzun ez litzaiokeela arduratuko Ijito Herriko pertsona edo familia bat auzokide gisa izatea. Honekin gehien parekatu zitezkeen taldeak erlijio musulmana praktikatzeko dutenak dira (13 puntu gutxiago) eta gero immigratu duten pertsonak (20 puntu gutxiago) (Arza, 2014).

Eurobarometroan egindako edizio desberdinen arabera, Europar Batasuneko egoera eta Espainian bizi behar duten egoera oso antzekoak dira. 263 eurobarometro bereziak (European Commission, 2007) planteatzen zuten galderak jendarteak Europan ijitoekiko duen ikuspegia ezagutzea errazten du. Galdera honako hau zen: Jendartean, rom izateak zer suposatzen du zure ustez? Abantaila, desabantaila ala ez bata ez bestea? Europar batasuneko jendearen iritziz, gehienak desabantaila bat zela onartzen zuten (% 77ak) eta % 3ak soilik uzte zuten ijitoa izatea abantaila bat izan zitekeela. Eurobarometroko galderarik esanguratsuen zera izan zen kasu honetan ere: arduratuko litzazuke talde horietako pertsona edo familia auzokide gisa izatea? Aztertu zenaren arabera, elbarritasuna duen pertsona bat auzokide moduan izatea da orokorrean gehien asetzen edo gutxien arduratzen ziena (1etik 10erako eskalan 9,1eko puntuazioarekin), eta aldiz, gutxien asetzen ziena Ijito Herriko pertsona bat auzokide moduan izatea izan zen (6 puntura jaisten zen gogobetetze-maila).

### **Diskriminazio subjektiboa**

Diskriminazioa aztertzeko bigarren kategoria, hori nozitzen duten edo pairatzea posible dutenek diskriminazio hori hautematen duten edo ez aztertzea izango litzateke (Arza & Carrón, 2015). Autore horiek esaten dutenaren arabera, horratik, kontuan hartzekoa da diskriminazio subjektiboak ez duela bat egin behar diskriminazioaren prozesu

objektiboekin beti. Diskriminazio egoerak existitu daitezke eta biktimak horrela ez ulertzea gerta daiteke, eta alderantziz; baliteke pertsona batek diskriminazio egoera bat nabaritu, eta funtsean diskriminazio prozesu objektiborik gertatu ez izana. Hala eta guztiz ere, aditu horien hitzetan, diskriminazioaren pertzepzio subjektiboa behar beharrezkoa da fenomeno horren ezagutza eta bereizgarriak ulertu nahi baldin badira (Laparra Navarro, 2003); (Andueza, 2009).

Gainera, sentitu dezaketen diskriminazioaren ikerketa horiek zentsua dute (diskriminazio hori guztiz objektiboa izan ez daitekeen arren) honek eragin zuzena baitu pertsona horiek eraiki dezaketen erlazio barne-etniako eta barne-taldekoetan. Izan ere, diskriminazio hori nabaritzen duten pertsonak, prozesu sozialetan parte hartzeko behar duten ahalmenean negatiboki eragin baitezake.

Espanian etnia ijitoak gehien nozitzen duela uste duen (eta horrela izan daitekeen) diskriminazio subjektiboa zein den jakiteko, Ijitoen Herriko etxebizitzetan egin zen 2664 inkesta har genezake kontuan (CIS, 2006). Egindako galderetako batek, hautematen duten diskriminazioa ezagutzeko aukera ematen du eta gehien nabarmentzen direnak hauek dira:

- Lana bilatzerakoan diskriminazioa hauteman dutela ikusi izan da. Inkestan parte hartu duten % 60ak (edo behintzat bere hurbilekoek) diskriminazioa jasan duela erantzun zuten eremu honetan.
- Publikoarentzat irekita dauden eremuetara sartzean ere diskriminazioa hautematen dutela ikusi da, hala nola taberna batean sartzekoan, baita igerileku publiko baten edota denda batean. Hori, aztertu beharreko kasuarekin lot genezake, izan ere, T.J.ri, ez zitzaion kanpinean sartzen utzi etnia ijitoko familia zela esan ziotenean, eta T.J.k diskriminazio hori hauteman behar izan du eremu honetan. Hurrengo atalean modu horretako diskriminazio subjektibo eta objektiboen adibideak jartzea beharrezkoa egiten zait, T.J.k jasandako eta hautemandako diskriminazio hori ez baita egoera isolatu bat tamalez. Hori oso argi erakusten du CISek argitaratutako txosten honek, diskriminazioa hautematen duten eremuetan bigarren postua baitu honek. Zehazki, galdera hori egin zitzaieen beraien ustez diskriminaziorik jasan behar izan duten jakiteko: “Zuk zeuk, edo zure familia-kide batek tratatu txarragoa jaso izan duzuen edo diskriminatu zaituztela hauteman duzue ijitoa izateagatik publikorako irekita dagoen zerbitzu

batera sartu zaretenean? % 42,6ak egoera hori jasan edo hauteman dutela erantzun zuen”.

- Etxebizitzan ere diskriminazioa jasan behar izan dutela erakusten du inkesta honek. Etxebizitza alokatzerako prozesuan diskriminatuak sentitu direla esan zuen galdeketa honetan parte hartu zuen hiru laurdenak. Etxebizitza erosteko orduan, berriz, inkestan parte hartu duten pertsonen laurdenak diskriminatuak sentitu dira etnia ijitokoak izateagatik soilik.

Inkesta horren arabera, inklusio sozialerako indikatzaile positibo jakin batzuk dituzten eta etnia ijitokoak diren pertsonak, (hau da, lan finkoa dutenek edo eskusio gutxiago dagoen egoitzetan bizi direnek) gutxiago sumatzen dute aipaturako diskriminazioa, baina, hala eta guztiz, aipatzekoa da kasu horietan ere kontuan hartu behar dela desberdintasun horiek ez direla guztiz esanguratsuak. Izan ere, eskusio sozialerako larriki kaltetuak ez daudenak ere nabaritzen duen diskriminazioa (subjektiboa) oso altua da. (Arza, 2011).

### **Diskriminazio objektiboa**

Aipatzekoa da bat egiten dutela FSGn (2019)<sup>10</sup> jasotzen diren diskriminazio-ekintzek CISEko inkestak batzen dituen diskriminazio subjektiboekin (telekomunikabideek edo sozialki komunikatzeko bideratuta dauden komunikabideek gauzatzen dituzten diskriminazio-ekintzak izan ezik, ez baitziren galdeketa aukeren artean aurreikusi). CISEko inkestan eta FSGk jasotzen dituen txostenean 3 diskriminazio foku nagusi aurki genitzake: lana, publikoarentzako irekita dauden lokalen sarrera eta etxebizitza. Orobat,

---

<sup>10</sup> Urte bat gehiagoz, Ijitoen Idazkaritza Fundazioak (FSG, 2019) 2018an Ijitoen komunitateak jasaten duen diskriminazioa jaso eta publikatu du. Txosten honetan, FSGk batzen dituen kasuak argitaratu dira berriz ere (15 urtetan baitabiltza kasu horiek guztiak publikatzen).

Hainbat eta hainbat urte dabilta diskriminazio honen kontra borrokan, behingoz komunitate honen ezinbesteko eskubideak errespetatu ditzaten guztiek. 334 kasu batu dira 2018an; aurreko urtearekin alderatuz, zifra hori asko igo dela esan genezake, FSGk bere txostenean dioten arabera, joan den edizioan 232 kasu batu baitziren. Baina ez dute negatibotzat hartzen. Alde batetik, hauen ustez berdintasun alorrean lan egiten duten teknikariak ongi dabilzala ulertzen dute. Bestalde, komunitate honetako pertsonak ahalduz ari direla uste baitute ere, eta diskriminazio jakin bateko biktima izan diren Ijitoen Herriko pertsonak beraien eskubideak erabiltzen ari direla (eremu honetan ere asko landu izan baitute).

Horatik, kasu askoz gehiago batu badituzte ere, esaten dutenaren arabera, oraindik gehiengoak ez du salaketarik jartzen. Beraz, 334 kasu horiek ez dute inondik inora adierazgarritasun kuantitatiborik, organizazio honek jaso dituen kasuak baino ezin baitituzte dokumentatu, baina badute bai adierazgarritasun kualitatiboa, jaso diren pertsona horien errealitateak etnia honek bizi behar duen errealitatea ulertzen laguntzen baitigu. Honekin bukatzeko, berdintasunezko trataturako eta ez diskriminaziorako beharrezko den Lege Integrala onartzeko beharrezko dagoela salatzen dute, behingoz modu egokian jokabide diskriminatzaileak erregulatzeko eta zigor gabe ez gelditzeko beharrezkoa den Lege Integrala.

hezkuntza eta osasun zentroetan gerta daitezkeen diskriminazio jarrearen eremuetan diskriminazio jokabide gutxiago dokumentatzen dira eta, modu berean, diskriminazioaren hautemate hori ez da hain nabaria.

Ondorioz, ijitoen herriaren errealitatea zein den ulertzeko etniak eremu horietan guztietan bizi behar dituen egoera diskriminatzaileak oro har azaltzea ezinbestekoa iruditzen zait, aztertu beharreko kasutik aparte, badaude eta diskriminazioa gogor jasan eta aurrera ateratzeko zailtasunak dituzten eremuak. Gainera, aipatzekoa da eremu guztietan jasaten duten diskriminazio tipoek antzekotasun anitz izateaz gain, elkarreragina dutela beraien artean. Adibide bat jartzekotan, esan genezake etnia honetakoa izategatik hezkuntza xumeago bat jasan duen pertsona batek (irakasleek bere etniagatik ikasteko balio ez duela uste duelako adibidez, edo gurasoek dirurik izan ez eta ikasketekin jarraitu beharrean lanean hasi behar dutelako), askoz zailago izan dezakeela lana bilatzerako orduan. Lana aurkitu ezean, dirurik ez izateak berriz, eragin zuzena du etxebizitza duin bat izateko orduan, eta horrek osasunean kalteak suposa ditzake... Eta horrela hainbat eta hainbat kate sor genitzake, pentsatzen hasiz gero. Hori dela eta, ezinbesteko da ikuspegi globalago bat izatea, kasu isolatuez ari ez garela ikusteko.

Hots, errealitate horiek jasotzen dituzten datuak batzeaz gain, 2019an gertatutako kasu errealak ere aipatuko ditut, datuek gordinen transmititu dezaketen hoztasunak, errealitatetik urruntzea eragin baitezake eta, zerbait argi badut, bizi duten errealitate hori ahalik eta hoberen ulertarazi eta transmititu nahi dudala da.

## 1. Egoera sozioekonomikoan

Aurretik esan bezala, esan genezake Ijito Herriak Espainian bizi duen egoera sozioekonomikoa oso asaldagarria dela, eta hori oso argi ikus daiteke pobrezia larriko tasei erreparatuz gero. Espainian ijitoak diren eta egoera hori bizi behar duten pertsonak % 37,8 dira. Hori kontuan hartzekoa da beste biztanleekin alderatzen dugunean, izan ere % 6,5a da egoera hori bizitzen dabilena (horrek beraz, 31 puntuko aldea dagoela erakuts diezaguke).


Bestalde, pobrezia tasa moderatua bada kontuan hartzen duguna, esan genezake % 70 ijito direla egoera honetan bizi direnak (kasu honetan ere, beste biztanleekin alderatuz gero, jendartearen % 37,1 pertsona dira pobrezia moderatuan bizi behar dutenak) (Damonti & Arza, 2014).

Egoera, oraindik latzagoa da Europako datuak badira kontuan hartzen ditugunak, Europar Batasuneko Ezinbesteko Eskubideen Agentziaren aburuz, etnia ijitoen % 90en kasuan, familia nukleotara heltzen den diru sarrerak, herrialde bakoitzeko pobrezia tasa suposatzen duten sarrerak baitira. Gainera, datu horietatik % 40k azken hilabetean gosea pasa behar izan zuten ez baitzeukaten dirurik jana erosteko (EU-FRA. European Union Agency for Fundamental Rights, 2014b). Datu horietatik abiatuz, beraz, ez da harritzekoa pertsona horiek integrazio sozialerako eta garapen pertsonalerako behar beharrezkoak zaizkien osasun, hezkuntza, lan baldintza zein bizilekuak egokienak ez izatea. (Macías Aranda, 2017).

## 2. Lan-arloan

Lan-baldintzei edo lanari dagokionez, aipatzeko da 2013an langabezia tasa % 56,7koa zela (beste herritarrekin alderatuz gero, 23 puntu gehiago) (Damonti & Arza, 2014).

2. taula. Lan-arloa, biztanleria orokorrarekin alderatuz




Iturria: Fundación Secretariado Gitano, 2018

2018an esan genezake egoera hobetu egin dela, lan gabezia tasa % 29,48ra jaitsi baita ijitoen kasuan. Hala eta guztiz ere biztanleria orokorrarekin alderatuz gero, oraindik aldea oso handia dela ikus genezake. Lehenago egin ziren ikerketek aipatu zuten, jada lan-arloan gertatzen zen egoera hori, fokua ijitoekiko existitzen den formakuntza akademikoan eta lana bilatzerakoan, edo lanean zeuden bitartean jasan eta bizi behar zuten aurreiritzi eta estereotipoetan jarri zuten. Horien esanetan, faktore determinatzaileak ziren horiek biak lan merkatuko esklesioko egoera azaltzeko. Modu berean, 2005. urtean Ijitoen Fundazioko Sekretaritzak argitaratutako *Poblacion gitana y*

*Empleo: Un estudio comprobado* (FSG, 2005) txostenak frogatzen duen bezala, lan egiten duten eta etnia ijitokoak diren pertsonen lan prekarioetan egiten dute beraien jardunaldia eta baita hezkuntza prestakuntza gutxiago behar duten beharretan, izan ere, pertsona horien % 46,3a merkatuetako saltzailea da. Gainera, txosten honek dionez, lan egiten duten ijitoen % 42,3ak lanaldi laburrak ditu, eta berriz ere, Espainiako biztanleria bada kontuan hartzen duguna, lanaldi partziala dutenak % 14,1 dira. Hori gutxi balitz, pertsona horietako askok eta askok diskriminazioa jasan behar du lana lortzerakoan eta baita lanean diharduenean.

Ikus daitekeenez, lana lortzeko sentitzen duten arazoak ikasketa maila edo esperientzia maila baxuagokoak direla aipatzeaz aparte (hezkuntzan gai hori gehiago jorratuko dugu), sentitzen duten zailtasunik handiena, berauen baztertzean oinarritzen da.

3. taula. Ijitoek lana aurkitzerakoan dituzten arazoak (lan-arloa).



Iturria: Fundación Secretariado Gitano, 2018.

FSGk 2019an (FSG, 2019) atera duen txostenean egoera horien adibide anitz agertzen dira; hona hemen adibideren bat:

- Aipatuko dudana lehengo kasua Santiago de Compostelan gertatu zen zuzeneko diskriminazioaren adibidea dugu.

FSG enpresa pribatu batekin jarri zen harremanetan lan-prestakuntza jasotzen ari zen pertsona batek praktikak egin zitzaizkion. Enpresa honetako arduradunak, baina, FSGko partaideek bertan praktikak egiteko aukera ezeztatu zuen argudio hau

jarriz: “nire bezeroetako asko ijitoa da eta berauekin oso harreman ona du; haatik, bezero arrazista asko ere baditu eta ez dut berauekin arazorik izan nahi”.

FSGk egoera honetan egin zuen interbentzioa honakoa izan zen: Posta elektronikoz enpresa honekin harremanetan jarri zen entitate honek ijitoen komunitatearekin egiten duen lanaren inguruan sentibilizatu nahian. Hala eta guztiz ere, aurretiko joera sentikortzea zela uste bazuten ere, ez zen FSGrekin berriz ere harremanetan jarri.

- Bigarren kasua ere lan-arloan Malagan gertatutako zuzeneko diskriminazioaren adibide bat dugu. Horretan, FSGk etnia ijitoko pertsoneri eskaintzen dien enplegurako programan parte hartzen zuen pertsona batek lan-orientatzaileari enplegu arloan bizi zituen desberdintasun egoerak kontatu zizkion. Aparteko orduak egin eta horiek ordaintzen ez zituen bakarra zen eta, bere soldatari dagokionez, bere mailan zeudenak baino gutxiago ordaintzen zioten, are gehiago, kategoria gutxiago zuten pertsona baino gutxiago irabazten zuen. Mutil horrek bere nagusiari egoera hori injustua zela esan zionean, hau izan zen bere nagusiaren erantzuna: “egoera gogoko ez baduzu, badakizu non dagoen atea”. Mutila enpresa honetan lanean zebilen etnia ijitoko bakarra zen, eta bere lankideek jasotzen ez zuten tratua jasotzen zuela sentitzen zuen etnia ijitokoa izateagatik soilik. FSGk, beraz, egoera horien aurrean egin behar zituen informazio eta aholkuak eman zizkion pertsona horri, eta nagusiari esan behar zizkion argudioak ere azaldu zitzaizkion. Egoera guztiz aldatu ez den arren, hobetu zela azaltzen dute txostenean; izan ere, pertsona horren eskubideak ezagutarazteaz gain, eskubide horiek defendatzeko argudioak erabiltzeak egoera apur bat hobetzea eragin du.
- Jarriko dudan hurrengo adibidea Cácereseko arropa denda batean gertatu zen. Neska gazte batek bertan lan egiteko eskaintza-kartel bat ikusi zuen arropa denda batean, eta horren arabera, curriculuma utz zitekeela jartzen zuen. Beraz, lagun batekin sartu eta curriculuma ematea erabaki zuen, baina bertan lan egiten zebilen emakumeak ez uzteko esan zion, nagusiak ez baitzuen etnia ijitoko pertsona batek bertan lan egiterik nahi, askotan komunitate honek dendan lapurtu zuela esanik. Gero, nahi izanez gero, bertan utz zezakeela esan zion, baina nagusiak ikusi bezain laster apurtu egingo zuela esanik. Gazteak denda horretatik ihes egitea erabaki zuen. Hori horrela, berdintasuneko teknikariak neska elkarrizketatu eta egin zitzakeen jarduera legalei buruzko aholku eta informazioa jaso zuen. Horretaz aparte, berdintasuneko teknikaria denda horretara ere joan zen lan eskaintzak

oraindik bertan jarraitzen zuen ikusteko, eta ikusi zuenaren arabera, jada ez zegoen iragarkirik erakuslehoan, eta ez zuten curriculumik onartzen. Honen guztiaren emaitzari dagokionez, neskak ez zuen inongo jokabiderik aurrera eramanez nahi izan.

- Azkenik, lanean jasandako diskriminazioari dagokionez, Madrilen gertatutako kasu erreal batekin amaituko dut. Etnia ijitoko pertsona batek lana egiteko elkarrizketa egitea erabaki zuen burtsako agente gisa jarduteko. Gaztea enpresa horretan lan egiteko aukeratu zuten eta egun berean etnia ijitokoa ez zen gazte batekin batera hasi zen lanean. Lehenengo lau egunetan bi gazteak aritu ziren kontraturik gabe lanean beharrezkoa zitzaizen formakuntza jasotzen. Bosgarren egunean, alta egin zioten, eta aste bat igarotzean, kargudunak, bere lankideen aurrean nongoa zen galdetu zion, eta ea etnia ijitokoa bazen. Gazteak baietz erantzun eta hurrengo egunean arduradunak gazte horren bulegora deitu eta probaldia gainditu ez zuela esan zion (berekin lanean hasi zen eta salmenta kopuru bera lortu zituen gazteak enpresan jarraitzen zuen bitartean). Berdintasuneko teknikariak gaztea elkarrizketatu zuen beraz. Etnia ijitokoa izateagatik lanetik bota ziotela uste zuen gazteari, informazioa eta aholkularitza eman zitzaion, eta lan ikuskaritzan salaketa jartzeko aukera ere mahaigaineratu zitzaion. Gazteak bere familia-kideekin hitz egin behar zuela esan eta handik gutxira berriz ere honekin harremanetan jarri zirenean, bere amak telefonoa hartu eta biktimak salaketarik jarri nahi ez zuela helarazi zion teknikariari.

Europarekin alderatuz gero, 3tik 2 ijitok (% 66 pertsonak alegia) ez dute lanik, ordaindu gabeko lanetan egin behar dute lan, edo lan egiteko ezinduak dira (EU-FRA. European Union Agency for Fundamental Rights, 2014b).

### 3. Osasunean


Osasunari erreparatuz, 2014an egin zen “2014ko Ijitoaren Herriari Osasunari buruzko Bigarren Inkesta Nazionala”-k (Ministerio de Sanidad. Política Social e Igualdad, 2011) agerian utzi zuen, Espainiako gehiengo biztanleekin alderatuz, ijitoei osasunaren inguruko indikatzaile gehienetan emaitza okerragoak dituztela.

2006an egindako lehengo inkesta konparatiboan ikusi zen osasun arloan desberdintasunak zeudela ijitoen eta Espainiako beste herritarren artean. 2014an egindako bigarren inkesta honetan, baina, desberdintasun horiek jaitzi ez direla ikusi da, ez behintzat modu nabarian.




Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, ijitoen populazio tasa biztanleria orokorrarekin alderatuz gero, gazteez beteta dagoela ondoriozta daiteke, baina pertsona nagusien kasuan, asko jaisten da hori. Alderaketak pertsona nagusiek izan dezaketen osasun falta nabaria dela erakusten du ijitoen kasuan.

4. taula. Ijito Herria eta biztanleria orokorra ehunekoetan.



Iturria: Fundación Secretariado Gitano, 2018

5. taula. Ijito Herriaren populazioa generoko (ehunekoetan).



Iturria: Fundación Secretariado Gitano, 2018

Gainera, esan beharra dago, Ijito Herriko pertsona gehiagoak nozitzen duela gizentasun eta gehiegizko pisua Espainiako gehienezko biztanleekin alderatuz. Horretaz aparte, haurren heriotza tasa askoz altuagoa da media nazionalarekin alderatzen badugu, eta bizi-esperantza 8 edo 9 urte beheragokoa da ere (gainera, esan daiteke, egoera marjinaletan bizi direnen bizi-esperantza hori are gehiago jaisten dela eta 10 urte gutxiagoko aldea aurreikusten dela kasu horietan gutxi gora-behera). Hori dela eta, adituek osasunaren

bazterketa Ijitoen Herrian gehiegiarekin alderatuz hiru aldiz handiagoa dela esaten dute (Damonti & Arza, 2014). Aurrerago esan bezala, osasun zentroetan gerta daitekeen diskriminazio zuzena ez da hain nabaria. Egia esan etnia ijitoko pertsonak ere ez dute eremu honetan diskriminazio zuzenik gertatzen dela nozitzen, beraz, modu ez zuzenean jasan behar duten diskriminazioak osasunean izan dezakeen eragina da gehiago jasan behar eta gaur egungo egoera hori eragiten duena (Macías Aranda, 2017).

Hala eta guztiz ere, badaude diskriminazio zuzeneko kasuak ere, eta FSGk 2019ko txostenean argitaratutako kasu asaldagarri bat dugu adibide. Almerian gertatu zen orain azalduko dudako kasua. Sindrome nefritiko baten erruz, etnia ijitoko ume bat hil zen Almeriako ospitalean. Gurasoek FSGri azaldu ziotenaren arabera, gurasoei ospitaleko medikuak jarraian umea hil zela jakinarazi beharreak, hori ezkutatzea erabaki zuen, eta umea ondo zegoela esan zioten, poliziari deitzen zebilen bitartean (etnia ijitoko familia zenez, istiluak gertatuko zirela aurreikusitako baitzuen). Beraz, medikuak egia esan ziotenean, 20 polizia zeuden familia inguratzen. Egoera jasanezin hori nozitu behar zuten pertsonak FSGra joatea erabaki zuten, hilabete batzuk pasatu zirenean. Aitari eta amari elkarrizketa oso sakona egin eta testiguak entzun ostean, (familia horren ingurukoak ez ziren pertsonak hain zuzen) egitateak egia zirela ikusi zen. Zituzten eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza jaso zuten horiek ere, eta familiak erabakiren bat hartzeko denbora beharko zutela azaldu zien FSGko teknikariari. Azkenean kasua itxi behar izan zuten FSGko langileek familia honekin izandako kontaktua egun horretan egindako elkarrizketa baino ez baitzen izan, eta eman zioten telefonora hainbat alditan deitu bazuten ere, ezin izan zuten berauekin kontaktatu. Ez dira berriz FSGko bulegora bueltatu eta ez dira gehiago horiekin kontaktuan jarri.

#### 4. Etxebizitzan

Bizilekuaren eskklusio egoerari dagokionez ere badugu esatekoa, izan ere hiru kontu ditugu aztertzeko. Alde batetik, etxebizitzan segregazioa; bestetik, etxebizitza bilatzeko zailtasunak, eta azkenik, bizitzeko baldintzekin izan ditzaketen arazoak (Macías Aranda, 2017).

Doktoretza honetan aztertu denez, etxe bizitzen segregazioarekin hasiz, oraindik ere etnia ijitoko pertsonak txaboletan bizi direla esan daitekeen arren, pertsona horien % 3,9 baino ez direla esan genezake. Segregazioaren arazoa gaur egun zera da: familia asko eta askok

oso kaskagarri dauden herri-testuinguruetan bizi behar dutela, hau da, interkonexioarekin arazoak izanzen dituzten lekuetan. Hori horrela izanik zerbitzu faltak dituzten lekuetan bizi direla esan daiteke, baita osasunarentzako kaltegarriak izan daitezkeen lekuetan, eta intsegritatea protagonistatzat duten lekuetan (Damonti & Arza, 2014); (FSG, 2007); Ministerio de Sanidad. Política Social e Igualdad, 2011). Gainera, aipatzekoa da babes ofizialeko etxebizitzek aurreikusten dituzten baldintzen artean, hainbat eta hainbat zama aurkitzen dituztela, lan formalik ez izatearren, adibidez. Bestalde, etxebizitzaren merkatu libreko sartzeak ez die ez onik egiten jasan behar duten eta aipatu bezala jendartean hain hedatua dagoen jarrera eta estereotipo eta aurreiritzi diskriminatzaileak direla eta. FSGk etxebizitzak alokatzeko dituzten zailtasunen hainbat eta hainbat kasu ditu (FSG, 2019), hala nola:

- Lehengo adibidea Santiago de Compostelan gertatutakoa dugu. Langile sozial bat FSGrekin jarri zen kontaktuan, etnia ijitoko familia batek etxebizitzaren bat alokatzeko zituzten zailtasunak agerian uzteko. Langile sozialaren ustez, edozein traba jartzen zitzaion etnia ijitoko familia gisa antzematen zutenean eta higiezinaren agentzia batzuetan modu honetako gogoetak egiten zizkieten: “etxebizitza honetako ugazabek ez diote etnia ijitoko pertsoneri alokatu nahi”. Noizbait, etxe-agentziako langilea, familia ikusi ostean, giltzak aurkitu ez eta erakutsi ezingo zuela esatera ere iritsi izan da. Beste egoera batean “hemen ijitorik ez” bezalako esaldiak ere egin dizkiote, eta langile sozialari “sar zaitezte zuen etxean” ere esan diote noizbait. Langilea zer egin zezaketen galdetzeko jarri zen FSGrekin harremanetan, eta beraz, etxebizitzara sartzeko zituzten eskubideak zeintzuk diren, eta sartzen uzten ez ziotenean frogak nola jaso behar zituzten azaldu zizkien honi eta baita familiari ere. Langile sozialari familia akonpainamendua egitea ere proposatu zitzaion. Honek, Udaletxeari txosten bat bidaliko ziola esan zien, diru gutxi irabazten duten pertsonen etxebizitza alokatzeko duten zailtasunaren berri emateko. Modu berean, FSGk testing bat ere egin zuen telefonoz, diru sarrera gutxi duten eta etnia ijitokoak diren pertsonen etxebizitza alokatzeko dituzten zailtasunak oso handiak zirela frogatu zen.
- Bigarren kasua ere Santiago de Compostelan gertatu zen diskriminazio zuzenaren adibide dugu. FSGko parte hartzaile bat interesatzen zitzaion etxebizitza baten jabetun batekin jarri zen kontaktuan sare sozial baten bitartez.

Parte hartzailea eta bere emaztea (hori ere etnia ijitokoa) gelditu ziren lekura iritsi zirenean jabedunak zera esan zioten “auzo honetan ez dugu zuen moduko pertsonarik nahi, ez dugu arazorik nahi”. Berdintasun-teknikariarekin jarri zen harremanetan eta berriz ere zuten eskubideei buruz informatu eta jabedunaren telefono zenbakia eskatu zioten, beraiek FSGtik egin zezaketena egitekotan. Hala eta guztiz ere, parte hartzailearekin hainbat eta hainbat aldiz hitz egin eta gero, ezin izan ziren berriz etxebizitza alokatzen zuen pertsonarekin harremanean jarri, honek ez baitzuen ugazabaren telefono zenbakia aurkitzen, eta interneten eskegita zegoen iragarkia ezabatu baitzuten. Beraz, FSGk ezin izan zuen ezer egin.

Baina etxebizitzaren materia honetan jasan behar duten egoerarik larriena bizitzeko behar dituzten baldintzen ezegokitasuna da. Osasun Ministerioak esaten zuen bezala (Ministerio de Sanidad. Política Social e Igualdad, 2011), ijitoak bizi diren etxebizitzaren % 60ak arazo horiek izaten dituzte: bertan bizi behar duten pertsonen pilaketa (hirutik behintzat kasu batek jasan behar duena), itogin, hezetasun... arazoak, beharrezkoak diren ondasun jakinen falta (adibidez ur beroaren falta) eta baita inguruan beharrezkoak diren ekipamendu faltak (zakarren batzea adibidez).

Berriz ere Europa osoa bada kontuan hartzen duguna, materia honetan dituzten arazoak ere oso larritzekoak direla ikus genezake. Ijitoak bizi diren etxe gehienetan (guztietan gauza bera gertatzen dela ez esateagatik) logela berean gutxienez bi pertsona bizi direla ikertu da, eta kasu horietatik % 45 familiari etxebizitzarako beharrezkoak diren zerbitzu minimoak falta zaizkie (barneko sukaldea, dutxa, komunak eta elektrizitatea hain zuzen) (EU-FRA. European Union Agency for Fundamental Rights, 2012).

## 5. Hezkuntza

Hezkuntzari dagokionez, lehenik eta behin aipatzekoa da hartzaindegian eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntza onura dezente izan direla. Izan ere egin diren ikerketen arabera, 1994. urtetik 2010. urtera arte, asko handitu izan da etnia honetako umeen hezkuntza sarrera (% 87 ume dira hartzaindegiko hezkuntza jaso eta gero Derrigorrezko Lehen hezkuntza egin dutenak) (FSG, 2010). Lehen Hezkuntzako datuen arabera, ume ijitoen eskolaratzea oso normalizatua dago jada, abstentzioa eta utzikeria goiztiarra oraindik oso altua bada ere. Hori, okerragoa da Bigarren Derrigorrezko Hezkuntzari erreparatzen badiogu, (Ministerio de Sanidad. Política Social e Igualdad, 2011), kasu

horietan ijitoak diren % 64 ikaslek ez baitute ikasketa horiek bukatzen, eta Espainiako datu orokorrean helduz gero, oso desberdintasun nabaria dago orokorrean (% 13ak baino ez baititu ikasketa horiek uzten) (Macías Aranda, 2017).

Baina nola ez dute ikasketa prozesua alde batera utziko bada, umeez berdinen artean etnia ijitoko hainbat pertsona diskriminatzen badute, edo irakasleek etnia ijitoko pertsonak ikasteko balio ez dutela uste badute? Egia da hezkuntza arloan, lehen aipatu den bezala nozitzen duten zuzeneko diskriminazioa ez dela hain nabaria, baina egon badago eta oraintsu azalduko ditudan bi kasuek ondo adierazten dute hori (FSG, 2019):

- Donostiako ikastetxe batean zuzeneko diskriminazioa gertatzen zen jantokietan etnia ijitokoak ziren eta etnia ijitokoak ez ziren pertsonak mahai desberdinetan jartzen baitzituzten. Honek, umeen arteko segregazioa zekarren indarrean eta etnia ijitokoak ziren pertsonak (eta alderantziz) beste taldearekin harremantzeko zailtasunak ezartzen zituen jantokian. Umeez desberdintasun horiek nabaritzeak hainbat ondorio ekar ditzake, berauen artean taldekatze honek desberdintasun izugarri bat ezartzen baitu beraien artean. Funtsean diskriminazio etnikoa dakarren segregazio horren aurrean irakaskuntza zentroarekin jarri zen harremanetan FSG. Zentroak akats hori oso larria zela onartu zuen eta egiteari utzi zion. Gaur egun etnia ijitokoak diren zein etnia ijitokoak ez diren pertsonak batera jaten dute; hortaz, FSGk egindako interbentzioa positibotzat hartzen du, zentroarekin harremanetan jarri eta haserre zeudela erakusteko etniaren egoera hobetzea ekarri zuela ulertzen baitute.
- Hurrengo kasu erreala Cáceresen gertatutako zuzeneko diskriminazioaren adibide du. FSGko parte hartzaile batek, adin txikiko alaba hezkuntza zentrotik jasotzen zebilenean negarrez zebilen emakume batekin egin zuen topo. Beste familia batzuei, zuzendariarekin izandako bilera kontatzen ari zen, izan ere hezkuntzako buru honek zerak esan zizkion: “azken finean, zure semeak ez du ikasketarik burutuko” etnia ijitoko pertsonak ikasketak burutzen jarraitzen ez zutelakoan egonik.

Emakumeak zioenaren arabera, zuzendariarekin hitzartu zen bere semearekin beste ikasle batzuek *bullyinga* egiten baitzioten etnia ijitoko pertsona bat zelako soilik. Kontatzen ari zitzaizkien pertsonak, ez zitoten emakume honi jaramonik egiten. Beraz, parte hartzailea pertsona honi hurbildu zitzaion, eta eskubideen inguruko

formakuntza jasotzeaz gain, diskriminazioaren kontrako jardunaldietan ere parte hartu zuenez, emakumeari FSGra joan zitekeela esan zion, Diskriminazio Biktimen Atentzio Zerbitzua baitzeukaten. Era berean, FSG emakume honekin ere jarri zen kontaktuan eta, aholkuak emateaz gain, horren aurrean esku hartzeko zer egin zezakeen ere esan zioten. Haatik, emakumea ez zen FSGk emandako hitzorduan agertu, eta ez zuen jarduketa judizialik aurrera eraman nahi izan.

Bestalde, herri honetako analfabetismo-tasak behera egin badu ere, tasa horiek oraindik oso altuak dira datu orokorrak hartzen baditugu. Horratik, beharrezko ikasketak burutzerakoan jaso dezaketen ikasketak dira egiatan desberdintasun handiena erakusten dutenak. Adibidez, batxilergoko ikasketei erreparatzen badiegu, ijitoen % 8,1ak baino ez ditu burutzen, eta orokorrean gazteen % 26,9ak burutzen dituzte ikasketa horiek. Unibertsitateko ikasketetan desberdintasuna nabarmenagoa da, etnia ijitoko pertsonen % 0,3-2,3-k baino ez baitute lortu unibertsitateko lizentziatura, adibidez. Beraz, Ijito Herriko 3 pertsonak unibertsitateko graduiko titulazioa lortu duten bitartean, ijitoak ez diren 276 pertsonak lortu dute ikasketa maila bera. Agerian dago, hots, desberdintasuna.

Emandako datu horiez gain, hezkuntzan nabariak diren desberdintasunei buruz hitz egitea ere behar beharrezkoa zait. Maila gutxiko hezkuntza zentroko segregazioari buruz ari natzaizue, “geto-zentro” deritzogun horiei buruz hain zuzen. Bestalde, zentro askotan ere ikasle horiek maila baxuagoa eskatzen duten klaseetara ere segregatzen dituzte. Hori, oso loturik dago landu beharko lituzketen ikasketak ez lantzearekin eta aipatzeko da maila baxuagoa eskatzen duten ikasketen kasuetan, abandonua asko handitzen dela.

## 6. Komunikabideetan

Azaldutako kasuez aparte, komunikabideek erabiltzen dituzten elementu diskriminatzaileak CISek berak batu ez baditu ere, kasuren bat aurkeztea ezinbestekoa egiten zait, *agenda setting* eta *framingaren* bidez jendarteak pentsatzeko moduan ezinbesteko eragina baitute. Komunikabideek zein kasuri buruz hitz egin eta nola hitz egin behar dugun erabakitzen duten heinean, badu jendarteak dituen aurreiritzi eta estereotipoen sortze eta mantentzean eragina (nire ustez zuzena izan daitekeena, baina ezinbestean zeharkakoa dena) eta honek komunitate honi ez dio inondik inora laguntzen (ez behintzat estereotipoetatik abiatzen diren notiziak baldin badira ateratzen dituztenak).

Azalduko dudan adibideari dagokionez, honako horiek izan ziren notizia gertatutako egitateak: 2018ko urtarrilean, *La Voz de Galicia* bi berri argitaratu zituen familia biren artean gertatu zen borroka batengatik, estigmatizaziotik abiatutako hitzak erabiliz, hala nola, erbesteratzea, istilu, aitalehen...

FSGk dioenaren arabera (FSG, 2019), istilu baten inguruko tratu informatibo sentsazionalista eta morbosoa erabili zuten, inplikaturik zeuden pertsonak irigarri utziz. Praxi txarreko egitate horiek irakurle jakin batzuk egin zuten gorroto iruzkinetan ikus zitezkeen.

- Ez ditugu hurbil izan nahi. Inork ez ditu ijitoak auzokide gisa izan nahi.
- Guztiak erbestera eta Espainiatik alde egiteko gonbita ezartzen diegu.
- Guztiok dakigu (poliziengatik eta sententzian judizialengatik) zer egiten duten pertsona hauek.
- [...]

FSGk eskutitz bat idatzi zion komunikabide horri, foku sentsazionalista horiek ijito etniari egiten zizkion kalteak azalduz. Erantzuna erdi positiboa izan zela adierazi zuten, bi notizien erredakzioa aldatu ez bazen ere, ijitoen etniakoak zirela azaltzen zuten notizia horietako bat zuzendu baitzen<sup>11</sup>.

Beste notizietako bat ere zuzeneko diskriminazioaren adibide dugu. Egitateen arabera, *Caso aislado* eguneroko digitalak (FSGren aburuz talde jakin batzuen izena belzteko notiziak ateratzen dituen komunikabide legez ezagutzen denak) poliziaren kontrako jarduera bortitzen gertakariak azaleratu zituen, nola ez, ijito etniako pertsonak izan zirela leporatuz: “Hainbat ijitok herriko poliziei jipoi galanta eman diete Linaresen eta ospitale baten gainera etorri dira klaneko pertsona bat askatzeko”. Kasu honetan ere, gutun bat bidali zitzaion etniako pertsonen azaleratzearen praxi txarra azaltzekotan. Komunikabideak honako erantzuna eman zuten:

Delitu bat gauzatu duten pertsonen etnia edo nazionalitatea ez da inondik inora praxi txarra. Notizia editatuko dugu gutunean aipatu dituzuen esaldi batzuk aldatuz, baina ez dugu isilean gordeko etnia horretakoak direnik, gure irakurleek datuak ez ezkutatzea eskertzen baitute, komunikabide nagusiek ezkututzen dituztenak hala nola. Agur bat”. Beraz, jasotako

---

<sup>11</sup> Mahía, A. (2018, enero 16). Jeremías Barrul: «Lo siento, me equivoqué, no volverá a ocurrir». La Voz de Galicia website: [https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/coruna/2018/01/16/jeremias-barrul-siento-me-equivoque-volvera-ocurrir/0003\\_201801H16C6992.htm](https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/coruna/2018/01/16/jeremias-barrul-siento-me-equivoque-volvera-ocurrir/0003_201801H16C6992.htm)

erantzuna negatiboa izan zen, notiziak etnia aipatzen jarraitu baitzuen, eta gainera, komunikabideak aipamen horiek egitea diskriminatzaile ez zela esan baitzuen<sup>12</sup>.

## 7. Diskriminazio intertseksionala

FSGk batu ditu diskriminazio intertseksionaleko kasuak baita. Ijito emakumeek nozitzen duten diskriminazioa, intertseksioala dela kontsideratzeko FSGk horren inguruko txosten bat publikatu zuen. Horien arabera, emakume ijito asko supermerkatuetan diskriminatua izaten dira, izan ere, askotan dendariak zelatatu eta jarraitu egiten dute, proiektatzen duten ijitoen inguruko genero estereotipoaren ondorioz: “emakume ijitoek lapurretak egiten dituzte”.

Segurtasunean jarduten duten pertsonak askotan emakume ijitoak zelatzeko agindu zehatza dute. Honek arazoak dakartza erosketak egin behar dituzten emakume ijito askok ezin baititzake produktuak erosi eragotziak izan gabe. Honetaz aparte, iraingarriak diren kontrolak egiten dizkiote publikoan (poltsa irekitzea eskatzeko probabilitate handiagoak izan ditzakete adibidez). Baina zergatik gertatzen da hori? Aipatu bezala emakume ijitoen inguruko genero estereotipo kasuak existitzen jarraitzen dutelako. Emakume ijitoek osteko beharrezana dutela uste dute, guztiek berauen familia zaintzeko kargua dutela pentsatzen. Gainera, emakume ijitoak marjinazioarekin batzen dituzte, lanik egin ezin dezaketen pertsona moduan, independenteak ez diren pertsona legez eta etxean soilik jarduteko beharrezana duten pertsona legez. Etxetik kanpo, bizirik izan ez eta etxean zein kalean inongo autonomiarik izango ez balute bezala.

FSGren hitzetan, intertseksionalitatea gertatzen dela konprobatzeko, galdera batzuk egin behar dizkiogu gure buruari: Gizonezkoa den ijitoa izango balitz, diskriminazio bera bizi behar izango luke? Diferentzia traturik existitzen al da objektiboki edo arrazionalki justifikatu ezin daitekeena? Zeintzuk dira tratu desberdintasun horiek?

FSGren hitzetan, gizon ijito bat denda batean zelatatzen dutenean, ez dute emakumeak zelatatzen dituzten arrazoi berengatik egiten, emakumeari lehen aipatutako funtzio zehatz horiek ezartzen baitzaizkio. Gainera, ijitoek orokorrean jasaten duten diskriminazio

---

<sup>12</sup> Nieto, E. (2018, abril 30). 70 gitanos propinan una brutal paliza a varios policías en Linares e intentan asaltar un hospital para liberar a un miembro del clan. Caso Aislado website: <https://casoaislado.com/numerosos-gitanos-propinan-una-brutal-paliza-varios-policias-linares-e-intentan-asaltar-hospital-liberar-miembro-del-clan/>



kasuak emakume eta gizonekin alderatuz gero, desberdintasuna oso nabaria dela esaten dute. Bestetik, ijitoak ez diren emakumeak ere aztertuz, ikus daiteke horiek ez dituztela zelatatzen ezta, ez baitute uste emakume horiek lapurretarik gauza dezaketenik (ez dago horiekiko uste hori). Hortaz, esan bezala, segurtasuneko langileek, ez dute gizonezkoak diren eta ijitoak diren horiei zelatatzekeo agindurik, ezta emakumezkoak zelatatzekeorik, emakume ijitoak zelatatzekeo baizik.

FSGk 2019an jasotako kasua Zaragozan gertatu zen. Etnia ijitoko emakumea zen orain kontatuko dudan egitateen biktima izan zena. Bere lagun batetik joan zen arropa denda batera, jaki bat erosteko asmoz. Sartu bezain pronto, bertan lan egiten zutenek gaizki begiratzen ziotela ikusi zuten eta handik gutxira emakumea iraintzeari ekin zioten. Dendan osten zenbiltzatela salatu zuten, dendan horiek atxilotuz (ihes egin ez zezaten) eta poliziari deitu zioten. Polizia helduan besotik heldu zituzten eta dendako atzealdera bideratu zituzten. Poliziak dendariei zer gertatu zen galdetu zioten eta biktimen esanetan gezurrak esateari ekin zioten, oldarkor jarri zirela esanik. Biktimetako bat beraz, entitate honekin jarri zen harremanetan eta gertatutako guztia kontatu zuen.

Hortaz, biktimarekin elkarrizketa izan zuen FSGko teknikariak. Horretaz aparte, testigu izan zen beste pertsona batek ere, gertatutako kontatu zuen, biktimaren alde jarritz. Hori dela eta, berriz ere zituen eskubideak azaldu eta behar zuen aholkularitza jaso ostean, biktimaren erantzunaren zain gelditu zen FSGko teknikaria. Haatik, hori guztia eta gero, behin eta berriz deitu zitzaion arren, ez zuen telefonoa eseki eta entitatea ezin izan da berriz ere biktimarekin harremanetan jarri.

Marko teorikoan aipatu bezalaxe, kasu horiek ezin daitezke azaldu arrazakeriaren edo sexismoaren botere-harremanek sortzen dituzten diskriminazioen baturarekin, emakume horiek nozitzen duten egoera, bi diskriminazioen batura baino larriagoa baita, eta hori diskriminazio intertekzionalak baino ezin dezake azaldu.

## VI. PUBLIKOARENTZAT IREKITA DAUDEN EREMUE TAN: KASUAREKIN LOT DAITEKEEN DISKRIMINAZIOA

### A. SOS Arrazakeriak egindako Testing-a

#### 1. Zer da eta zertarako erabiltzen da testing-a?

SOS Arrazakeriak, zerbitzu publiko eta pribatuetan sartzeko eskubidearen inguruan egindako testing-a froga enpiriko moduan uler daiteke. Honetan pertsona edo talde desberdinek zerbitzu horietan sartzean izan dezaketen tratu desberdina ikertu nahi zen, diskriminazioz jarduten zela frogatzeko.

Orokorrean, soziologian zeharkako diskriminazioa jasaten duten pertsonen egoera ulertzeko, testing-a erreminta egokia izan daiteke, bi talde banatu eta horien arteko desberdintasun estatistikoak ateratzeko. Sortutako bi taldeak klase desberdinetan banatu ziren: A (klase dominatzaile edo gehiengoko talde horretako partaideak, kontrol taldea) eta B (Tradizionalki baztertuak izan diren pertsonen osatutako taldea edo gutxiengo parte diren horiena, talde esperimentalak). Bi klaseen desberdintasun hori etniaren arabera izatea erabaki zen, izan ere eremu horretan B talde horrek zeharkako diskriminazioa arrazoi arrazistengatik jasaten zuenez konprobatu nahi zen.

Bi taldeen artean, desberdintasun bakarra hori zen, maila profesional berekoak izanik bi taldeetako kide guztiak, genero eta adin berekoak, janzteko modua ere kontrolatuko zen. Horren arrazoia azaltzeko oso erraza da: talde guztiek ezaugarri berak izanik (etnia berekoak ez diren ezaugarri susmagarriez aparte), tratu desberdintasunik jasaten bazuten, ezaugarri susmagarri horrek baino ezin zezakeen azaldu, horrela arrazakeria justifikatuz.

Laburbilduz, zerbitzu publikoetara sartzeko egin zen testing teknikak, froga enpiriko legez jardun dezake, ezaugarri berak dituzten pertsona desberdinen artean tratu desberdintasunik zegoela ikusten bazen, ezaugarri susmagarri horiengatik baino ezin baita azaldu.

Frantzian mota honetako test bat egin zen momentura arte oso gutxi aztertu zen gai baten inguruan, hau da, lana lortzerakoan fisikoak duen eraginean. Bi hautagai ziren, ikasketa

eta esperientzia maila berekoak, baina bata beste baino erakargarriagoa zen. Gutxienez hautagaietako bat konbokatu zuten elkarrizketetan, pertsona erakargarriak egoera faboragarriagoak izan zituen (% 42 elkarrizketetan). Besteak berriz, % 16an soilik. Tasa diferentzial handi horren ondorioz, diskriminazioa existitu izan zela ondorioztatu zen.

Testing-ek kritika anitz jaso dituzte, batez ere eremu judizialean. Hortaz, ezinbestekoa zen honetan parte hartzen zutenek diskriminazio jarrerarik ez sorraraztea, eta emaitza jakin bat bilatzen ez zebiltzala adieraztea. Horretarako, ikerketa hori egingo ez balute ere, emaitza bera izango litzatekeela ikustarazteko kontuan hartu behar izan ziren, elementu jakin batzuk auzitegiek test hori onartzeko, zorrotasun metodologikoa ezinbestekoa izaten da eta.

## 2. Testing-aren metodologia

Testing-a burutzeko egindako lanak, leku desberdinetan egin diren SOS Arrazakeriaren eta partaideen arteko koordinazio bileretan laburbil daitezke. Gainera, Zuzenbideko adar desberdinetako EHUko irakasleekin ere batzarrak egin dira (hiru zehatz-mehatz), testing-a prestatu eta auzi estrategiko posibleak burutzeko, hain zuzen Zigor Zuzenbideko irakaslea den Jon Mirena Landa Gorostizarekin, Zuzenbide Prozesaleko Patxi Etxeberria Guridi irakaslearekin eta Clara Asua Gonzalez Zuzenbide Zibileko irakaslearekin.

Batzar horiei esker, testing-a bi momentu desberdinetan egitea erabaki zen. Galizian, Gipuzkoan, Aragoien Madrilen eta Katalunian 2014ko ekainaren 7 eta 8an eta Bizkaian eta Asturiasen berriz azaroan.

Talde guztiak bi mutilek bereizten zituzten. Lau talde egin ziren, magrebtar biko taldea, Saharaz Hegoaldeko bi pertsonen taldea, bi latinoamerikarrek osatutakoa eta ezaugarri europarrak zituen bi pertsonen osatutakoak hain zuzen. Testing-a burutzerakoan taldeak berak izan ziren Madrilen eta Bartzelonan izan ezik. Madrilen, ezin izan zirenez aurretiaz ezarritako betekizun guztiak bete, betekizun horiek betetzen ez zituen kasuak ez sartzea erabaki zen. Bartzelonan berriz, Ijito Herriko bikote bat ere jartzea erabaki zen.

Hori azaldu eta gero, kontuan hartu behar izan ziren betekizunak ere azalduko ditut, testing-a ahalik eta objektiboen egiteko kontuan hartu behar izan zirenak hain zuzen.

**Lokalen aukeraketa:** aurretiaz egindako batzarrean, hiri bakoitzean behintzat momentu hartan modan zeuden hiru diskoteka aukeratu behar zirela erabaki zen, eta horiek

sartzeko kontrola izan behar zuten. Gainera, ezin zitekeen aukeratu lehenago jarrera diskriminatzailea izan eta hori egiten zutela ezagutzen zuten lokalik, diskriminazioa ez eragiteko arriskua ekiditeko.

**Janzkera:** parte-hartzaileek ezin zezaketen kirol-oinetakorik eraman, ezta begi-babesik. Horretaz aparte, ezin zitekeen etnia desberdineko osagarri markagarririk erabili. Erreferentziazko bikote autoktonoa eta beste bikoteak ahalik eta gehien homogeneizatu behar baitziren.

**Grabatzaileak:** taldeetako partaide bakoitzak grabagailu bat zeraman. Garrantzitsua da aipatzea honek baliagarritasun juridikoa izateko, sartzen ez uzteagatik sortu zitekeen eztabaidan aktibatu behar zela grabagailua, ez lehenago. Frogaren garapenerako berriz, honako gidoia prestatu zen.

- Lehenik eta behin diskriminatuak izan zitezkeen eta autoktonoen artean, ezagutzen ez diren moduan jardun behar zuten. Jende kopuruaren arabera, bikote bat sartzen denetik bestea sartu arte 2-3 minutuko desberdintasuna behar zen.
- Testiguak, zaintzaileetatik hurbil egon behar zuten, disimulatzeko beharrezkoa zen distantzia errespetatuz, baina zer esaten duten entzuteko beste.
- Sartzen uzten bazen, normaltasun guztiz sartu behar ziren partaideak. Froga bakoitzean 10-15 minutuko denbora tartea eman zitzaien partaideei, frogan denbora tartea doitzeko. Diskoteka horretan, beste partaideren batekin topo eginez gero, ezagutzen ez diren itxurak egin behar zituzten elkarren artean. Irteerak ere mailakatuak izan behar zuten, sartzeko behar zuten ordena errespetatuz. Hurrengo establezimendurako bidean ere topo egitea ekidin behar zen, ondorengo lokalera sartzeko mailaketa bera jarraitzeko erraztasuna izateko.
- Sartzen uzten ez bazieten, edukazioz zergatia galdetu behar zieten. Oso garrantzitsua zen momentu honetan eztabaidatzen ez hastea, garrasirik ez egitea... Grabatzailea, esan bezala, lokalera sartzen ahalegintzean jarri behar zen martxan, ez lehenago. Sartzen uzten ez duen atezainak, esplizituki bikotearen jatorriagatik zela esaten bazien, jarraian alde egin behar zuten. Atezainarekin izan behar zuten elkarrizketa, sartzen ez uzteko arrazoiak zeintzuk ziren ezagutzeko baino ez zen. Azken lokala bada, erreklamazio orria eska zezaketen. Erreklamazio orri hori ematen ez bazen, polizia munizipalei deitzeko aukera ematen zitzaien partaideei.

Oso garrantzitsua zen hori egitea erabakitzen bazuten, guztia entzun zezakeen testigua bertan egotea.

- Koordinatzen duen pertsonak, urrunago, hori guztia ikusi behar zuen eta xehetasunak, orduak... jaso behar zituen. Testing-a egiterakoan, koordinatzaileak erdietsi horiek apuntatu behar zituen (heldu diren ordua, testiguaren posizioa, diskotekaren izena, zenbat zaintzaile zeuden, izandako elkarrizketa...).
- Hortaz, emaitzak koordinatzaileari eman behar zizkioten gaur horretan bertan.

### 3. Testing-aren emaitzak

Azkenean 33 lokaletan egin zuten ikerketa, lehen aipatu dudanez, Madrilgo datuak ezin izan baitziren kontuan hartu. Orokorrean % 45 lokalek tratu desberdina izan zuten talde autoktono eta talde esperimentalarekin alderatuz. 33 lokal horietatik 15etan tratu diskriminatzaileak gauzatu ziren. Horietatik 9tan sarrera ezeztatu zitzairen zuzenean talde esperimentalari, eta beste 6tan kontrol bikoteari eskatu ez zitzaizkion baldintzak eskatu zitzairen talde esperimentalari.

6. taula. Testing-aren emaitzak.

Sarrera ukazioaren maiztasuna		Beste era bateko tratu desberdintasuna (*)									
(*) Adibidez, diru sarrerak ordaintzera behartu.											
<b>A Coruña (5)</b>		<b>Donostia (4)</b>		<b>Zaragoza (9)</b>		<b>Bartzelona (5)</b>		<b>Oviedo<sup>1</sup> (5)</b>		<b>Bilbo (5)</b>	
2	1	1	1	1	1	3	1	-	-	2	2

Iturria: SOS Arrazakeria, 2014.

Sartzen ez uzteko arrazoiei erreparatuz, lokaletako batak ere ez zuen argumentu legez taldearen etnia modu esplizitu batean adierazi. Bestalde, zaindarien jartzen zuten aitzakiak lokaletan nahiko antzekoak zirela ere ondorioztatu zuten. A Coruña edo Donostian arrazoa jai pribatu batean zeudela izan zen, bikote autoktonoari halako aitzakiarik jarri ez ziotelarik, eta sartzeko arazorik izan ez zutelarik. Zaragozan, talde esperimentalari baino ez zitzaion exijitu sarrera ordaintzea.

Horriatik, gehien erabiltzen den aitzakia gonbita baten bidezko zerrenda existitzen dela esatea da. Bartzelonan sartzen ez uzteko argudia hori izan zen hiru kasuetan; A Coruña argudio horrez gain eta jai pribatuak zirela esan zieten talde esperimentaleko kideei (Federación de Asociaciones de SOS Racismo, 2014).

## B. FSGk txostenean publikatutako kasuak

Hortaz, oraintsu aipatutako diskriminazio-objektiboari dagokionez, aztertzen nabilen kasua aparteko egoera bat ez dela ikusteak, eta hautematen duten diskriminazio-egoerarik larrienetakoa izateak, antzekoak diren hainbat adibide jartzera bideratzen nau. Hainbat eta hainbat dira FSGk publikoarentzat irekita dauden enpresek etnia ijitokoak diren pertsonak ez sartzeko erabakia hartu duten kasuak, edo etnia ijitokoa izateagatik desberdin tratatu dituztenak.

Horren adibide dugu Valladoliden taberna bateko buruak gauzatutako diskriminazio zuzena. Calí Programan parte hartzen zuen emakume bat Valladolideko taberna batean sartu zen bere senarrarekin (biak etnia ijitokoak). Tabernako ugazaba beraiengana hurbildu zen eta zera esan zien: “zuek ezin zarete sartu, joan zaitezte zuen lekura”. Beraz, horiek beraien lekua zein den galdetu eta honakoa erantzun zien: “joan zaitezte antzarrak ferratzera”. Calíko parte hartzaileak, bere eskubideen inguruko jardunaldi batean parte hartu zuenak, erreklamazio-orria eskatu zion eta honek ez zion orririk eman; hori dela eta, udaleko poliziarri deitu zioten segituan eta egitateak kontatu zizkion.

Polizia taberna horretara joan zen beraz, eta tabernako nagusiarekin hitz egin eta gero, honek erreklamazio-orririk emango ez ziela esan zien, inongo azalpenik eman gabe. Beraz, poliziak bikotea erreklamazio-orria eskatzen zebilela esan zion jabeari, eta honek zera erantzun zuen: “lege baten arabera, nik erreklamazio-orria taberna honetan kontsumitu duten pertsona batek eskatzen baldin badu soilik eman behar dut, eta hauek ez dute tabernan ezer kontsumitu”. Beraz, poliziak, egitateak salatzeke gomendatu zion bikoteari. Senar-emazteek, FSGra joatea erabaki zuten, berauen aholkularitza eske. Berdintasun-teknikaria biktimekin hitzartu zen eta diskriminazio aztarnak zeudela konprobatu ostean, FSGk honakoak egin zituen:

- Poliziarengana jo zuten bikotekidearekin egitateen aktari buruz galdetzeko. Horiek ez zien inongo informaziorik eman.
- Probintzia-fiskaltzan gertatutako gorroto-delituengatik salaketa jartzera lagundu zieten.
- FSGk ordezkariak judiziala bermatu zien.

Horren guztiaren erantzuna, zera izan zen: epaileak kasua artxibatu zuen “zantzu eta proben falta” zela eta. FSGk hori errekurritu zuen epaitegiak zeukan motibazio falta zela

eta. Tamalez, Probintzia Auzitegiak eskaera desestimatu zuen, Fiskaltzaren onespenerekin.

Hurrengo kasua Iruñean gertatu zen. Ijitoko komunitatearen parte zen emakume batek FSGko bulegora jo zuen berdintasun-teknikariarengana, Nafarroako taberna batean sartzen utzi ez ziotela kontatzen, lehenago Ijito Herriko pertsonekin izan zituzten arazoak zirela eta, haiekin inongo erlazorik izan ez zuen arren. Teknikariak egin zitzakeen jokabideak azaldu zizkion, eta bere eskubideen inguruko informazioa ere jaso zuen, baina hala eta guztiz ere, ez zuen inongo jokabide legalik gauzatu nahi izan.

Murtzian gertatutako beste kasu batekin jarraituz, etnia ijitoko familia-kide baten heriotza zela eta, hiru gizon (horiek ere etnia berekoak) beilatoki batera joan ziren, bertako gela bat erreserbatu eta familia-kide honi gaubeila egitekotan. Bertan lan egiten zutenek, baina, leku librerik gelditzen ez zitzaizela erantzun zien, beraz, hiru gizon horiek beilatoki hartatik alde egin zuten esku hutsik. Ordu bete geroago, etnia ijitokoa ez zen eta hildakoaren erraina zen pertsona bat joan zen beilatoki berera eta leku librerik zuten galdetu zien lankideei berriz, eta horiek, bi sala libre zituztela erantzun zien. Hori dela eta, hauetako gizon bat FSGko berdintasun teknikariarekin jarri zen harremanetan telefonoz, eta tratu diskriminatzaile baten objektu sentitu zela kontatu zion honi egitateak goitik behera azalduz.

FSGk beraz, testing bat egin eta beilatokira deitzea erabaki zuen, salarik libre zeukaten jakiteko. Gela nahiko handia izan behar zutela ere esan zioten, familia-kide askok joan behar baitzuen bertara eta guztiek lekua izan zezaten. Beilatokiak leku libreak zituela aitortu zutenean beraz, gizon honek salatutako egitateak errealak zirela konprobatu zuen FSGk eta zituen eskubideak azaldu zioten, jarduera juridiko bat aurrera eraman zezakeela azalduz.

Gizonak ez zuen ezer egin nahi izan, bere familia-kidea hil berri zegoela eta, dueluan baitzegoen, eta errespetua merezi zuela pentsatzen baitzuen. Gainera, hildakoa agurtu izan zutela adierazi zuen, errainak lekua erreserbatu zuen eta. Hori bai, FSGk bere txostenean kasua erakutsarazteko baimena eman zuen, egoera larria iruditzen baitzitzaion oso, eta behintzat jasota geratzea erabaki baitzuen.

Kasurarekin parekotasuna duen azken adibidea Xionen, sagardotegi bateko nagusiak gauzatutako zuzeneko diskriminazioaren inguruko kasua dugu. 3 gizon ziren sagardotegi

batera joan zirenak bertan kontsumitu nahian. Tabernako barrara hurbildu eta eskatzerakoan zerbitzariak ijitoak zirela eta zerbitzatu ezin ziekeela adierazi zien. Hori dela eta, gizon horietako batek arduradunarekin hitz egin nahi zuela esan zion honi, beraz, kargudun hori etorri eta bertan etnia ijitoko pertsonak aintzakotzat hartzen ez zituztela erantzun zien, aurrerago izandako esperientzia txarrek ijitoak ez sartzeko erabakia hartzea eragin baitzuen. Hortaz, gizonak, jarrera diskriminatzaile horren aurrean, salaketa jarriko zuela esan eta udaleko polizia deitzea erabaki zuen. Deitzean, poliziak erreklamazio-orria eskatzeko esan zien, baina arduradunak ez zien erreklamazio-orririk eman eta, beraz, berriz ere deitu zuen. Polizia tabernara joan zen, eta kargudunarekin hitz egin ostean polizia-etxera joateko esan zieten hiru gizonari. FSGk gorroto delituengatik salaketa jarri zuen Fiskaltzan, publikoarentzat irekita zegoen taberna honetan sartzen ez uztea etnia ijitoen kontrako jarrera diskriminatzailea baita. Horretaz aparte, hiru gizonari deklaratzera lagundu zitzaizkien, prozesu guztian zehar aholkatuz, eta Fiskaltzan egin behar zuten deklarazioetan ere lagunduz. Fiskaltzan ikerketaren diligentzien irekieraren berri eman zen, eta mutil horietako bik deklaratu behar izan zuten, kargudunaz aparte.

Horren guztiaren emaitzari dagokionez, esan daiteke ez zela guztiz positiboa izan; izan ere, Fiskaltzak kasua artxibatu zuen bi bertsio zeudela eta: “kontrakoak diren bi bertsio ditugu, eta ez dago nahikoa arrazoi alde bati beste aldeari baino sinesgarritasun handiagoa emateko. FSGk ikerketa nahikorik egin ez zela salatzen du bere txostenean, baita ere Fiskaltzaren motibazio falta. Horratik, salaketa jarri zenetik sagardotegian etnia ijitoko pertsonak onartzen direla ikusi da behintzat.



## VII. MARKO JURIDIKOA

### A. Europako eremua: Europako agenda soziala eta araugarapena

90eko hamarkadan gutxiengo etnikoen eskubideen babesa defendatzeko egindako esfortzuen ondorioz, ijitoen eztabaida mahaigainertzea eragin du, baita Europako Agenda Politikoan lantzea. Amsterdameko 1999ko tratatua indarrean sartzeak tratu berdintasunaren eta pobrezia-aren kontrako borrokaren politika bultzatu zuen Europar Batasunean.

Nizan, Europar Legebiltzarrak, Kontseiluak eta Komisioak 2000. urteko abenduan aldarrikatu zen Europar Batasuneko Ezinbesteko Eskubideen karta indarrean sartu zen 2010. urtean (2010/C82/02). Karta honek, dokumentu bakarrean Espainiako Hezkuntzako Asoziazio eta Inspektoreen Aldizkariko eskubideak batzen ditu. Horiek hainbat instrumentu legegiletan batzen ziren, hala nola: leislazio nazionalean, autonomia-erkidegoen leislazioan, Europar Kontseiluko Hitzarmen Internazionaletan, Nazio Batuen Erakundean (NBE) eta Lanaren Organizazio Internazionallean.

Gutun horren 21. artikuluan diskriminatua ez izateko eskubidea aurreikusten da, eta konkretuki, sexu, arraza, kolore, jatorri etniko edo sozial, ezaugarri genetiko, hizkuntza, erlijio edo sinismen, iritzi politiko, ondare, jaiotza, elbarritasun, adin edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioa debekatzen ditu.

Gaiari garrantzia ematen hasi eta agenda politikoak honi irtenbidea emateko beharrezana planteatzen zen lehen urte horietan, ebazpen aholku eta europar dokumentu desberdinak egin ziren, Ijito Herriak bizi duen errealitatea analizatu eta bizi duten eskusio eta diskriminazio egoerei aurre egiteko.

2005ean, Europako Ijito Herriaren Inklusioko Hamarkada sinatu zuten Europar Batasuneko Estatuak 2005-2015 urteetarako. Estatuak horrela, berauen burua behartzen zuten diskriminazioa ezabatzeko ahaleginak handitzeko, baita ijitoen eta gehiengoaren artean izan daitezkeen mugak ezabatzeko. Esfortzu horiek guztiak ijitoen inguruko Europako Goi-bileran ospatzea bideratu zuten lehenen aldiz Bruselaren, 2008ko irailaren 16an. Goi bilkura honetan, Gobernu Nazionalen ordezkariak, sozietate zibilen

erakundeak, eta Europar Batasunaren instituzioak bildu ziren ijitoen komunitatearen inguruan eztabaidatzeko.

Urte bat beranduago, Pragan ijitoen inklusiorako ospatu zen Europar Plataforman, herri horren integrazioa posible izan dadin, Oinarrizko Printzipio Amankomunak aurkeztu ziren lehen aldiz. Honetan, jarraitu beharko liratekeen gomendio gidoi eta planteamenduak aurkeztu zituzten, ijitoen inklusiorako kudeatzen dituzten programa eta proiektuetan lan egiten duten legegileek, politiko arduradunek eta profesionalak. Printzipio horiek etorkizunean landuko edo landu beharko ziren politikak garatu zituzten, herri osorako bideratzen diren neurri orokor edo unibertsalekin (mainstreaming ikuspuntu inklusiboa) eta Ijitoaren Herriak dituen arazo partikular edo garrantzitsuak diren jokabide espezifikoekin batera (Targeting ikuspuntu espezifikoa).

2010.ean Ijitoen Herriaren bigarren une gorena izan zen. Urte honetan, Europar Batzordea estutu zuten Ijitoen Herriaren inklusioan aurreratzeko konpromisoak hartu eta estrategia partekatuak egiteko konpromisoa hartzeko. Momentura arte marko komunik existitu ez izanak, Europar Batzordeak Ijito Herriaren inklusiorako Estrategia Nazionalen Europar Batasunaren Markoaren inguruko Komunikazioa publikatzea eragin zuen, 2020. urtera artekoa, 2011ko apirilaren 5ean. 2012ko urte hasieran, ia Estatu guztiek publikatu zuten beraien estrategia nazionala. Prozesuan, Europar Batzordeak, Ijito Herriaren inklusiorako arrakastak arintzeko beharrezana azaleratu zuen, eta 2013ko abenduaren 9an, Europar Batasuneko Kontseiluak, *Recomendación del Consejo relativa a la adopción de medidas eficaces de integración de los gitanos en los Estados miembros* (2013/C 378/01) argitaratu zuen (Nicolás Lizama, 2016).

## B. Espainiako Marko Juridikoa

### 1. Espainiako marko juridikoa estrategia martxan jarri aurretik

Azken 30 urteotan, Espainiako autoritate publikoek ijitoen herriaren inklusio soziala agendan jartzen igaro dute. Dinamika honek lorpen esanguratsuak izan ditu, ikusi izan

dugunez baina, oraindik asko badago hobetzeke. Foku hori politika sozial inklusibo eta ijitoen programa espezifikoen bitartez sortu da<sup>13</sup>.

Estatuko hezkuntza sistemaren, osasun sistemaren eta kotizazio gabeko pentsioen garapen sozialek... pertsona ijito askorengan inpaktu positiboa izan duela esan daiteke, ez ijitoa izateagatik duten baldintzagaratik, baizik eta sozialki desabantaila sozial altuagoak izan duten pertsonak izateagatik.

Aipatzekoa da lanaren, inklusio sozialen... inguruko planek azken bi hamarkadetan ijitoen erreferentzia esplizituak egin dituztela, eta horrek errealitatea ezagutu, ezagutarazi eta praktika onen identifikaziorako bide egin du<sup>14</sup>.

Gainera, aktoreen arteko kooperazioa hobetzean lagundu du. 90. hamarkadan, Inicativas Comunitarias Horizon<sup>15</sup> e Integra<sup>16</sup> Gizarte Funts Europar markoan ekimen berriak egin ziren Ijito Herrirako espezifikoki 2002-2006 urteko Diskriminazioaren Kontrako Borrokaren programa operatiboko objektibo eta inklusiorako neurriak nabarmentzen lagundu zutenak, eta gero 2007-2013ra arte luzatu zirenak<sup>17</sup>.

Izaera unibertsala duten politika sozialen foku inklusiboa zerbitzu unibertsalen parte izateko arazoak izan ditzakeen eta dituen ijitoentzat dago bideratuta, berauen egoerak eta desabantailak sortzen duen eskusio egoera deuseztatzeko. Maila sozialean, garrantzitsuenak hauexek dira: 1985eko Diputatuen Kongresuko legez besteko proposamena, Ijitoen Garapenerako Plan nazionalari buruzkoaren onarpena. Horren ondorioz, 1989an, Ijitoen Garapenerako Programa jarri zen martxan. Horretarako aurrekontu espezifikoki bat ezarri zen Estatuko Aurrekontu orokorretatik hartua. Orduetik, kreditu horren banaketa autonomia-erkidegoen kolaborazio akorduen bitartez egiten da aldi bereko ekarpena egiten dutenak.

---

<sup>13</sup> Programa hau Ijitoen Oinarrizko Printzipio komunetan oinarritu da, batez ere bigarren eta laugarren artikuluetan. Bigarren artikulua esplizituki Ijitoen Herrian oinarritzea dio, baina ez eskusiboki herri horretan soilik eta laugarrenak berriz, ijitoen integrazio sozial osoan zentratu behar dela esaten du.

<sup>14</sup> Adibidez, 2008-2010eko Espainiar Erreinu Inklusio Sozialaren Plan Nazionalak ijitoen inguruko neurri espezifikoki aurreikusten zituen estatuko eremuan, eta autonomia-erkidegoetako planak ere aurreikusten ditu.

<sup>15</sup> Horizon ekimena lan merkatura sartzeko aukerak hobetzea datza zaugarritasun egoeran dauden pertsonen bideratua, hain zuzen ere elbarritasun fisiko, psikiko, sensorial eta mentala duten pertsonen bideratua.

<sup>16</sup> Integra berriz, Horizon ekimenetik erauzten da, zati espezifikoki bezala, talde jakin batzuek lan merkatura sartzeko duten arazoei erantzuna emateko. Kanpokoak diren, errefuxiatuen, drogo-dependetzia dutenen, kartzelatuak dauden edo kartzelatuak izan diren, gutxiengo etniko parte diren, etxerik ez duten edo eskusio sozialerako arriskuan dauden pertsonentzat bideratuta dagoena.

<sup>17</sup> Neurri eta helburu horiek Aceder Programan zeuden sartuak, FSG kudeatzen duena.

Izaera espezifikoa duten neurrien artean aipatzekoak dira gobernukoak ez diren organizazio finantza kooperazioak (GKEak, hain zuen) eta baita ijitoen Elkarteen mugimenduen, ijitoen garapenerako lan egiten dutenak. Kooperazioek bi ezaugarri dituzte: a) organizazio horien euskarri teknikoak; eta b) egiten duten babes ekonomikoa interes sozialen programekiko. Horren babes ekonomikoa erregulatuak dauden diru laguntzen bitartez egiten da Ministerioaren urteroko deialdian egiten direnak.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, horietako batzuk asoziazio zehatzen planak atera dituzte, Ijitoen Herriarentzat, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoak<sup>18</sup>, Extremadurak edo Nafarroak. Espainiar Gobernuak bestetik, 2010ean 2010-2012 urteetan populazio akzio plana onartu zuen.

Prozesu honetako zedarri garrantzitsuek Ijito Herriari aitorten instituzional handiagoa ematea bideratu dute. Diputatuen Kongresuak 1999an Ijito Herriaren problematika aztertzeko azpikomisia onartu zuen; 2005ean mozio parlamentarioa onartu zen Gobernuari ijitoen kultura historia, identitatea eta hizkuntza sustatzea estutzen ziona. Horrela, 2007an Ijitoen Kulturaren Institutioa sortu zen, Kultur Ministerioak adskribatuta<sup>19</sup>.

Gainera, autonomia-erkidego batzuen batzar legislatiboek autonomia estatutuak erreformetan, ijitoen komunitateari aipamen zehatzak egin dizkiote, hala nola, Andaluzian (martxoaren 19ko 2/2007ko Lege Organikoak Andaluziako Estatutu Autonomikoarena, 10.3.21. artikuluan autonomia-erkidego horren helburuetako bat hau dela jasotzen du: gutxiengoak integratu ahal izateko beharrezko sustapenak ezartzea, batez ere Ijitoen Komunitatearenak), Katalunian (apirilaren 20ko 5/2007ko Lege Organikoak Kataluniako Autonomiaren erreformazko Estatutuarenak 42.7. artikuluan esaten duenaren arabera, Ijito Herriaren kultura bermatu behar da, berauen errealitate historikoa babesteko) eta Gaztelu eta Leongoa (azaroaren 30eko 14/2007ko Lege Organikoak, Gaztela eta Leongo Autonomia Estatutuko erreformak, 16. artikuluan, printzipio garrantzitsuenen artean, zera esaten du: “La no discriminación y el respeto a la

---

<sup>18</sup> I y II Plan Vasco para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano (2004-2007) y (2007-2011).

<sup>19</sup> Egoitza Madrilen du eta honen helburuak ijitoen historiaren kulturaren eta hizkuntzaren garapen eta sustapena lortzea dira, horien jakintza eta errekonozimendua sustatzeko egindako ikasketa ikerketa eta publikazioen bidez.

diversidad de los distintos colectivos étnicos, culturales y religiosos presentes en Castilla y León, con especial atención a la comunidad gitana”.

Azken urteotan kontsultarako organoak egin dira ijitoen mugimendu asoziatiboetan Estatuko Administrazio Orokorrean eta autonomia-erkidego batzuetan adskribatuta. Horien adibide ditugu 2005eko Ijito Herriko Estatu kontseilua sortzekoa, eta antzeko organoen artikulazioa Katalunian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Extremaduran eta Gaztela-Mantxan<sup>20</sup>.

Geroxeago azalduko dudan bezala, diskriminazioaren kontrako arautegiei dagokienez, biktima potentzialen instrumentu eta babes mekanismoak indartu ziren 43/2000 Zuzentarauaren Espainiako ordenamendurako transposizioaren ondorioz. Azken urteetan aipatzekoa da fiskaltza espezializatuak sortu direla gorroto delituen eta diskriminazioaren kontra egiteko, Madrilen, Malagan edo Bartzelonan adibidez. Estatuko Fiskal Orokorrak Auzitegi Goreneko Ordezkarien Sala izendatu zuen berdintasunaren eta diskriminazioaren babes penalerako. Gainera, aipatzekoa da Jatorri arrazial edo etnikoen Pertsonentzako Berdintasuneko Tratu eta ez Diskriminaziorako Berdintasuneko Sustapenaren Kontseilua sortu izana<sup>21</sup>.

Iniziatiba horiek guztiak sozietate zibileko organismoen inplikazio aktiboaren bidez garatu dira, baita ijitoen asoziazioen bidez, horrela, Oinarrizko Printzipio Amankomuneko 9 eta 10. artikulua errespetatuz.

Prozesu horien guztien emaitza zera dela ondoriozta genezake: gaur egun bizi behar duten egoeren kontzientzia handitu dela jendartean, horren inguruan Espainiak egin dituen

---

<sup>20</sup> Consell Assessor del Poble Gitano, creado por el Decret 102/2005 de creació de la Comissió Interdepartamental del Pla integral del Poble Gitano i del Consell Assessor del Poble Gitano.

Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco creado por el Decreto 289/2003, de 25 de noviembre.

Consejo Regional para la Comunidad Gitana creado por el Decreto 179/2001 del Gobierno de la Junta de Extremadura.

Consejo Regional del Pueblo Gitano creado por Orden De la Consejería de Salud y Bienestar Social de Castilla - La Mancha del 25 de abril de 2011.

<sup>21</sup> 2003ko 6 /2003ko Legeak jatorri arrazial eta etnikoagatik tratatu berdintasunerako eta ez diskriminaziorako erakunde bat sortzea aurreikusi zuen. 2007. Urtean honen helburuak osakerak eta Kontseilu honen helburua jatorri arrazial edo etnikoen berdintasuneko tratua ez diskriminazioa sustatzea da, hezkuntzan, etxebizitzetan, lanean... orokorrean edozein zerbitzutan. Hori egiteko lau eginkizun zehatz dituzte: a) Modu independentean diskriminazio egitateren baten biktima aholkatzea; b) Ikerketa, estudio eta txostenak autonomiaz eta idenpendentziaz argitaratzea; d) Diskriminazioarekin amaitu eta berdintasun traturako lagungarriak edo beharrezkoak diren neurriak sustatzea; e) Kontseiluaren jarduketan inguruko urteroko memoria sortu eta onartzea gero Berdintasun Ministerioko titularrari igortzeko.

ikerketa espezifikoen ondorioz, eta gainera horren ondorioz, hori hobetzeko bideratuak dauden profesionalen gorakada ere eragin dute (Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, 2014).

## 2. Ijitoen Herrirako Inklusio Sozialerako Estrategia Nazionala

Bere kasuaz aparte, entitatera egoera bati buruz galdezka joan zen umeen kasu bat ere adierazi du elkarrizketan. Antza denez, Zubiarteko merkataritza-gunean 14 neska jazarri zituzten bertako zaintzaileek. Botere gehiegikeria horren ondorioz, Erabereanera jotzea erabaki zuen, salaketa jartzekotan, baina abokatuak salatze biderik ez zegoela adierazi zion. Horrek ere asko haserretu zuen elkarrizketatua, izan ere egoera antigitanista horiekin amaitzeko, salaketa jartzeak eta salaketa hori bideratzeak duen garrantziaz aritu da, batez ere legegileak egoera horien berri izateko:

Otro caso por ejemplo fue en el centro de Zubiarte de 14 o 15 niñas gitanas que fueron con dos monitoras y las persiguieron por todo el centro comercial. Eso a mí me parece un acoso. Que dos hombres armados persigan a un grupo de 14 niñas. Una de ellas les dijo ¿Si voy al baño también me vais a seguir? Me parece un acoso y un abuso de poder. Yo lo llevé a Eraberean con una denuncia de Prosegur y de Zubiarte, (que ni siquiera tenían la hoja de reclamación, y tuve que esperar 30 minutos) pero me dijeron que no tenía base jurídica.

Pero a mí me da igual que no tenga base jurídica, dime que denuncie, y luego ya vemos. A mí como víctima me hace falta que se me escuche. Y que Eraberean vaya hasta el con el caso hasta el final, aunque éste ya este perdido.



Jarrera antigitanista horiek guztiak nola konponduko lituzkeen galdetzerakoan, oso zaila dela erantzun du. Ijitoen integraziorako Oinarrizko Printzipio Amankomunetako ijitoen parte hartzeari buruz aritu da, eta horren arabera, egun ijitoen integraziorako planak ijitoak ez diren pertsonen erabakitzen duten heinean zerbait txarto egiten dabiltzala erantzun du Euskal Autonomia Erkidegoan, erabakitzeko botererik ez duen ijito emakumerik ez dagoela aitortuz. Beharrezkoa da hori aldatzea, sistema arrazista desmuntatzeko, izan ere hori egoera antigitanistatzat hartzen du:

Esto es un sistema difícil de desmontar cuando el propio sistema, el propio gobierno y las medidas que imponen, siguen estando para favorecer eso. Los planes para la mujer gitana los hacen personas no gitanas y hablan por nosotras, y no hay ninguna mujer gitana con poder de decisión aquí en Euskadi. Pues todo esto es antigitanismo.

Bestalde, egoera horiek konpontzeko kontzientzia kritikoa behar dute jendarteak, gobernuak, tribunalek eta legegile noski:

Para que todo esto se solucione primero necesitamos que el gobierno, se tome el tema en serio.

Una vez que tienes base argumentaría e histórica, el que me digan que tú por ser gitana piensas que te van a tratar diferente... pues evidentemente me tratan de forma distinta. No necesito que me lo digas. No vamos a negar lo evidente. Y lo primero que hay que hacer es ser consciente.

Cuando se consiga conciencia en la sociedad de eso, sobre todo a las personas que estén legislando, tendrían que hacer una ley que nos proteja. Tendría que haber una ley que protegiera a las personas que somos las víctimas más vulnerables, como las mujeres racializadas. Esta es mi pelea y mi guerra en los años que llevo diciendo, que esto es lo que pasa y esto es lo que necesitamos. Necesitamos personas que legislen, que haya una conciencia crítica y para eso necesitamos que haya una conciencia en la sociedad.

Baina horretarako, jendartean eragina izan dezaketen, komunikabideek, pertsona famatuek... ezin dezakete herri horren kontrako mezurik bidali. Pertsona baten askatasuna beste pertsona baten askatasunari eragiten dionean amaitzen da. Ezin daiteke pertsona baten adierazpen-askatasuna beste pertsona baten oinarrizko eskubideen gaineratik jarri:

Y que por supuesto, no llegue un monologuista haciendo chistes sobre mi pueblo para que todo el mundo ría sus gracias, y que se defienda diciendo que es libertad de expresión. Porque no lo es. No puede serlo mientras fomentes el odio y ridiculizas a un pueblo entero. Tu

libertad de expresión finaliza cuando vulneras mis derechos. Que tengo el derecho a ser libre, a ser persona, y a que se me trate de forma igual. Porque es lo que soy, soy una persona.

Azken esaldian ikus daitekeenez, deshumanizatzeko joera duen antigitanismoaren kontra egin du, bera ere, pertsona dela defendituz, eta edozein pertsonen eskubideak errespetatzen diren moduan, bereak ere errespetatuak izateko eskubidea duela esatean.

Gainera, jendarteak ijitoen inguruan duen pertzepzioa aldatzeak garrantzia duela ere aipatu du, jada marko teorikoan aztertu dudana ijito hitzaren terminoa beraien herriaren terminoa ez dela adieraziz. Ez dute esanahi hori aukeratu. Jendarteak, erakundeak, gobernuek... esanahi hori inposatu die. Eta inposizio horrek arrazakeriak funtzionatzen jarraitzea eragiten du. Esanahi hau, eta agian terminoa ere aldatu behar dira, eta hori da ijitoen feminismoak defendatzen duena. Hori beharrezko ikusten dute kolektiboak duten imajinarioa aldatzeko:

Nosotros no hemos elegido el termino gitano, eso nos lo han impuesto. Que, si de verdad ser gitana fuera la que se ha impuesto, yo misma hubiera renegado de ello. Por eso el feminismo gitano dice que hay que revalorizar la cultura gitana y el termino gitano. Y que hay que llamar a las cosas por su nombre. Que ser gitana no es lo que te cuentan. Que el imaginario colectivo sobre las mujeres gitanas no es el real, es el que te han contado para legitimar el abuso que hay para nuestro pueblo.

Identitatea guztiz sortzeko beharrezkoak duten pertsonen buruz ere aritu zitezakidan, familia ijitoa eta ez ijitoen artean sortu diren haurrek, beraien identitatea sortu eta birstortzean, zein eragin izan dezaketen adieraziz. Nik neuk, pertsona horiek identitatea baieztatzen beharrezkoak izango zuten suposatzen nuen, eta berak ere iritzi bera zuela aitortu zidan. Horren hitzetan, bi aukera gerta daiteke. Pertsona batek ijitoena ez den identitatea izatea erabaki dezake, eta parte den ijito identitate hori indargabetu eta deuseztatzea. Haatik, ijito identitate hori berrezartzeko mekanismoa ere izan dezakete beste batzuk. Hori azaltzeko Pichiei buruzko adibidea jarri du:

Hay personas gitanas que cuando son mestizas o reniegan de una parte para reafirmar su identidad, por ejemplo, la gitana, o al revés, los pichis, por ejemplo. Estos hacen todo lo que la sociedad establece que es ser gitano para ratificar socialmente su identidad porque se creen que lo que es ser gitano es eso que dicen las personas no gitanas. Así que si dicen que para ser gitanos hay que robar o pegar, pues lo hacen para que socialmente el pueblo gitano. Pero no se dan cuenta que eso no es ser gitano, ser gitano se basa en valores, en el respeto, en el

cuidado de las familias, el cuidado de las personas mayores, los niños, la colectividad del individualismo (tus decisiones no son tuyas sino de tu colectivo).

Bere kasuan ere guztiz interesatua nengoen, lan guztian zehar baztertuak dauden pertsoneri buruz aritu bainaiz, baina elkarrizketatuaren errealitatea ez da orain arte azaldutakoarekin guztiz lotzen, ikasketa maila altuak baititu, lana baitu... Kasu horietan, ijitoak ez diren pertsonenek desgitanizatzen dutela esan zidan, horiekiko duten irudi horretan sartzen ez direnez, guztiz ijitoa ez dela pentsatzen baitute askok.

Por otra parte, hay gente que ha estudiado y por haber estudiado y tener un argumentario parece que la gente nos desgitaniza, porque parece ser que tener formación no es de gitanos.

De hecho, cuando yo doy los talleres me preguntan ¿Tú eres gitana? Y yo respondo que sí. Y me vuelven a preguntar, ¿Pero gitana, gitana? Y vuelvo a responder que sí, que toda mi familia es gitana. Parece que la misma parte no gitana te desgitaniza.

Antiguamente, como los mismos gitanos pensaban que la escuela era un sistema para payos, también lo hacían. Es verdad que hoy en día hay más gitanas con estudios por lo que ahora eso no pasa dentro de nuestra comunidad.

## X. ONDORIOAK

Ondorioekin hasi baino lehen, aipatzekoa da arrazakeria ez dela gugandik urrun soilik gertatzen. Hemen ere existitzen da, eta eraginak nabari-nabariak dira, pertsonak bizitza galtzen baitute arrazakeriaren erruz, besteak beste. Hortaz, beste herrietan gertatzen denari jaramon egitea garrantzitsua den arren, Espainiako estatuan gertatzen dena ere aztertu eta kritikatu behar da, pertsonak Estatuan ere bizia galtzen baitute arrazakeriaren ondorioz, eta galtzen ez dutenek horrek suposatzen dituen eragin guztiekin biziraun behar izaten dute eta.

- ❖ Lanean argi utzi nahi izan dut antigitanismoak bere baitan dakartzan ondorioak zeintzuk diren. Historikoki hain presente izan genuen antigitanismoak, eraginak ditu egun ere, lanean zehar aztertu dugunez, eta antigitanismoak arrazakeria kulturalen azalpenekin hartu du zentzurik handiena, arrazakeria biologikoaren logikak ere bere eragina izaten jarraitzen duen arren. Horrek ijitoen barne-funtzionamenduan eragin handia du; izan ere, bizi duten egoera sozioekonomiko eskasak eta klasismoak pertsona horiek are gehiago marjinatzea eragiten du. Horrek guztiak eraginak dakartza ijitoen egunerokotasunean, gaztetatik lanean hasteko beharrak umeak lanean arin hastera bideratzen baititu. Hortaz, prestakuntza handirik ez duten lanak egitera behartuta daude, eta egoera ekonomikoa hobetzen ez denez, etxebizitza duin bat izateko, osasun komunitario on bat izateko... aukerak asko jaisten dira. Horrek guztiak, gainera, errefortzu idiosinkratikoa indartzen du, eta jendarteak marjinateaz gain, berauek ere marjinatu egiten dira nahi eta nahi ez, eskola, etxebizitza getifikatuetan egin behar baitute berauen egunerokoa. Horrek guztiak eskusioa indartzea eta ez desagerraraztea dakar.
- ❖ Hori ulertzeko lehenik eta behin botere-harremanen indarrak duen eragina azaltzea ezinbestekoa zait. Izan ere, harremanak aldatzea ezinezkoa izango da gehiengoaren taldeak etekinak ateratzen baditu, gutxiengo talde hori baztertzeko jarraitu eta eskusioa bideragarri eginez. Hots, botere-harreman horiek beti piramide baten bidez azaltzeak badu bere zentzua. Botere-harremanetan oinarritutako sistema batek behean dauden guztiak goian dagoena irabazten ateratzeko dihardutela ulertu behar dugu. Goian daudenek (piramidearen

puntakoek), berriz, etekinak atera eta guztiak horrela jarraitzeko ahaleginak egiten dituzte. Hortaz, botere-harreman horiek deuseztatzeko, lehenik eta behin pertsona bat beste baten gaineratik jarri ez daitekeen sistema da aldarrikatu behar duguna (behintzat hori aldatzea bada lortu nahi duguna).

- ❖ Emakumeen kasuan egoera gogorragoa da, gutxienez bi botere-harremanen menpeko baitira emakume ijitoak. Hipotesietan planteatu zen bezala, emakumea den ijitoa jendarteak zaugarriagoa egiten du, emakume ijitoa izateagatik soilik. Eta hori ondo erakusten du FSGk bere urteroko txostenetan, interseksionalitate kasuak batzen dituenean. Planteatzen duten eta lanean zehar jaso dudan galdera da geure buruari egin behar dioguna: ijitoa izanda ere, gizonezkoa balitz tratu bera jasoko luke pertsona honek? Hau da, emakumezko ijitoek eta ijito ez diren emakumeek tratu bera jasotzen dute?

Kontuan hartu behar da emakume ijitoek, adibidez, saltokietan jasotzen duten tratua emakume ijitoak izateagatik jasotzen dutela (pertsekuzioak, zaintza handiagotua...). Hori jendarteak emakume ijito diren pertsonen inguruan duen irudikapen kolektiboaren ondorioz sortzen da, oraindik emakume horiek etxeko lanetan, hau da, etxe barnean ikusezin gelditzen diren lanetan soilik jarduten dutela uste baitute, eta ez dutela autonomia ekonomikorik. Hortaz, familia mantentzeko ezinbestean behar duten dirurik ez dutela pentsatu, eta lapurretak egin behar dituztela sinistu ohi da oraindik, tamalez. Irudikapen horren baitan ikus daitekeenez, arrazakeriak bezain indar handia du patriarkatuak, eta emakume ijitoek pairatzen dituzten zapalkuntzak soilik azal daitezke interseksionalitatearen bidez.

- ❖ Ordea, aldatzea oso zaila dugu, bizi eta ezagutzen dugun sistema horren ondorioz sortzen baitira arrazakeria eta interseksionalitatea; horregatik dira arrazakeria eta patriarkatua sistematikoak eta estrukturalak. Hala eta guztiz ere, zerbait egin behar da ijitoen egoerak bere horretan ez jarraitzeko. Zaila da, batez ere kontuan izanik aspektu sozial ekonomiko eta kulturelek duten eragina. Baina ezer egiten ez bada (eta orain arte ez da askorik egin, egoera mozorrotzeko ahaleginak nagusitu baitira), ezin izango da aldatu. Frakzio anitz dituen arazoaren aurrean erantzun anitz bilatu behar ditugu; ezin genezake hori guztia estatuek egin behar duten

estrategia soil batekin konpondu, horrela izango balitz, egoera jada aldatua egongo bailitzateke. Esan izan da egoera apur bat hobetu dela, baina hori asko esatea da. Asko esatea da Espainian ijitoen egoera agenda politikoaren parte izanik, oraindik komunikabideek ijitoak diskriminatzeko bidea hartzen baitute. Asko esatea da oraindik hirutik bi familiak beharrezkoak diren baliabideak lortu ezin dituelako. Asko esatea da oraindik lan-kontratu eskasak ijitoek dituztela jakin badakigunean. Asko esatea da osasun-baldintzak guztiontzako berberak ez direlako. Arazoa konpontzen bidean balego, lan honen ardatz den kasua aztertzeak ez luke zentzurik.

- ❖ Publikoarentzako irekita dauden eremuetan ijitoei sarrera ukatzea ez da kasu isolatu bat, eta aurrerapausorik eman ezean ez da inoiz kasu isolatu bat izango, ez behintzat jendarteak ijitoen kontrako aurreiritzi eta estereotipoek tinko diharduten bitartean. Eta are gutxiago, egitate horiek zigortu behar dituztenek ez zigortzea erabakitzen dutenean, frogaren kargaren ondorioz. Berez, legegileak hori ekiditeko frogaren kargaren inbertsioa aurreikusten badu ere, askotan egitate arrazista egin duenaren alde egiten jarraitzen baita, diskriminatzen duenaren argudioa guztiz arbitrarioa izanda ere.
- ❖ Gure kasuan, egitate arrazista (antigitanista) gauzatu zuenak, adibidez, taldeak onartzen ez zituela argudiatu zuen. Zer da, bada, talde bat? Galdera horri erantzun eta erabakia arbitrarioa denetz jakiteko, kanpalekura deitzea erabaki nuen, T.J.k eskatu zituen partzela berak eskatu eta pertsona kopuru bera izango ginela adierazteko. T.J. ea ni desberdintzen gintuen bakarra ijito-egoera zen, eta niri inork ez zidan esan talderik onartzen ez zenik. Hortaz, erabili zuten barne-politika T.J.ren kontra soilik erabili zen. Administrazioak, barne-politika hori erreala zen edo ez (eta erreala izanda arbitrarioki aplikatu zen edo ez) konprobatu gabe, arau-hausterik ez zegoela ondorioztatuta artxibatu zuen kasua. Kasu gehienetan gauza bera gertatzen da tamalez, froga faltaren ondorioz bada ere, eta egitateak zehapen gabe gelditzen dira.
- ❖ Egia da hori gutxika-gutxika aldatzen ari dela, eta behintzat gaur egun epai batzuetan delitu hauen biktimen alde egin dela, ondorioztatuta biktimaren alegazio eta lekukoaren testigantzak nahikoak direla, frogak lortzea ez baita erraza

izaten. Hala eta gutiz ere, ezin dezakegu ahaztu horiek salbuespenak direla. Gehien salatzen diren diskriminazio-kasuak izanda ere, hori nozitzen duten pertsonak askotan ez dute salatzen, beraien eskubideak ezagutzen ez dituztelako, edo egitatea zigorgabe geldituko dela pentsatzen baitute. Elkarrizketatuak hori alda dadin jarri zuen salaketa, eta bere erakundearen delitu mota horiek salatzea gomendatzen du, apurka behintzat auzitegiak egitate horiek duten garrantziaz jabetu daitezzen.

- ❖ Halere, aipatzekoa da eskusio egoeran ez dauden pertsona ijitoak ere badirela. Beno, behintzat guztiz baztertuta ez dauden pertsonak ere badirela. Adibidez, delitu honetako biktimak bazituen bere ikasketak, lana... Esan genezake ez dela ijitoen herrian gehiengoak bizi behar duen egoera berean bizi. Aipatutakoaren arabera baina, pertsona horiek desgitanizatzeko joera dute ijitoak ez diren pertsonak. Nolatan, baina? Hainbatetan azaldutako estereotipo eta aurreiritzi eratuak badute horretan eragina. Jendarteak ijitoen komunitatearen kontra duen irudikapen kolektibo horretan ez da ikasketak dituen pertsona ijitorik sartzen, ijitoek ikasteko eskubiderik izango ez balute bezala... Imajinario hau ere aldatu beharra daukagu.

## XI. GOMENDIOAK

Jokabide diskriminatzaileak areagotu (edota sortu) zein gutxitu (edo deuseztatu) ditzaketen faktoreak daudela ikusi dugunez, ezinbestekoa da arauak, legeak, balio-sozialak, egoera sozioekonomikoak... identifikatu, horietan eragin eta aldatzea. Horiek guztiak banan-banan aldatzeko irtenbide edo gomendioak proposatuko ditut atal honetan.

- ❖ Lehenik eta behin, aztertutako egoera guztiak aldatzeko, *ijito* hitzari beste definizio bat ematea beharrezkoa da (gogoratu RAEk *ijito* hitzari zein definizio ematen dion). Ezinbestekoa da hori, eta elkarrizketatuak aipatu duen moduan, *ijitoen* feminismoak ideia hori aldarrikatzen du. *Ijitoek* ez dute jendarteak eta gehiengoak ezarri dien definizioa bere egiten, horrek ez dituztela definitzen baitakite, baina jendarteak ere jakin beharko luke hori (eta, zoritxarrez, ez da horrela). Hortaz, lehenengo gomendia RAEk *ijito* hitzaren esanahia bera aldatzea izan beharko litzateke.
  
- ❖ Horretarako, ezinbestean ulertarazi behar zaio jendarteari *ijitoen* kultura, historia eta errealitatea zeintzuk diren. Aurreiritzi eta estereotipo horiek deseraikitze eta enpatia sustatzeko ezinbestekoa da *ijitoen* historia ezagutzea. Beraz, hezkuntzak izugarritzko funtzioa bete dezake arlo horretan. Historia gehiengoak (hots, ez *ijitoek*) idatzi duena dela ulertarazi behar zaie ikasleei, eta beste ikuspuntu batzuk ere ezagutarazi beharko lituzkete irakasleek, gaitasun kritikoa garatzeaz gain, errespetuz jarduten irakasteko ariketa baitugu hau. Izan ere, historia gehiengoak soilik idazteak, hasieran esan bezala, aurreiritzi eta estereotipoak sortzen ditu gutxiengo horren kontra. Hori ekiditeko, historia berridatzi (hortaz, berrikasi) behar da. Azken finean, historia akatsetatik ikasi eta horiek ez errepikatzeko irakasten bada, ez al da garrantzitsua historiak berak elikatutako botere-harremanekin bukatzeko, *ijitoen* historia erabiltzea? Ez al da, arrazakeria/antigitanismoa berriz ere errepikatu beharko ez litzatekeen, eta hortaz desagertzeko, irakatsi beharko litzatekeen historiaren (eta, tamalez, orainaldiaren) parte? Gogoan izan behar dugu, letra larriz idazten dugun Historia horren parte guzti-guztiok garela.



- ❖ Bestalde, aipatzekoa da, historia ez errepikatzeko, berebiziko garrantzia duela botere-harremanak deuseztatzeak. Izan ere, ijito edo beste gutxiengoren bat baztertzeko den bitartean norbaitek irabazten jarraitzen badu, egoera ez da sekula ere aldatuko. Botere-harreman horiek berehala errotik aldatu ezin badira ere, eman daitezke pauso txiki baina garrantzitsuak egoera hobetzeko. Izan ere, Ijito Herriak bizi duen egoera ez da erraza (kontuan izanik ia guztiek pobrezia egoeran bizi behar dutela), eta, gainera, ia ez dute bestelako bizitzaren erreferente hurbilik izaten. Egoera aldatzeko, lehenik eta behin, ikasketak burutzeko erraztasunak areagotu beharko lirateke.
- ❖ Horretaz guztiaz aparte, aipatzekoa da ariketa hori ez dela ikasten dabiltzan pertsonekin soilik egin behar. Errealitate hori segurtasun-indarrei ere ezagutaraztea ezinbestekoa da, eta baita ere diskriminazio ekintzak zigortzeko ahalmena duten pertsoneri (legegileei, epaileei...). Prestakuntza berezia behar dute horiek, aztertu dugun kasuan gertatutakoa (administrazioak bere esku zegoen guztia egin ez izana) ez errepikatzeko.

Horregatik, prestakuntza beharrezkoa da egitate diskriminatzaileak gauzatzen direnean administrazioek euren lana ondo egiteko. Poliziek bete beharreko lana bete eta atestatu egoki bat egin izan balute, Kontsumobideek salaketa horiek heltzean elementu frogagarriak bilatuko izan balitu... egitateak frogatzeko izateko aukera handiagoa legoke.

- ❖ Agenda politikoan ezarria dagoen plan edo estrategiak baino gehiago behar du izan gai honek. Benetan, egoera aldatzeko ijitoak babes ditzaketen legeak sortu behar ditu legegileak, eta orain arte hori hobetu behar denaren plantak baino ez dira egin, hau da, ez da jarrera horiekin bukatzeko beste lan egin.
- ❖ Bestalde, jendartearen pertzepzioan hain eragin handia duten komunikabideek ezin dezakete arrazakeria edo diskriminazioa sustatu. Agenda Setting-en eta Framing-en bidez zeri buruz hitz egin eta horri buruz nola hitz egingo den erabakitzean, komunikabideek ezin dezakete estereotipo eta aurreiritzi negatiborik piztu, eta hori egitea zigorgarria izan behar da beti. Horretarako baina, ondo arautua dagoen oinarri tipifikagarriak sortzea ezinbestekoa da, baina batez

ere zigor horiek aplikatzea. Gauza bera egin behar da T.J.ak aipatutako monologoekin, programekin, pelikulekin.... Jendartean eragina izan dezakeen edonork ezin dezake publikoarentzat hain bideratuak dauden guneetan arrazakeria hori pizteko mezurik bota. Izan ere, elkarrizketatuak, ondo aipatu bezala, adierazpen-askatasunak pertsona bati askatasuna izatea eragozten badio, ezin daiteke adierazpen askatasuna izan. Pertsona baten askatasuna beste pertsona baten askatasuna zanpatu aurretik bukatu behar baita, eta muga horiek ondo ezarriak behar dute egon.

- ❖ Horrez gain, ijitoen kontrako diskriminazioarekin amaitzeko prestatu genezake auzi-estrategikoa. Ni neu ijitoak ez diskriminatuak izateko eskubidean zentratuko nintzateke, elkarrizketatuak egin duen bezala (gogoratu jarri dituen salaketa guztiak hau aldatzeko bideratuak zeudela batik bat). Sozietate zibilak indarra egin behar du auzitegietakoak kontzientziatzeko hartzeko. Horretarako, ezinbestekoa da jendartea bera kontzientziatuta egotea. Hori lortzeko, adibidez, zuzenean ijitoak diskriminatzen ez dituen komunikabideak, gobernuz kanpoko erakunde ezagunak, ijitoa den pertsona famaturen bat, eta abar hartu behar ditugu laguntzat, eta horiei egoeraren inguruan jakintza zabaltzeko eskaera egin behar diegu. Agian, gurekin guztiz bat etorri ez arren, pertsona horiek konbentzitu ahal baitira, eta pertsona horiek konbentzitzeak, jendartea konbentzitzea ere eragin baitezake, epaile eta magistratuak barne.
- ❖ Azkenik, aipatzekoa da ijitoen ahotsa ezagutu eta errealitatea ezagutarazteko garrantzitsua dela jendartean inpaktua izan dezaketen pertsonen berdintasuna babestea. Nire ustetan, errealitatea modurik onenean azaleratuko luketen pertsonak diskriminazioa nozitu dutenak izan beharko liriateke, hots, ijitoak, eta, ahal bada, ijito emakumeak. Pertsona horien ahotsa entzun behar dugu. Jendartean diskriminazioaren kontra egin eta eragina izan dezaketen pertsonen ere jardun behar dute gobernuan, berauen izenean jarduten duten pertsonen ordez. Borroka, eurena da. Beraiek dira entzun behar ditugunak. Eta eskatzen dutena benetan babesten duten legea sortu eta indarrean jartzea da. Egin dezagun, bada, aldarrikapen hori errealitate.

## XII. BIBLIOGRAFIA

- Alaminos, A., López, C., & Santacreu, O. (2010). *Etnocentrismo, xenofobia y migraciones internacionales en una perspectiva comparada*. Alicante.
- Andueza Izaskun. (2009). Discriminación. *Inmigración en Navarra: encuesta 2008, 2009, ISBN 978-84-9769-250-2, págs. 323-349, 323-349*. Recuperado de <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6449569>
- Arza, J. (2011). Discriminación objetiva y subjetiva de la comunidad gitana: Un fenómeno persistente a pesar de los avances sociales y legislativos. *Madrid: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, Diagnóstico social de la comunidad gitana en España*, 316.
- Arza, J. (2014). *Actitudes ante la diversidad y la igualdad*.
- Arza, J., & Carrón, J. (2015). Comunidad Gitana: La persistencia de una discriminación histórica. *OBETS. Revista de Ciencias Sociales, 10 nº2*, 282-283.  
<https://doi.org/10.14198/OBETS2015.10.2.01>
- Bello Reguera, G. (2008). *De la demonización al racismo (sobre la deshumanización del otro)*. V. 8, No. 2.
- Campos Gómez, J. F., Mas Zamora, & Giménez, V. (2019). Discriminación, comunidades gitanas y justicia restaurativa. En *Riesgo de exclusión de la población gitana en España e intervención social*. Universidad de Murcia: Observatorio de la Exclusión Social.
- Chimamanda Ngozi Adichie. (2013). El peligro de una sola historia. *Video TED*.
- CIS. (2006). *Encuesta 2664 a hogares de la población gitana*. Recuperado de [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=7820](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=7820)
- (2007). *Encuesta 2745. Discriminaciones y su percepción*. Recuperado de [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=8940](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=8940)
- (2013). *Encuesta 3000. Percepción de la discriminación en España*.

- Crenshaw, K. (1989). *Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics*.
- Damonti, P., & Arza, J. (2014). *Exclusión en la comunidad gitana. Una brecha social que persiste y se agrava*. <https://doi.org/10.13140/RG.2.2.24745.60008>
- Department de Benestar i Família. Generalitat de Catalunya. (2005). *Estudi sobre la població gitana a Catalunya*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- Domínguez, M. (2015). Gitanofobia: Viejo miedo de un racismo vigente. *University of Buenos Aires*, 165-177.
- EU-FRA. European Union Agency for Fundamental Rights. (2014b). *Roma survey—Data in focus Poverty and employment: The situation of Roma in 11 EU Member States*.
- EU-FRA. European Union Agency for Fundamental Rights. (2012). *The situation of Roma in 11 EU Member States*. Luxembourg: Publications Office of the European Union.
- European Commission. (2007). *Special Eurobarometer 263. Discrimination in the Euro—Peian Union*. Recuperado de [http://ec.europa.eu/public\\_opinion/archives/ebs/ebs\\_263\\_sum\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_263_sum_en.pdf)
- Federación de Asociaciones de SOS Racismo. (2014). *Reservado el Derecho de Admisión*.
- Fein, S., & Spencer, Steven. J. (1997). *Prejudice as self-image maintenance: Affirming the self through derogating others*. (*Journal of Personality and Social Psychology*, 73), 31-44.
- Fernandez Torres, M. J. (2019). Aproximación a la situación jurídica de la población gitana en España y Europa. En *Riesgo de exclusión de la población gitana en España e intervención social* (Observatorio de la Exclusión Social de la Universidad de Murcia. Vicerrectorado de Empleo, Emprendimiento y Sociedad.). Universidad de Murcia.

- FSG. (2005). *Poblacion gitana y Empleo: Un estudio comprobado*. Madrid: Fundación Secretario Gitano.
- (2007). *Mapa sobre Vivienda y Comunidad Gitana en España*. Madrid: Fundación Secretario Gitano.
- (2010). *Evaluación de la normalización educativa de las alumnas y alumnos gitanos en Educación Primaria*. Madrid: IFIIE/ Instituto de la Mujer.
- (2015). Seguimiento de la Estrategia Nacional para la Inclusión Social de la Población Gitana en España 2012-2020. *Informe sombra 2015 - Resumen-*.
- (2017). *Guía sobre la discriminación interseccional. El caso de las mujeres gitanas*. Madrid.
- (2019). *Informe de discriminación 2019*. Recuperado de [https://www.gitanos.org/upload\\_priv/29/77/flip/files/assets/basic-html/page-1.html#](https://www.gitanos.org/upload_priv/29/77/flip/files/assets/basic-html/page-1.html#)
- Gall, O. (2004). Identidad, exclusión y racismo: Reflexiones teóricas y sobre México. *Instituto de Investigaciones Sociales. Revista Mexicana de Sociología*.
- Garrido, V., Stangeland, P., & Redondo, S. (2006). *Principios de Criminología*. 3ª edición, revisada y ampliada. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Hancock, A. M. (2016). *Intersectionality. An intellectual history*. New York: Oxford University Press.
- Herzog, B. (2009). *Imagen social y discriminación étnica: «Valencia se solidariza»*. Valencia: Regidoria de Benestar Social i Integració D.L.
- Hooks, B. (2017). *El feminismo es para todo el mundo*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Javaloy, F. (1994). *El nuevo rostro del racismo*. Barcelona.
- Laparra Navarro, M. (2003). *Extranjeros en el purgatorio: Integración social de los inmigrantes en el espacio local*. Recuperado de <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=3432>

- LeBlanc, J., Beaton, A. M., & Walker, I. (2015). *The Downside of Being Up: A New Look at Group Relative Gratification and Traditional Prejudice*. Springer Science+Business Media New York 2015.
- Macías Aranda, F. (2017). *Contribuciones del Pueblo Gitano para luchar contra la Pobreza y el Antigitanismo a través de su participación en Actuaciones Educativas de Éxito*. Universitat de Barcelona.
- Ministerio de Sanidad. Política Social e Igualdad. (2011). *Diagnóstico social de la comunidad gitana en España. Un análisis contrastado de la Encuesta del CIS a Hogares de Población Gitana 2007*. Madrid.
- Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. (2014). *Estrategia Nacional para la Inclusión Social de la Población Gitana en España 2012-2020*. Informes, estudios e investigación 2014.
- Nicolás Lizama, M. (2016). Analisis de la implementación de la Estrategia Nacional para la Inclusión Social de la Población Gitana 2012-2020. *Avances en supervisión educativa*, nº 25.
- París Pombo, M. D. (1999). *Racismo y nacionalismo: La construcción de identidades excluyentes*. *Política y Cultura*, núm. 12(Universidad Autónoma Metropolitana Unidad Xochimilco), 53-76.
- Prevert, A., Navarro Carrascal, O., & Bogalska-Martin, E. (2012). *La discriminación social desde una perspectiva psicosociológica*. *Revista de Psicología Universidad de Antioquia* 4(1), 7-20.
- Rey Martínez, F. (2017). *Igualdad y prohibición de discriminación: De 1978 a 2018*. *Revista de Derecho Político* N.º 100, 125-171.
- Suriá, R. (2010). *Estereotipos y prejuicios*. Psicología social (sociología).
- Terrén, E. (2002). *La etnicidad y sus formas: Aproximación a un modelo complejo de la pertenencia étnica*. A Coruña.
- Wieviorka, M. (1994). *Racismo y exclusión*. Vol. 12, N.º. 34 (ENE-ABR), 37-47.

## XIII. LEGERIA

### A. Europako legeria

- 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentaraua.
- 2010. urteko Europar Batasuneko Ezinbesteko Eskubideen Karta (2010/C82/02).
- 2011ko apirilaren 5eko Ijito Herriaren inklusiorako Estrategia Nazionalen Europar Batasunaren Markoaren inguruko Komunikazioa, 2020. urtera artekoa.
- Recomendación del Consejo relativa a la adopción de medidas eficaces de integración de los gitanos en los estados miembros (2013/C 378/01).

### B. Espainiako legeria

- 1978ko abenduaren 29ko Espainiako Konstituzioa.
- 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, poliziaren Erregelamendu Orokorra onartzen dena Espektakulu Publikoetan eta Dibertimenduzko jardueretan .
- 26/1984 Legea, uztailaren 19koa, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra.
- 1985eko Diputatuen Kongresuko Legez besteko Proposamena Ijitoen Garapenerako Plan nazionalari buruzkoa.
- 10/1995 Legea, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.
- 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga, administrazio eta lan-arloko neurriei buruzkoa.
- 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, 2007ko azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bat eginak onesten duena,
- 2008-2010eko Espainiar Erreinuko Inklusio Sozialaren Plan Nazionala.
- 2012-2020ko Ijitoen Herrirako Inklusio Sozialerako Estrategia Nazionala.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

## C. Autonomia-erkidegoetako legeria

- 4/2000 Legea, urriaren 25ekoa, Errioxako joko eta espektakuluaren buruzkoa.
- 5/2013 apirilaren 12koa, Errioxako kontsumitzaileen defentsarako legea.
- 2/2007ko Lege Organikoa, martxoaren 19koa, Andaluziako Estatutu Autonomikoarena.
- 3/7007ko Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerakoa.
- 5/2007ko Lege Organikoa, apirilaren 20koa, Kataluniako Autonomiaren erreformazko Estatutuarena.
- 14/2007ko Lege Organikoa, azaroaren 30ekoa, Gaztela eta Leongo Autonomia Estatutuko erreforma.
- 2/2018 Legea, urtarrilaren 30ekoa, Neurri Fiskal eta Administratiboak eraldatzen dituen.

## XIV. JURISPRUDENTZIA

- Balear Iretako Probintzia Auzitegiaren epaiak (2. sekzioa) 256/2000. zk., abenduaren 30ekoa.
- Valentziako Probintzia Auzitegiaren epaia (4. sekzioa), 153/2003. zk., 2003ko martxoaren 3koa.
- Albaceteko Probintzia Auzitegiaren epaia (1. sekzioa), 56/2006 zk., 2006ko apirilaren 28koa.
- Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren epaia (1. sekzioa) 261/2019. zk., 2019ko urtarrilaren 28koa.



## XV. BERRIAK

Berri guztien azken kontsulta-data: ekainak 16.

Jiménez Barca, A. (19/07/2010) Grenoble y Saint-Aignan vuelven poco a poco a la calma.

Recuperado el 16 de junio de 2020, de El país:

[https://elpais.com/internacional/2010/07/19/actualidad/1279490402\\_850215.html](https://elpais.com/internacional/2010/07/19/actualidad/1279490402_850215.html)

Teruel, A. (29/07/2010) Francia desmantelará 300 poblados gitanos en réplica a los disturbios. Recuperado el 16 de junio de 2020, de El País:

[https://elpais.com/diario/2010/07/29/sociedad/1280354404\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2010/07/29/sociedad/1280354404_850215.html)

Ricardo Martínez de Rituerto,(20/09/2010). La UE promete aclarar si Francia violó la legislación al expulsar a los gitanos. Recuperado el 16 de junio de 2020, de El País:

[https://elpais.com/diario/2010/09/22/internacional/1285106406\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2010/09/22/internacional/1285106406_850215.html)

Vid. Johannès, F. (7/10/2010) Le fichier des Roms du ministère de l'intérieur. Recuperado el 16 de junio de 2020, de Le Monde:

<http://libertes.blog.lemonde.fr/2010/10/07/le-fichier-des-romsdu-ministere-de-linterieur/>

Página oficial de Ministerio del Interior, Gendarmería nacional, OCLDI: Texto recuperado el 16 de junio de 2020 consultado en:

<https://www.gendarmerie.interieur.gouv.fr/Divers/OCLDI-en-savoir-plus>

Mahía, A. (2018, enero 16). Jeremías Barrul: «Lo siento, me equivoqué, no volverá a ocurrir». Recuperado 16 de junio de 2020, de La Voz de Galicia website: [https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/coruna/2018/01/16/jeremias-barrul-siento-me-equivoque-volvera-ocurrir/0003\\_201801H16C6992.htm](https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/coruna/2018/01/16/jeremias-barrul-siento-me-equivoque-volvera-ocurrir/0003_201801H16C6992.htm)

Nieto, E. (2018, abril 30). 70 gitanos propinan una brutal paliza a varios policías en Linares e intentan asaltar un hospital para liberar a un miembro del clan. Recuperado el 16 de junio de 2020, de Caso Aislado website:

<https://casoaislado.com/numerosos-gitanos-propinan-una-brutal-paliza-varios-policias-linares-e-intentan-asaltar-hospital-liberar-miembro-del-clan/>

Agüero Fernández, S. (2020, junio 11) Daniel Jiménez: Otra muerte gitana sin aclarar.

Recuperado el 16 de junio de 2020, de AraInfo Diario Libre d'Aragón website: <https://arainfo.org/danieljimenez-otra-muerte-gitana-sin-aclarar/>

## XVI. ERANSKINAK

### A. Laburpen exekutiboa

Laburpen exekutiboa galdera erantzun bidez planteatuko dut, lanean zehar aztertu ditudan nondik norako garrantzitsuenak batu eta irakurterraz egiteko bide egokia dela iruditzen zait eta. Horretarako lanean zehar garrantzitsuak iruditu zaizkidan galderak planteatuko ditut.

#### **Zein egoeratan bizi dira ijitoak?**

Lehenik eta behin aipatzekoa da 12.000 pertsona ijito direla, botere-harremanen menpe daudenak. Espainian, minoria etniko handiena izanik, diskriminatuen dagoen taldea dugu Ijito Herria.

#### **Zein da botere-harremanek gizonezko ijitoengan duten eragina?**

Gizonezkoen kasuan, arrazakeria espezifiko batek eraikitzen du ijito eta gehiengoaren arteko botere-harremana, antigitanismoak hain zuzen. Lehenik eta behin, arrazakeria gu eta besteen artako desberdintasunetik sortzen dela aipatu behar da, honek sortzen dituen identitatea galtzeko beldurrek, konparaketek... estereotipo eta aurreiritziak sortzen dituenean. Arrazakeriaren forma espezifiko hori (antigitanismoa) arrazakeria biologikotik edo kulturaletik azal genezake. Arrazakeria biologikoa zientzian oinarritu izan da kolonialismoan, arraza desberdinak daudela babesten zuten zientzietan hain zuzen, eta arraza baten eta bestearen aldeko desberdintasunek, arraza jakin bat beste jakin baten gainetik zegoela sinistarazten zuen. Tamalez, oraindik jendeak arrazakeria biologikoa erabiltzen du ijitoa deshumanizatzeko joerekin. Bestalde, kulturala ere bada, eta kultura desberdinen arteko talkek, gehiengoaren kultura horrek bere baitan jarraitzeko ijitoak baztertzea eragin du arrazakeria honek.

#### **Eta zein da botere-harremanen eragina emakume ijitoen kasuan?**

Bestalde, emakumeen kasuan arrazakeriaz aparte, patriarkatuaren eraginak ere nozitu behar dituzte. Horrek bere baitan diskriminazio interseksionalari buruz hitz egitea dakar, bi botere-harreman horiek gurutzatu egiten baitira, eraginak are eta larriago bihurtuz, eta ijitoak diren emakumeak zaugarriagoak eginez. Diskriminazio interseksionala da,

emakume ijitoa ez baita diskriminatzen soilik ijitoa izateagatik edo emakumea izateagatik, emakume ijitoa izateagatik baizik. Eta hori ezin daiteke botere-harreman horien batura bezala ulertu, larriagoa baita honek bere baitan duen eragina. Diskriminazio interseksionala gertatzen dela jakiteko, galdera jakin batzuk egin behar dizkiogu gure buruari. Ijitoa izanda gizonezkoa balitz diskriminazio hori jasoko luke? Eta ijitoa ez den emakume batek?

### **Nola eragiten dute botere-harremanek hezkuntzan?**

Historikoki hain errotua egon den antigitanismoak bizirik dirau eremu guztietan. Hezkuntzan adibidez, egoerak hobera egin duen arren eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan ijitoen presentziak gora egin duen arren, abstentzioa oraindik arazo larria izaten jarraitzen du. Zer esanik ez Derrigorrezko Bigarren hezkuntza ikasketak utzi edo klasera ez agertzeak oraindik are gehiago igotzen du tamalez. Gainera, derrigorrezkoak ez diren ikasketei dagokionez, oraindik ijitoen presentzia oso eskasa da. Honetaz guztiaz aparte, aipatzekoa da eskolak getoak sortzeko eta ijitoak eskola geto horietan ikasketak egiteko joera nabaria dela oso. Honek, eragina izan dezake eskola porrotean.

Ijitoek orain hezkuntza duin bat jaso ez izanak, ikasten utzi eta lanean arin hasi behar izanak... analfabetismo maila jendarte orokorrarekin alderatuz gero, oso altua izatea ere eragin du, eta hori aipatzeak ere badu bere garrantzia.

### **Lan-arloan?**

Bestalde, aipatzekoa da lanari dagokionez, ijito herriaren gehiengoak ikasketa maila ez hain altua izateak, lanean hasi edo bertan nozitu behar duten diskriminazioak... eragina duela lan-arloan.

### **Etxebizitzan?**

Gainera, etxebizitzan kasuan ere badago zer esana. Ijito familia gehienek ijitoenak kontsideratzen diren kaleetan bizi behar dute. Etxebizitza arloan beraz, badago baita ijitoak baztertu eta kalea getoak sortzeko joera. Eta hori gutxi izango ez balitz, etxebizitza bakoitzean bizi diren familia kantitateari dagokionez, etxeetan gainpopulazioak sortzen dira. Honetaz guztiaz aparte, aipatzekoa da egoera sozioekonomikoa dela eta ijitoek ez dutela beharrezkoak zaizkien eta guztiok beharrezkotzat ditugun baliabideak izateko aukerarik. Ezin genezake ahaztu, ijitoen kasuan 3 pertsonatik, 2 pobrezia larrian bizi

direla, eta horrek baduela umedadeak, dutxarik gabeko... etxeetan bizi behar izatean eraginak. Haatik, esan daiteke gaur egun txabola herriak gutxitu egin direla, baina oraindik badaudela txaboletan bizitzen diren ijito familiak.

### **Osasunean?**

Osasunean ere badituzte zailtasunak. Bizi duten pobrezia egoera horrek, nabarian eragiten du osasunean, duten elikatzeko moduak, obesitatea igotzea eragin baitu, umedadeak dituzten etxeetan bizitzeak arazoak baitakartza... Hortaz, Ijito Herrian gizentasun arazoak jendarte orokorrarekin alderatuz nabariagoak dira, baita adin populazioa, izan ere, orokorrean ijitoek urte gutxiago bizirauten dute.

### **Nola eragiten dute komunikabideek jarrera antigitanisten birsortzean?**

Komunikabideekin jarraiki, aipatzekoa da diskriminazio arrazistak horretan dirauela oraindik Ijito Herriaren kontra; adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, komunikabideek Ijito Herriari egotzi diote COVID-19aren hedapena, eta horren ondorioz, kutsatuak zeuden ijitoen izen eta abizenak ematen aritu dira egunkarietan. Horren adibide anitz ditugu, Ijito Herriaren kontra erabiltzen dituzten adjektibo eta jarrera diskriminatzaileak nabarian uzten dituenak.

### **Zein da botere publikoen jarrera?**

Europar Batzordeak Ijito Herriaren inklusiorako Estrategia Nazionalen Europar Batasuneko Markoaren inguruko Komunikazioa argitaratu zuen 2011. Urtean. Honek, Nazioek errealitate horiek guztiak murrizteko hartu beharreko estrategiak publikatu behar izatea eragin zuen eta 2012rako guztiak zuten Estrategia Nazionala Publikatua.

2012-2020 urteen arteko Espainiako Ijitoen Inklusiorako Estrategia Nazionalak, kasu askotan ez du behar bezala funtzionatu izan, ijitoen egoera ez baita askorik hobetu. Haatik, praktika onen eredu izan da gobernuz kanpoko erakundeko Acceder Programak (programa hori lanerako bitartekaritza programa da Ijitoen Herriaren lanerako eransketa efektiboa egiteko sortu zen 2000an) izan dituen emaitzengatik.

Orokorrean esan daiteke Estrategia honek aurreikusten zituen helburuak, ez zirela lorterrazak, eta egoera hobetu behar den kontzientzia hartu eta zerbait hobetzea lortu duen

arren, esan daiteke egoera honek guztiz hobetzeko Espainiako Agenda Politikoan jarraitu beharko duela urte luzeetan.

### **Zein da erantzuna jendeari irekitako establezimenduetara sartzea ukatzen zaienean?**

Lehenik eta behin aipatzekoa da testuinguruari eman diodan garrantziak gai hori jorratzeko bidea ireki didala. Ijito Herriaren kontra erabiltzen den jarrera diskriminatzaile, arrazista edo antigitanistak, berauen biziko maila soziala guztietan eragiten duen heinean, publikoarentzat irekita dauden eremuetan sartzen ez uztean ere izanen dute eragina. 2004. Urtean SOS Arrazakeriak testing bat egin zuen gutxiengo parte diren taldeek leku publikoetara sartzea izaten duten zailtasunak ikertzeko. Emaitzen arabera, %45 establezimenduk, tratu-desberdintasuna izatera bideratu zuten.

Kasu horietan, sarrera ukatzeko eskubidea eta sartzeko eskubideek indarrean talka egiten dutela aipatu behar da. Espainiako konstituzioak, bi horiek eskubide legez aurreikusten ditu eta 14. eta 38. artikuluan daude jasoak. 14. artikulua diskriminaziorik onartu ezin daitekeela aurreikusten du, eta 38 berriz enpresa askatasuna. Haatik, 14. artikulua Oinarrizko Eskubide legez aurreikusten denez, garrantzia handiago aitortzen zaio honi, eta hortaz, 38. artikuluan aurreikusten den enpresa askatasunaren mugetako bat bezala ulertu behar dugu hori.

Aztertu beharreko kasua, Ijito Herriko familia-kide batzuk kanpaldi batera sartu nahi eta ez uzteagatik bide administratibo eta penalak eman diezaieken erantzuna aztertu behar izan dut, egitate horien biktimak bi bideetatik salatzeko erabakia hartu baitzuen. Subjektu aktiboa zigor gabe gelditzeko aukerak, zigorra jartzekoak baino handiagoak direla aurreratzen dizuet, bide administratiboan froga-kargen inbertsioa aurreikusten bada ere, gehienetan ez baita zigortzen. Bide penalean berriz, zailagoa da egitate horiek zigortzea, 512. artikulua tipifikatzen baditu ere.

### **Zein aukera izan dezake egitatearen kaltetuak bide administratiboan?**

Autonomia-erkidegoek dituzten eskumenei esker, egun euren lege propioak onartu dute askok, hortaz, araudia nahiko aldatzen dela esan daiteke autonomia-erkidego batetik bestera. Egitate hau Errioxan gertatu zenez, bertako legea izan da aztertutakoa hain zuzen

urriaren 25eko 4/2000 Legeak, joko eta espektakulari buruzkoak, Errioxak onartua duena.

Legeak sartzeko eskubidea ez onartzeko xedapen orokor batzuk aurreikusten ditu, eta erakundeak beste arau espezifikorik jarri nahi izanez gero, administrazioari eskatu behar zaio baimena eta honek eskaera hau onartu behar du baina inoiz ezingo du eskaera honek jarrera diskriminatzailearen batekin zer ikusirik izan.

Lege horretako 20. artikulua diskriminazioz jardun ezin daitekeela aurreikusten du 3. paragrafoan, eta lege bereko 43. artikulua hori arau-hauste larritzat kalifikatzen du. Kontua da, zaila izaten dela egitate horiei zehapen administratiboa ezartzea, froga-kargak direla eta. Horratik, 2000/43 EE 8. artikulua, kasu horietan froga-kargen inbertsioa aurreikusten du zigortzeko aukerak handituz.

Honetaz aparte, Ekainaren 19ko 26/2984 Kontsumitzaileen Eskubideentzako Lege Orokorra ere joenezake, 34.10 artikuluan sartzeko eskubidea diskriminazioz ukatzen bazen, egitateak zehapena zuen, eta autonomia-erkidegoek materia honetako erregulazioa ere badute. Errioxan apirilaren 12ko 5/2013 Kontsumitzaileen Defentsarako Legea jo behar da eta 66. artikulua i paragrafoan diskriminazioz jardutea arau-hauste larri bezala aurreikusten du. Kontua da, kontsumo materiak hori guztia aurreikusten duen arren, praktikan ez dutela esku hartzen egitate horien aurrean eta eskubide horiek arautzen dituen organismoek bideratzen die jarraian.

### **Zein izan da aztertutako kasuan kaltetuari bide administratiboak emandako erantzuna?**

Aipatzekoa da aztertu dudana kasua artxibatzea erabaki zen, diskriminazio hori gauzatu zuen pertsonak emandako erantzunarekin konformatu baitziren. Berauen barne politikan talderik onartzen ez zuten argudio arbitrarioa nahikoa izan zen administrazioak diskriminaziorik gertatu ez eta beraz arau-hauste administratiborik ez zegoela ondorioztatzeko, nik neuk kanpinera deitu eta T.J.k egindako eskaera bera egin eta kanpinera joatekoa arazorik izango ez nuela esan zidan heinean. Ni eta T.J.ren arteko desberdintasun bakarra, ijito-egoera da. Hortaz, diskriminazioa gertatu dela ondorioztatzeko administrazioak (edonork hori ondorioztatzeko moduan), baina kasua artxibatzeko erabakia hartu zuen. Asko dago egiteke oraindik beraz.

## **Zein aukera izan dezake egitatearen biktimak Zigor-arloko jurisdikzioan?**

Bide penalaria dagokionez, Zigor Kodeak 512. artikuluan tipifikatzen du egitatea. Horren arabera, urte betetik lau urte arteko lanbidean aritzeko desgaitasuna berezia ezarriko zaio lanean diharduenak bezeroari sarrera edo prestazio bat ukatzen baldin badio bere ideologia, sinismen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasuna izateagatik, eta biktimak prestazio hori jasotzeko eskubidea badu.

Kontua da diskriminazioari lotutako zigor-prozesuetan berebiziko garrantzia duela frogaren kargak. Izan ere, gai horri lotutako kasuistekari erreparatuz gero, modu argian ikusten da kondena-epaiak lortzeko ezinbestekoak direla gertaera egiaztatzen duten frogak (bideoak, lekukoak...) edo aitortpenak. Beraz, biktimaren lekukotasunari garrantzia eman arren, ezinbestekoak izango dira beste frogak batzuk ere. Horregatik, kasu askotan zigortu gabe geratzen da egitatea. Hori da, funtsean, zifra beltza haztearen arrazoiak: biktimak ez dira salaketa bat jartzera ausartzen, ez dutelako uste euren testigantza nahikoa izango denik epailearentzat. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da biktimetako askok ez dutela ezagutarik zigor-prozesuaren inguruan, eta ez dutela jakiten salaketa jartzeko moduko egitatea pairatu dutenik ere.

## **Nola alda genitzake errealitate horiek guztiak?**

Lehenik eta behin kontuan hartu behar dugu elementu batzuk jokabide jakin diskriminatzaileak areagotu edo gutxitu ditzaketela. Hortaz, lehenik eta behin horiek identifikatu behar ditugu, gero aldatu ahal izateko. Lanean gomendio gehiago proposatu ditudan arren, hemen egoera aldatzeko garrantzitsuenak iruditzen zaizkidanak azalduko ditut:

- ❖ *Ijito* hitzak, adibidez, aurreikusia duen eta jendarteak hain onartua duen terminoa bera aldatu behar dugu, eta horretarako RAEk aurreikusia duen 5. adiera ezabatu behar du, komunikabideek antigitanismoaren bidez idatzitako notiziak debekatu beharko lirakeke.... Ijitoen feminismoa hori da bilatzen dabilena, ez baitira termino horrekin identifikatuak sentitzen eta jendarteak beroiekiko dituen estereotipo eta aurreiritziak indartzen ditu.
- ❖ Betalde, jendartean eragina izateko, eta enpatia maila eta pertsonon itxaropen eta balio sozialak aldatzeko historia berrikasi behar dugu, beste modu batera irakatsi behar baita. Orain arte ikasitakoak botere-harremanetan goian egon denak idatzi

du, ez da gutxiengo parte batek azaldutako historia irakatsi izan. Hortaz, historia perspektiba guztietatik irakasi behar dugu, kritikotasuna lantzeaz gain, empatia ere landuko bailitzateke horrela. Jendarteak kontzientzia izan behar du ijito komunitateak (adibidez) mendeetan jasotako bidegabeko erasoez. Ez al da bada garrantzitsua historia ikastea, berriz ere burutu ziren arazoetara ez bueltatzeko?

- ❖ Gainera, legeak ere aldatu behar dira (legeek ere badute eta jarrera diskriminatzaileak deuseztatzean eragina) eta, horretarako, antigitanismoaren kontrako lege bat sortu beharko litzateke. Auzi-estrategiako bat hastea bideragarria izango litzateke hori lortzeko. Aztertu behar dudak kasuan, biktimak egoera alda dadin salatzen du, auzi estrategiko legez. Haatik, auzitegiak konbentzitzeak ere badu garrantzia, eta horretarako lehenik eta behin, jendartearen pertzepzioan eragina izan dezaketen lagunak behar ditugu gurekin, hala nola: gure alde egin dezaketen komunikabideak, GKE garrantzitsuak, agian ijitoa den pertsona famaturen bat... Horiek ere kontzientzia jendartea konbentzitu baitezakete baita (proposatu ditudan beste gomendioez aparte), eta horrek, nahi eta nahi ez, tribunalak errealitate hori existitu eta jendarteak presioa sartzea bideratzen du. Hortaz, auzi-estrategiako bat prestatzeko lehenik eta behin ijitoak babesten dituen antigitanismoaren kontrako lege baten kontzientzia zabaldu behar da jendartean, eta gero tribunaletara ahalik eta kasu gehien bideratzea lortu behar dugu.